

a u r k i b i d e a

<i>Zenbaki honetan</i>	3
Lizardiren olertia	
KORTAZAR, J.: Gerra aurreko giro literarioa	6
OTAEGI, L.: Aitzolen proiektu kulturalaz	18
ZELAIETA, A.: Orixe eta Arana Goiriren eragina Lizardirengan	28
OTAEGI, L.: Lizardiren poetikaz	39
LEKUONA, J. M.: Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak	53
LERTXUNDI, A.: Lizardiren bide modernoak	89
KORTAZAR, J.: Ohar pareta Lizardiren iturriez	103
LERTXUNDI, A.: Ai, Marlowe, Marlowe!	109
<hr/>	
Orain eta Hemen	
XXI eskutik? – Kongresu batez Madrilen – R.I.E.V.en aro berria – Jeneral berria – Xabier Zubiri – Zergatik hil dituzte? – «Zelo akademikoak» eta beste – Eta zer dio gaur Euskaltzaindiak?	121
<hr/>	
Gaiak	
CHOMSKY, N.: Hizkuntzalaritza eta giza gogoaren natura	135
SALABURU, P.: Noam Chomskyren hizkuntz teoriak	147
<hr/>	
Agiriak	
SOZIOLINGUISTEN BILKURA: Iruñeko Agiria	163
<hr/>	
Liburuak	
AZURMENDI, J.: Josu Landaren «Gerraondoko poesiaren historia»	167
HERNANDEZ, M.: Saizarbitoriaren «100 metro»ren semantikaz ohar batzu	173

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanez
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

Zuzendaritza:

joan mari torreal dai
l. a. bilbao (kazetaria)

Idazkaritza eta administrazioa:

Ategorrieta hiribidea, 23 1. esk.
Donostia – 13. Tel. (943) 27 17 13

1983rako prezioak:

barruan	kanpoan
ale arrunta 500 pta.	600 pta. (25 FF)
ale bikoitza 700 pta.	800 pta (45 FF)
ale extra 1.000 pta.	1.200 pta. (70 FF)
harpidetza 1.500 pta.	1.700 pta. (95 FF)

ZENBAKI HONETAN

Bigarren aldiko 29. zenbaki hau aurtengo azkena da. Euskararen borroka zenbaki bikoitz eta mardula (26/27) atera genuen lehenengo, gero Ikastolatik Eskola Publikora (28), eta orain hau, Lizardi olerkariari eskainia bere heriotzako 50. urtea dela eta.

Zenbaki honetako gai nagusian Lizardiren olerkia aztertzen dugu, gaia hirutan banaturik: lehen partean, Lizardiren garaiko giro literarioaz ari dira J. Kortazar, L. Otaegi eta A. Zelaieta. Bigarren partean, J. M. Lekuonak eta L. Otaegik Lizardiren poetika aztertzen dute zuzen eta zehatz-mehatz. Eta hirugarrenean, textu-mailako iturriak arakutzen dituzte J. Kortazarrek eta A. Lertxundik.

Lizardiri buruz azterketa berri bat, zergatik eta zertarako? Asmo bikoitza izan dugu zenbaki hau eratzean: alde batetik, Lizardiren poetikaz egin ikerketak zertan diren gaur azaltzea; eta bestetik, azter-bide eta -buru berriak eskaintzea. Helburu bietara hurbildu garela sinetsi nahi genuke.

Gai monografiko honen eraketan Jon Kortazarrek eskaini digun lankidetzaz berezia aipatu eta eskertu nahi dugu.

Orain eta Hemen saila hurbildik lotzen zaio gaurkotasanari, alde askotatik lotu ere: gertakariak direla, eztabaidak direla, albisteak direla, hiletak zein jaiotzak direla...

Gaiak saila hizkuntzalaritzaz hornitzen da oraingoan: Noam Chomskyren hizkuntz teoriaren ardatzak argitu nahi ditugu, hizkuntzalari famatuaren artikulu ezezagun baten bidez eta hari buruz P. Salaburuk egiten dituen azalpen-oharren bidez.

Agiriak sailean, uztailez Iruñean ospaturiko soziolinguisten bilkuran buruturiko Agiria emateari interesgarri eritzi diogu, han bildutako euskaldun, katalan eta gailegoen kezka nagusi berak oso geureak bait ditugu aspaldi honetan.

Liburuak sailean, bi libururen azterketa aurkezten dugu: Joxe Azurmendik Josu Landaren gerraondoko poesiaren historia kritikatzan du, eta M. Hernandezek Saizarbitoriaren nobela baten azterketa semantikoa egiten.



J. Kortazar
L. Otaegi
A. Zelaieta
L. Otaegi
J. M. Lekuona
A. Lertxundi
J. Kortazar
A. Lertxundi

LIZARDIREN OLERTIA

Gerra aurreko giro literarioa

«Bide barriak»: olerkigintza berriaren lehen pausoa. Poetika berriari buruzko polemika. Lizardiren lana Lauaxetaren begi-bihotzetan.

Aitzolen proiektu kulturalaz

Pizkunde mugimendua. Euskaltzaleak taldea. Aitzolen hirugarren urratsa: dezepzioa.

Orixe eta Arana Goiriren eragina Lizardirengan

Azentoa. Errima. Aglutinazioa. Epika.

Lizardiren poetikaz

Sintagma indeterminatuak. Aditzaren partizipio/infinitiboa. Maila morfologiko eta sintaktikoaren beste zenbait jokabide trinkozale.

Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak

Azterketaren arloa eta ereduak. Biotz-begietan olerkiak: bana banako aurkezpena: eskema metrikoak; puntuak; azterketa. Ondorio orokorrak.

Lizardiren bide modernoak

Neurkerak eta beste. Multzo fonikoak/multzo semantikoak. Gaierekin bat erritmoa ere. Bide berriak.

Ohar pareta Lizardiren iturriez

Lizardi eta Verlaine: arazo praktiko bat. Lizardi eta Maragall: teoriarazko arazo bat.

Ai, Marlowe, Marlowe!

Lizardiren iturriez aztarna berri zenbait.

GERRA AURREKO GIRO LITERARIOA

Jon Kortazar

Lizardiren lan poetikoa, eta batez ere *Biotz begietan*, giroarekin batera sortua dugu. Eta Orixeren eragina askotan aipatzen bada ere, giroaren aberastasunak eta Lizardiren olerkaritzaren alderdi modernoek (sinbolistak, modernistak, inpresionistak) begibistan uzten dute azalpen honen murriztasuna. Giro literarioa oso konplexua zen. Lehen Mundu-Gerraren ostean Espainia osoan sortutako kultura, eta bereziki literarioa, aberatsa da. Aberatsegia. Europako literaturaren mugimendu guztien berri zekien eta jakintza horrek bultzatu zuen Euskal Herriko olerkigintza ere.

Orixeren influentzia klasikoek, bada, ez dute Lizardiren olerkigintza azaltzen. Beste hainbat berritasunen bila, garai hartako *Euzkadi* aldizkarira jo dugu, idazleen artean sortutako eztabaida eta tirabirak ezagutzeko asmotan, eta Lizardiren poemagintzaren oinarriak agerian utziko dituztelakoan.

Eztabaida guztiak ez dira Lizardiri buruzkoak, ezta guxtiago ere. Lizardiaren poesiaren nagusitasuna ahobatez onartu zuten orduko idazle gehienek. Baina artikulurik ge-

hienak Lauaxetaren lana aztertzen duten arren, nahiko argi uzten dute zein girotan jokatu zuen Lizardiren olerkigintzak.

Debate literariook, hiru aro nagusitan bana ditzakegu:

1. *Bide barridak* liburuari buruzko kritikak.
2. Poetika berriari buruzko polemika.
3. Lizardi, Lauaxetaren begi-bihotzetan.

Hiru puntuotan ikus daitekeenez, Lauaxeta eta Orixerengan oinarritzen da gehienbat polemika. Artikuluaren irakurketa osoarekin, ordea, hiru helburu nagusi lortzen dira:

1. Orduko giro literarioari buruzko hainbat berri interesgarri.
2. Hiru olerkari nagusien arteko loturari (korrekto baina tentsioari) buruzko berriak.
3. Lizardiren teoria poetikoari buruzko ziurtasunak.

Horra, bada, labur esanda, artikulua haria.

1. «BIDE BARRIDAK»: OLERKIGINTZA BERRIAREN LEHEN URRATSA

1931ko abenduan, Lauaxetak bere lehen liburua argitaratzen du: *Bide barridak* deritza eta, bertan, Euskal Herritik irtetea proposatzen du, itsaso eta iparralde magikoen bila, euskal olerkigintza aldatzeko asmoz. Hasiera batetan, oihartzun handia lortzen du textuak. Ez da ahaztekoa une honetan Lauaxetak 25-26 urte dituela eta bere liburuak aldaketa formal handiegiak proposatzen dituela euskal olerkigintzaren esparruan. Hala eta guztiz ere, kritika onak —onegiak— ditu hasieran. Orixek artikulua pare bat idazten du liburua goratuz (bat oraindik argitara gabe dago). Lizardik jarraitzen du. Eta geroxeago etorriko dira Jautarkol, Barrenso eta Arrese¹. Artikulu guztiak 1931ko azarotik 1932ko otsailera bitartean argitaratzen dira.

Orixeren artikuluek² hiru helburu dituzte: 1) liburuaren goralpena egitea, 2) hutsuneak azpimarratzea, eta 3) poetika baten —bere poetikaren— oinarriak jartzea. Honela hasten du Orixek bere

artikulu bat: «El nuevo libro de Urkiaga, "Lauaxeta", es lo que su título dice: un romper nuevos mares para conquistar la isla encantada de la poesía» (1931-IX-29). Onartzen ditu liburuaren tententzia bi: sentimentalismoa, ideiak. Eta huts bi ikusten dizkio: «El conceptismo y el sensismo» (*ibid.*); hainbat eta hainbat olerki «blandengues» (31-XII-8) direla esanaz bukatzeko. Eta Europako literaturaren atontzaile bezala bertuteak ikusten badizkio ere, nahikoa dela liburu hau, dio, experimentua baztertzeko, eta, aholku batean, poesiaren bere irudi klasikoa azpimarratuz bukatuko du: «Hay leyes filosóficas eternas que están asentadas sobre el buen sentido, la disciplina, la armonía, la medida, y sobre todo, la unidad artística, que hoy tanto se descuida» (31-XI-29).

Lizardiren artikuluek Orixerenak baino dogmatismo gutxiago dute. Olerkaria olerkariaren ikuspegitik begiratzeko dute, eta hainbat puntutan zorrotzagoa agertzen badu bere ikuspegia, tonua askoz ere maitakorragoa da. «Un meritísimo esfuerzo por adoptar el euzkera a los conceptos difíciles, a las altas ideas cuya expresión creen monopolizar las lenguas llamadas cultas» (31-XII-17). Agorra, hotza ikusten du Lauaxetaren euskara «como adolescente de "insuficiencia expresiva"» (*ibid.*). Baina, hala eta guztiz ere, *olerkari* deitzen du Lauaxeta, eta lehen artikulua ez da izen horri buruzko joko galai bat baino.

Bigarren artikulua, zehaztasunez osatua, kritikaren eredu berezia du eta, hori baino gehiago, Lizardiren poetikaren deklarazio bihurtu da. Hiru gai nagusi ikusten ditu lan honetan: maitasuna, erlijioa eta filosofikoa. Luzera da Lizardirentzat Lauaxetaren hainbat poemaren hutsik handiena: «Hay en la obra de Lauaxeta abundancia de pensamientos y de imágenes, delicados, ingeniosos, profundos. Lástima que con alguna frecuencia den la sensación de amontonamiento... Son excepción varias de las poesías cortas, amatorias en gran parte... la idea de un conglomerado de perlas, donde fuera difícil seguir el hilo» (31-XII-30). Artikulu hau garrantzizkoa iruditzen zaigu, Lizardik, artikulua bukaeran ohizkoak ziren aholkuak ematean, bere poetika azaltzen bait du:

«Yo le aconsejaría, amigo mío, que se haga usted todo corazón y ojos y que apenas deje a la cabeza sino aquel cuidado, recomendado ya, de dar unidad y encauce a los elementos aportados por aque-

llos; no le consienta usted demasiado a la conjetura, la disquisición, la pregunta capciosa, el silogismo... Me parece evidente que, si en algo ha de ser superior el verso lírico a la prosa, no será por lo que todo verso tiene de convencional, sino por lo que le ayude a extraer del lenguaje el máximo de sustancia expresiva» (31-XII-30).

Lizardiren lirikak arau bi jarraitzen ditu, bada: adierazlearen indarra, kontzeptismoa, eta egituraren osotasuna. Bere olerkietan askotan aukeratzen du hari narratibo bat osotasun hori aurkitzeko, nahiz eta gehienetan hari hori ere sinboliko bihurtu. Lizardiren mendira igotze guztiek interpretazio sinbolikoa dute.

Artikuluaren amaieran, Lizardik huts gramatikalen aipamentxo bat egiten du: «abundando en la idea de que el verso lírico debe aspirar a concentrar en sí el mayor grado posible de belleza, conviene ponga usted atención en evitar incorrecciones gramaticales...» (*ibid.*).

Jautarkolek, lirikotasunaren sineskortasunagatik maite ditu poemok. Maitasun-poemak goratzen ditu, Lauaxetak jakin duela-ko, haren ustez, poesia erotikoaren akats biak inguratzen: «ni las procacidades realistas y anticristianas de Heine, ni el afectado sentimentalismo» (31-XII-7). Barrensorok ere ontzat ematen ditu poemok, eta kritika inpresionista hutsa egiten du (32-I-14). Arresek poema batekin agurtzen du Lauaxeta (31-XII-21).

Liburuaren kritika-aro hau *Euzkerea* aldizkariako aipamen batekin bukatzen da: olerkari eta bertsolarien arteko desberdintasunak aipatzen ditu (32-II-9).

2. POETIKA BERRIARI BURUZKO POLEMIKA

Lizardiren eta *Euzkerea*-ko artikuluetan aurki daitezke susmoren batzuk. Haren «sé por repetida experiencia que esta concepción [Lizardirena, alegia] tiene entre nosotros numerosos y acérrimos enemigos» (31-XII-30) aitordenak nolabait susmarazten zuen bertsolariaren eta olerkariaren arteko bereizkuntza. Eta horixe izan zen «Euskaldun batek», *Argia*-n argitaraturiko artikuluan baten bitartez, sortu zuena: berrizaleon kondena. «Lauaxetaren bide berriak ez det ikusi. Bizkaieraz egon bear du eta nik ez dakit

gipuzkoeraz baizik». Honelako ondorio objektiboetatik abiaturiko artikuluak hiru proposamen daramatza barruan:

1. Berrizaleok ulerkaitzak zirela («ulertu ezinak») eta, gainera, horiek saritzen zirela.

2. Euskara galtzeko bidea zela hori: «Ori ez da txukuntzeko bidea, naspiltzekoa baizik».

3. Olerkari batzuk gogaitu egin zirela eta ez zutela gehiago idatziko.

Planteamendu honen azpian, nik uste, hiru-lau arazo nahasten dira. 1932-1933 urteetan argitaraturiko hainbat artikulu tratatuko du gaia. Hasieran, poesia zail/errazak kontrajartzen ziren. Dirudenez, gazte/zahar konponentearekin loturik eta, Lizardik aipatzen zuenez, liriko/epiko edo, hobe, liriko/narratibo tratamenduak nahaspilatuz.

Planteatua zegoen polemika. Hasieran, Lizardik eta Lauaxetak erantzungo dute. Ezaguna dugu Lizardiren erantzuna: «Bide berriak? Bide guziak» (32-II-9). Artikulu horretan «irizpide zabalaren» aldeko agertzen zaigu: bide guztiak dira onak euskara indartzeko, baina bai berak eta bai Lauaxetak (olerki-egunetan saritutako olerkari bakarrak) beste guztiak onartzen badituzte ere, beren bidea nahiko argitua zeukaten. Laster altxa ziren Barrenoso (32-II-17) eta Larrekoren ahotsak (32-III-10), bakea ekarri nahirik. Orixek ere, ikusi ez dugun artikulu baten bitartez, parte hartzen du, Barrenoso haserretuak azaltzen duenez: «Sale ahora Orixe a la palestra con gesto de perdonavidas» (32-II-17).

Orixeren eritziak Barrenosorekin sartzen baziren ere, honek ikusi zuen argien zertan zetzan arazoa: «Es transcendental la cuestión. Se trata de orientar la incipiente literatura vasca. Se han dibujado dos tendencias. La de los escritores que quieren seguir discutiendo por los cauces clásicos, y la de los innovadores que pretenden explorar nuevas, desconocidas rutas» (33-II-17). Hortxe zegoen koska.

Lizardiren, eta gehien, erantzuna bakezkoa izan zen arren («Ementxe daukat, aurrean, nere (?) aritz abarra. Oker-irabazia dedala ziñez uste ba dezu, zure eskuetan uzten det» —32-II-9),

okerra eta garratza zen auzia. Konplexutasuna, erabilitako erizpi-deetan agertzen zen. Linguistikoa zen nabarmenena (euskara zail/erraza). «Euskaldun batek» gai horretan nahi izan zuen kokatu, baina ez zen hori koska.

Lizardi eta Lauaxeta batera agertu ziren auzi honetan, eta bizkaitarrak jokatu zuen hemen gogorrago, agian horrela jokatzeko posibilitateak ere bazituelako, eguneroko bat kontrolatzen zuen neurrian: «*Bide barridak* ba derixot ez daizkun agaitik bakarrik, geiagoitik baiño. Orain arte erabili ez diran gaiak diralako». Baina gakoa ez zetzan gaian: poetika bi daude hemen borrokan:

—«Euskaldun batek» proposatutakoa: erraza, narratiboa, euskara jatorrean; eta agian, aranatarerrietatik urrun zeuden jokabide linguistikoak proposatzen ziren, inoiz mordoilo ere deitu den jokabidea.

— Lizardik eta Lauaxetak proposaturikoa: zaila, berria, kontzeptismoz osatua eta «garbia», purismoaren aldetik, jakina.

Lehenengoa, azken batean, betiko poesia erromantikoa zen, nahiz eta Barrensorok «klasiko» deitu. Bigarrena, iraultzailea eta gutxiengoarentzat eгина. Polemika, mingarriaz gainera, luzea izan zen. Bukatutzat eman zenean, Aitzolek bigarren aldea sortzen du: olerkigintza maioritario baten aldeko agertzen zuen bere «Aintzina oituren piztutzea» (*El día*, 33-II-12). Debateak, polemikak indar berriak hartu zituen: gakoa olerkigintza irakurgarri / ezirakurgarri artean jartzen zuenez, bide desberdinetatik abiatu zen. Lizardiren erantzun gogorra izan zuen (zenbaki honetako beste artikulua batean erabiliko da gai hau sakonkiago).

Ez zen Lizardirena izan artikulua eta eritzi horren erantzun bakarra. Lauaxetak (33-XI-16) berriro ekingo dio olerkigintza minoritarioari:

«Idazle errezik ez gaxik ez dago: idazle onak edo txarrak baño... Eskribatzalleak batzuk dira, beste batzuk «literatoak». Aldakuntza andiak dira bioen artean. Idazlearen lana erriarentzat dan ezker, erriarentzat idatzi bear dau... Olerkariak literaturarako ei dauz... Elburu bi dira ez bakarra... Danteren poema ederra erriak irakurten dau? Bai zera! Goetheren lanak edonork irakurri ete degikez? Ezin ba... Erderaz «*minorías selectas*». Orren gurtzalle nozu».

Lauaxeta eta Lizardi poesia minoritarioaren bideetatik abiatuko dira, une hartan egiten zen bezala.

Estetika bi zeuden borrokan, eta Lizardi bigarrenaren alde agertu zen hasieran; ez bait da ahaztu behar, berak irabazitako Lore-Jokoetan, Orixek haren kontra eman zuela botua. Honela airtortzen du jazoera Lauaxetak: «Epai-maiko izan nintzan... nire ustez, onenak ziran Lizardirenak eta Jakakortajarena jaunarenak. Baiña lenengo maillan zan Lizardirena. Au uste izan eban Mourlane Mitxelena jaunak ere. Orixek oster, Jakakortajarenari bere baietza egin eutson» (32-VIII-14).

Guzti honek salatzen duenez, hasiera batetan ez dirudi Orixe-ren poetikak Lizardirengan erabateko eragina izan zuenik, honen poetikaren lehen aroan behintzat³.

Polemika honek erakusten duenez, gaia bukatzeko, esparru bi ikusten dira euskal poesian: bata tradizionala, edo klasiko deitua, bertsogintzatik hurbila, narratiboa eta, susmatzen dugunez, joera erromantiko batek ukitua; euskararen aldetik, herri-euskararen oinarritua. Bigarrena, iraultzailea, barrokoa, berria, Europarekin elkartu nahian dabilena, poesia kontzeptista (askotan sinbolista), gutxiengo batentzat idatzia; eta, horregatik, aranismoa onartzen zuen hizkuntza poetiko bat bilatzen zuena.

Lauaxetaren azken artikulua ostean, berriro bizten da polemika, baina oraingo honetan Orixe (33-IX-6) eta Lauaxetaren artean gertatuko da. Orixek iruzkin labur bat eskaintzen dio «Maitale kutuna» poemari, baina Lauaxetaren poetika osoa auzitzan jartzen du bertan. Hiru akats nagusi ikusten dizkio: 1) frantsesen eraginera larregi makurtu izana, 2) milinga edo «itxura nayekoa, erderaz «amanerado» esaten duguna» izatea, eta 3) aitzinako «poeta jatorretatik etzayo ezer andirik itsatsi». Guzti honek, jakina, «gure gaztediari mesede baño kalte geyago egin zayoke». Artikulu hone-tako Orixek, bestalde, talde baten buru eta eritzi-emaile bezala aurkezten du bere burua.

Lauaxetaren «Erantzuna» (32-X-14/20), olerkarien mugimendua ezagutzeko dokumenturik garrantzitsuenetakoa dugu. Estetika modernoaren oinarriak jartzen dira hor. Edozein idazle eredu-tzat onartu, lirikaren nagusitasuna aitortu, sentsibilitatea klasiko-

tasunaren arauen gainetik jarri. Momentuan momentuko klasikoak aipatzen ditu Lauaxetak. Eta inori ezer ukatu eta kendu bagerik, berak modernitatearen jarraitzailetzat dauka bere burua: «Eundi bakoitzean nor klasiko?» itaundu ostean, honela jarraitzen du: mende horren ezaugarriak hobekien sinbolizatzen dituena; eta mende bakoitzak bere literatura behar du.

Debatearen tonua garratza izanik ere, ez zen mingotsa; haren oihartzunak, ordea, jarraitu zuen, eta Orixek *Barne muinetan* argitaratzean, ordainak itzuliko dizkio Lauaxetak: «Nuestro poeta Orixe nació con varios años de retraso» (34-V-26).

3. LIZARDIREN LANA LAUAXETAREN BEGI-BIHOTZETAN

Lizardiren *Biotz begietan* argitaratzen denean, eritziak nahiko ahobatekoak dira: olerkari nagusi baten aurrean gaude. *Euzkadi* egunkariaren orrialdeetatik, gogoz ekingo dio Lauaxetaren begiak Lizardiren lanaren goraiamenari: «Algunos pedantes que se consideran jueces sospecharán que mi elogio está fuera de toda crítica; pero no adivinan que estamos ante un poeta genial» (32-VI-14).

Lizardik erakutsitako bidea jarraitzen du Lauaxetak haren liburua komentatzerakoan: adiskideari adiskidetasunez mintzatzea. Ez du honek esan nahi, ordea, eritziak subjektiboak direnik. Liburua agertzen den unean, Orixek hura kritikatzeko orduan jarraitutako bidea gogoz ukatzen du Lauaxetak: «Concreta su labor a subrayar cada poesía con el sano propósito de dar título académico a cada una de ellas». Orixek «sobresaliente, notable, aprobado» bezala epaitzen ditu poemak; jokabide hori kritikatu, Lizardiren poesiaren gune nagusiak azpimarratuko ditu Lauaxetaren begiak.

Hasteko, goralpena egiten du: «Cualidades raras que le nimban como un artista genial. De sensibilidad exquisita, con manejo magistral del idioma, gusto depurado... los que pierden las horas en leer a los poetas verticales no sabrán apreciar la clásica gracia... la danza helénica de los versos del poeta vasco» (32-VI-14). Lauaxetaren ustetan, Egia antzematen jakin du Lizardik: «Novalis nos dijo: "la poesía es la más absoluta y auténtica realidad". Pero más tarde Fauenhahn recalca: «La poesía más excelsa solamente se encuentra en la verdad absoluta»».

Bigarren gunea, Lizardiren klasikotasuna litzateke: «Nuestro poeta vasco es clásico hasta los tuétanos. No creo que sea clásico por su forma externa... Nada tiene de horaciano como alguno apuntó, y sí mucho de Sófocles y Teócrito».

Hirugarrena, Izadia; baina ez nolanahikoa, orientalismoz zizpriztindua baino: «Ambos [Lauaxeta eta Sotak] conveníamos en que Lizardi esmalta sus poesías con cierto matiz japonés».

Beldur bat zuen, ordea, Lauaxetaren bihotzak: Euskal Herriak Lizardi merezi zuen neurrian ez onartzearena; eta, horrela, irakurri-ala, gogoratzen dizkion poetak aipatzen dizkigu: Keats, Leopardi, Maragall. Beharbada, ez dira Lizardiren iturri zuzenak; baina, agian, estetika beraren jarraitzaile ditugu denak.

Handik hilabete batzutara hil zen Lizardi. Eta Lauaxetaren bihotzak bere adiskidetasunaren mina azaltzeko aukera izan zuen. Epitafio baten antzera, hau esanez bukatu zuen: «Que la tierra te cubra con ternura y estreche tu cuerpo con cariño».

J.K.

¹ Artikulu guztion iturria, *Euzkadi* aldizkaria da. Aipamen bakoitzaren ondoren, artikulua data ematen dugu.

² Normala zenez, bikoitzak dira artikuluko: lehenengoak inpresio orokorra eskaintzen du, eta bigarrenak azterketa zehatzagoa.

³ Orixe eta Lizardiren arteko harremanetan komenigarria litzaziguke aroak bereiztea. Datuon arabera, ez dirudi bat eta uniforme izan zenik, orain arte uste izan dugunez. Ziur asko, konplexuagoa eta eboluzio bat jarraitu zuena zatekeen delako harremana. Artikulu hauek erabili ditugu guk:

ORIXE: «Bide barrijak», in: *Euzkadi*, 31-XI-29

ORIXE: «Bide barrijak», in: *Euzkadi*, 31-XII-8

LIZARDI: «Rumbos nuevos», in: *Euzkadi*, 31-XII-17

LIZARDI: «Rumbos nuevos», in: *Euzkadi*, 31-XII-30

JAUTARKOL: «Rumbos nuevos», in: *Euzkadi*, 31-XII-7

BARRENSORO: «Bide barrijak», in: *Euzkadi*, 32-I-14

- ARRESE: «Lauaxetari», in: *Euzkadi*, 31-XII-21
- XX: «Idazti barrijak», in: *Euzkadi*, 32-II-9
- LIZARDI: «Bide berriak? Bide guziak», in: *Euzkadi*, 32-II-9. Ik. *Itz lau*, 100 or.
- BARRENSORO: «Por los nuevos caminos y también por los antiguos», in: *Euzkadi*, 32-II-17
- LAUAXETA: «Eztabaida», in: *Azalpenak*, Labayru, Bilbo, 120 or.
- LARREKO: «Bide berriaz itz bat oraindik», in: *Euzkadi*, 32-III-10
- LAUAXETA: «Orreri, orreri!», in: *Euzkadi*, 33-XI-16
- LAUAXETA: «Euzko olerkijak», in: *Euzkadi*, 32-VIII-14
- ORIXE: «Maitale kutuna», in: *Euzkadi*, 32-IX-6
- LAUAXETA: «Erantzuna», in: *Euzkadi*, 32-X-14/20. Ik. ere *Azalpenak*, 130-156 or.
- LAUAXETA: «Biotz begietan», in: *Euzkadi*, 32-VI-14
- LAUAXETA: «Ha muerto Javier de Lizardi», in: *Euzkadi*, 33-III-14
- LAUAXETA: «La poesía cristiana», in: *Euzkadi*, 34-V-26 eta 34-VI-8

EL AMBIENTE LITERARIO DE LA PREGUERRA L'AMBIANCE LITTÉRAIRE DE L'AVANT-GUERRE

El ambiente literario de la preguerra queda bien reflejado por estos tres hechos.

1. *Bide Barrijak: primer paso de la nueva poética.*

Bide Barrijak de Lauaxeta (1931) marca una línea innovadora, que en un primer momento es saludada con simpatía. Orixe, aún reconociéndole elementos positivos, le critica por «el conceptismo y el sensismo». Cree que es suficiente para abandonar esa línea de la poesía europea y volver a las leyes eternas clásicas.

La crítica de Lizardi, en un primer artículo, es más suave y menos dogmática, aunque denuncia cierta insuficiencia expresiva. En un segundo artículo realiza una crítica más concreta y matizada; y refleja las dos leyes fundamentales de su concepción poética: la fuerza de expresión, la estructura bien tramada.

Las críticas de Jautarkol, Barrensoy y de Arrese fueron también favorables.

2. *Polémica en torno a la nueva poética*

En un segundo momento surge la polémica entre quienes abogan por una línea clásica más épica o narrativa cercana al bersolarismo, y por eso más asequible, se-

guida por la generación mayor, y quienes tienden hacia una lírica nueva, conceptista, que sigue las corrientes europeas y que es más difícil de entender.

Esta línea innovadora era tildada de incomprensible; se afirmaba que ese camino llevaba a la desaparición del euskara y a la anulación de posibles talentos poéticos. La primera línea era la poesía romántica de siempre. La otra, más revolucionaria y minoritaria.

Lizardi y Lauaxeta respondieron de forma conciliante en esta polémica agria como larga.

Cuando iba remitiendo la polémica, irrumpió en ella Aitzol, apoyando decididamente la tendencia primera. Insistía en el tema de la comprensibilidad del euskera utilizado. Le respondieron tanto Lizardi como Lauaxeta. Posteriormente la polémica se limitó a un mano a mano entre Lauaxeta y Orixe. Este denunciaba en la poesía de Lauaxeta el afrancesamiento, el amaneramiento y carencia de aliento clásico. Lauaxeta le respondió exponiendo las leyes fundamentales de su poética que valoran sobre todo la lírica y la sensibilidad.

3. Lauaxeta, admirador de Lizardi

*Lauaxeta acogió con gran entusiasmo la obra **Biotz-Begietan** de Lizardi. Lo aclamó como poeta genial. Lo declara poeta clásico «hasta los tuétanos». Lizardi es cantor de la Naturaleza, pero en formas orientales. A pesar de todo, teme que el País Vasco no lo estime en el grado en que lo merece.*

L'ambiance littéraire de l'avant-guerre se reflète dans ces trois faits:

1. Bide Barrijak: premier pas de la nouvelle poétique

Bide Barrijak de Lauaxeta (1931) marque une ligne innovatrice qui dans un premier temps est accueillie avec sympathie. Orixe, tout en lui reconnaissant des éléments positifs, la critique à cause de son «conceptisme et sensisme». Il croit que ces erreurs sont suffisantes, pour que cette ligne de la poésie européenne soit abandonnée et que l'on retourne aux lois classiques.

La critique de Lizardi dans un premier article est plus complaisante est moins dogmatique, bien qu'il dénonce une certaine insuffisance expressive. Dans un deuxième article il apporte une critique plus concrète et nuancée; il y reflète les deux lois fondamentales de sa conception poétique: la force d'expression et une structure bien construite.

Les critiques de Jautarkol, Barrensorro et d'Arrese à la nouvelle tendance poétique furent aussi, favorables.

2. Polémique sur la nouvelle poétique

Dans un second temps survient la polémique entre ceux qui défendent une ligne classique, plus épique ou narrative, proche du bertularisme et de ce fait plus accessible, ligne suivie par la génération précédente, et ceux qui tendent à une lyri-

que nouvelle, où le concept tient une place importante, qui suit les courants européens et qui est plus difficile à comprendre.

Cette voie innovatrice était considérée comme incompréhensible; et on était persuadé qu'elle conduirait à la disparition de l'euskara et à l'annulation de possibles talents poétiques. La première ligne se réclamait de la poésie romantique traditionnelle, alors que la deuxième était plus révolutionnaire et minoritaire.

Lizardi et Lauaxeta répondirent d'une façon conciliante à cette polémique aussi agressive que longue.

Alors que la polémique commençait à s'apaiser, apparaît Aitzol en appuyant inconditionnellement la première tendance. Il insistait sur la compréhensibilité de l'euskara utilisé. Lizardi tout comme Lauaxeta lui répondirent. Plus tard cette polémique se limita à un débat entre Lauaxeta et Orixé. Celui-ci dénonçait dans la poésie de Lauaxeta son goût francisant, son affectation et son manque de classicisme. Lauaxeta lui répondit en exposant les lois fondamentales de sa poésie qui mettent surtout en valeur la lyrique et la sensibilité.

3. Lauaxeta admirateur de Lizardi

Lauaxeta accueillit avec grand enthousiasme l'oeuvre *Biotz-Begietan* de Lizardi. Il l'acclama comme poète génial et le considéra comme un poète classique «jusqu'à la moelle». Lizardi chante la Nature mais sous des formes orientales. Malgré son admiration pour Lizardi, Lauaxeta craignait qu'il ne fût pas estimé au Pays Basque, comme il le méritait.

AITZOLen PROJEKTU KULTURALAZ

Lourdes Otaegi

Guda aurreko 1926–36 hamarkadan Euskadin sortu zen Pizkunde mugimenduari buruzko erreflexioa Jokin Zaitegik Guatemalan 1951n argitara zuen «Aitzolen gizaldia» zeritzan artikuluz abiatu zen.

Zaitegik hautatu zuen izenburuaren egokitasuna behin eta berriro baieztatu izan da gure garaiko kritikoen idaztietan, denek ahobatez aitortzen diotelarik Aitzoli belaunaldi haren aitzindaritza:

«Belaunaldi berri baten bozemaile eta aitzindaria, euskara kulturbideetan sartzeko eta literatura egiazko bat tankeratzeko egiten duen ahaleginak gatik, aro folklorikoa gainditzeko zorian jarri zuen belaunaldiarena»¹.

Aitzolen aitzindaritza erabateko honen eragina euskal kulturaren eremu zabalera hedatu zen, berak kulturari buruzko proiektu oso bat eskaintzen bait zuen, eta ez sentimentalismo hutsa edo nolabaiteko mezenazgoa.

Haren proiektuaren jatorria Arana-Goirik behiala amestu zuen Pizkundearen iturrietan datzala esateak ez du Aitzolen eraginaren kemena gutxitzen eta bai argitzen mugimendu kulturalak garai horretan politikarekin zuen harreman hestua. Ezin bait daiteke ahaztu, Aitzolek 1927an *Euskaltzaleak* taldearen sorrera propiziatu zuenean, Primo de Riveraren diktadurapean zegoela Euskadi, eta abertzale-tankera zukeen guztia galerazia zegoela politika-bideetan bertatik.

Errepublikaren hasierak eman zion Aitzoli egunkarietan bere proiektu horren berri agertzeko egokiera hainbat artikulu politiko, kultural eta literarioen bidez. Europako herri minoritarioak hartu zituen batez ere gaitzat: Gales, Eskozia, Britainia, Proventza... Herrialde horietan zeuzkaten status politikoak, kulturalak, eskolarrak, linguistikoak etab. nabarmenerazten zituen; Belgikan waliarrek zuten elebitasun-sistema, Irlanda eta Finlandian aurrera eramanean zen mugimendu abertzaleak eta batez ere berpizkunde kulturalak aztertzen zituen, Euskadin ere, antzeko zerbait egiteko aukera ezagutzera emanez.

Gehienik aztertu eta sakondu zituen pizkunde-prozesuetan garrantzitsuenak Irlanda, Finlandia eta, beste maila batetan, Proventza eta Kataluniakoak izan ziren, horietan hartzen bait zuen kemena euskal mugimenduari bihotz emateko. Hainbat artikulu-
ren mamia izan ziren istudio guzti hauen fruitu, herri minoritario horien prozesuetan konstante larri bat nabarmendu zuen Aitzolek: status linguistikoa, politikoa eta kulturala indartu baino lehenago, literaturak eta, bereziki, olerkigintzak betebeharrak eta eragin garrantzitsu zenbait izan zituela; alde batetik, hizkuntza lantzea eta egokitzea, hiztunek hizkuntza horren erabilera errazagoa eta eskura errazagoa aurki zezaten, eta bestalde, menpean eta txarretsirik zeuden hizkuntza horiek kultur mintzabide egokiak izan zitezkeela frogatzea.

Olerkigintzak, horiezaz gain, hirugarren helburu nagusi bat zuen: herri horretako maila sozial kulturadunak pizkunde-mugimendu horretara erakartzea.

Poesigintzaren azken betebeharrak honen kontextuan kokatu behar genuke 1931n euskal idazleen artean hedatu zen poema nazionalaren premiaren kontzientzia.

Idea honen eragile okasionala, Mistralek proventzaleraz idatzi zuen *Mireio* poema dugu. Nobel saria irabazi zuen egileak, eta horren bitartez, mintzaira erdi-galdua zenak maila estetikorik garaie-nak irits zitzakeela erakutsi zuen. Eredut maitagarria bilakatu zitzaizen hura euskaldunei, amets eder bat.

Aitzolek bere aldetik ez zuen honetan beste pizkunde-mugimendu batzuetan frogaturik zuen eskemaren baieztapena baizik ikusi: olerkigintzaren garrantzia sentimendu nazionalaren eta kultur mailaren bilakabidean.

Lizardik eszeptiko xamar hartu zuen, lehen kolpetik, poema nazionalaren gai hau. Alde batetik, zalantzan jartzen zuen poemarik ederrena ere euskara salbatzeko gai izatea, eta, bestalde, ez zuen uste olerki garai hori idatz zezakeen olerkaria jaioa zenik. Honen proposamenak apalagoak ziren, baina ez horregatik adore gutxiagokoak; olerki landua eta bestelakoa egitea proposatzen zuen, hizkuntzaren flexibilitatea landuz, oztopoak legunduz banan-banan, olerki garai hori sortzeko giro literario egokia prestatzea.

Gaurregungo errealitatetik begiraturik, Lizardiren jarrera praktikoagoa iruditzen zaigu beste askorena baino; eta halere konprengiarri zaigu aldi berean, Lizardik garaikoekin bat hartzea eta itzaropenik horretan jartzea, «Eusko Bidaztiarena» deritzan olerkian agertzen duen moduan:

«Eta Jaunaren gogo baledi
nerea den bezain gartsuki
euskeraren olerki gurena
norbaitek lenbait-len begi».

EUSKALTZALEAK

Aitzolek olerkigintzari eskaintzen zion ohorezko lekua, esan dugun bezala, kultur mugimenduaren bilakabidean, eta baita politikoan ere, eragin zezakeen indarraren baitan ulertzen da.

Literaturá eta gainerako expresabide kulturalak euskara erabiltzen has zitezen, beste herrialdeetako pizkunde-mugimenduetan izan ziren talde eragileen antzeko bat sortzea proposatu zuen Ai-

tzolek 1927ko Arrasateko Euskal Egunean, *Euskaltzaleak* taldea, hainbat ekintza kultural eta literarioren antolatzaile izateko.

Talde kultural honen hamar urteko bizitzaren lehen hiru urteetan, ekintza nagusiak euskararen aldeko kanpainen gauzatu ziren; baina 1930ez geroztik, Olerti Egunaren antolaketa hartu zuten bere gain, euskal idazleak susperrarazteko, olerkari gazte ezezagunak erakartzeko...

1930 urteko sariketan parte hartu zuten bai Lizardik, eta bai Orixek; halere Lauaxeta gaztea gertatu zen irabazle «Maitale kutuna» zeritzan olerkiarekin.

Bigarrenean, 1931n, Lizardik irabazi zuen lehen saria. Bi sari hauek Aitzolek eta, orokorki, *Euskaltzaleak* taldeko partaideek promozionatu zuten olerki-tankera nabarmentzen hasiak ziren: poesia landu eta bitxitua bait zen, irakurle goaren gehiengoari ulerkaitza gertatuko zitzaiona, baina orduan ohizkoa zen olerki erromantikoa eta narratiboa baino jaso handiagokoa.

Lauaxetak lehen saria irabazi zuenean, Orixek bakarrik idatzi zuen haren olerkiaren tankera berri eta frantses zaletuaren aurka; eta eztabaida ireki zen bi idazleen artean, klasizismo/modernismo ardatzaren inguruan. Bigarren aldian, berriz, Lizardik irabazi zuenean, eztabaida zabalagoa izan zen, alkantze handiagokoa, jarrerak eta eritziak pare geratu bait ziren.

Polemikaren aitzakia ez zen Lizardiren saria bera izan, baizik eta Lauaxetak 1932 urtearen hasieran argitara zuen *Bide barriak* liburua.

Otsaila eta martxoa zehar egunkarietan bideratu zen polemika honen urratsak jarraituz anekdota konkretuen balioa baino gehiago, zein jarrera identifikatu ziren nabarmendu nahi genuke eta eztabaidaren ardatzak zein izan ziren argitu.

Euskara gauza erraz eta «jatorrekin» identifikatzen zuen betiko kontzepzioaren aurka agertu ziren joera berriko olerkariak, beste ikusmolde bat harturik; garaiko korrante estetikoaren berrikuntzak bereganatuz, nabardura konplexu eta abstraktuak frogatuz... eta, guzti honen ondorioz, hizkuntzaren moldaera berriak saiaturik.

Garaikideek, ordea, ez zuten joera honen azaleko itxura baizik

nabarmendu, hizkuntza bihurtzen zutela, eta jende gehienarentzat iritsiezina zela, ulerkaitza...

1932 urtearen hasierako polemika hau gaiaren planteamendu hutsa izan zela uste izatea, ordea, gauzari izan zuen baino garrantzi gutxiago ematea litzateke. *Euskaltzaleak*-ek handik aurrera promozionatu zuen olerkigintza ikusiaz, eta batez ere, 1933 urteaz geroztik Aitzolek argitara zituen eritzietan oinarriturik, esan genezake honen ikusmoldean ardatza puntuz aldatzen hasi zela.

Aldaketaren lehen zantzua, Aitzolen «Antzinako oituren piztutzea» zeritzan idaztia izan zela esan dezakegu. Artikulu horren aitzakia Tolosan Agate Deuna zela-eta antolatu zen sariketa batean datza; bertara azaldu ziren olerkien artean koplak zaharren eredu tradizionala jarraitzen zuten Jautarkolen bertso batzu gertatu bait ziren irabazle:

«[Koplak] irakurri utsaz eta entzun utsaz errex aditzen dira. Eta onelako olerkiak bear ditugu. Irakurleak eta euskaltzaleak gere bertso zail eta idazlan ezin entendizkoaz aspertu ditugu. Geok ere, idazleak, aizkenaz nekatzen ari gara. Inor mintzeagatik ez diot. Neroni naiz erruduna. Baña guztiak bide txarrak utzi eta bide onerajoz dezagun.

Bide txarra daramagu, olerki eta idazle gehienak. Oso bide txarra. Ongarri baño txarkeri geiago euskerari egiten diogu.

Guztiok euskera maite degu. Gure elburua euskera piztutzea da. Gure baitan sar gaitean eta erabaki egokiena gureganatu dezagun»².

Lizardik eta Lauaxetak, biek erantzun zioten Aitzolen artikulu honi. Lizardik bere idazlanetan mingotsena eta ironia mindu gehienik duen «Gure bideko mugarriak» deritzanaz erantzun zuen. Eztabaidaren gunea, bere olerkigintzan eta, orokorki, bere hizkera literarioaren zailtasunean kokatzen zuela dirudi, erantzunean, gaiaren konplexutasunaren baitan ulertzen dela baieztatzen bait du, eta azken kasoan ere, olerki zaila egin nahi dutenei idazteko posibilitatea utzi beharko litzaiekeela.

Lauaxetaren erantzuna Lizardirena baino tonu umoretsuagokoa da, barregarritzkoa kasik: «Oiei, oiei» deritzan artikuluan be-

rrizaleak gaizkile eta lapurtzat hartu dituen gizarte bat deskribatzen digu, haien pertsekuzio eta ejekuzioa proposatuz.

Ez zuen polemikak luze jo, ordea. Aitzolek ez zuen idatziz inolako adierazpenik eman, 1934ean berrero nabarmenki, hasitako bideari jarraitzen zitzaioela erakusten zuen artikulua argitaratu zuen arte. Bai, erabakia zuen literaturan bide herrikoi eta ulerterrazagoetara jotzea, eta hala adierazi zuen *Yakintza* aldizkarian argitaratu zuen «Eusko olertikera berezia» zeritzan artikuluan. Bertan koplak zaharretako teknika berezietatik dihardu, haiek dituzten baliapide literarioak eta estilizazio-teknikak aditzera eman nahirik; «olerki errikoiak gartzera dator».

Aitzolen idaztien eremuetatik ateraz, aldiz, 1933 urteko Olerteriketan «aritz abarra» eraman zuen olerkiaren tankera herrikoari begiratzen badiogu, aldaketaren beste zantzu konkretu-askia nabarmenduko dugu.

AITZOLEN HIRUGARREN URRATSA: DEZEPZIOA

Aitzolen proiektuaren bilakabideak izan zituen bi lehen faseen gorabeherak aipatu ditugu aurrenik; hirugarrena izan zen guztietan gogorrena harentzat.

Berak hainbeste kemenez erakutsitako proiektuaren alderdi argalak nabarmentzen hasi ziren, zertan jausiko zen euskaldunen kultur mugimendua, zergatik.

1935 urtearen hasieran argitaratu zuen Aitzolek «Balance literario 1934» zeritzan artikulua. Idazti horretan, bere lehen garaietara jarrera baikor eta ekintzale haiek ezkutatu direla ikus genezake: erori dira bere proiektuaren operatibitatean zuen fedearen zutabeak, egoera beltz baten aurrean dagoenaren irudipenak blaitzen ditu haren esaldi guztiak. Ez du emaitza ederrik ikusten Aitzolek 1934 urteko balantze literarioan. Aitortzen du urte horretako literatur lanik baliotsuenak Lizardiren *Umezurtz olerkiak*, *Itz Lauz* eta Orixeren *Barne-muinetan* direla, baina:

«Sin embargo, estos tres tomos, a pesar de su indiscutible valor literario no llegarán, casi podemos asegurarlo a robustecer y vigorizar el euskera. Fáltales lo esencial: la frescura, la naturalidad de un

euskera fluido, fácil, inteligible. Están escritos con fórmulas lingüísticas la mayor parte de las poesías y artículos, y se nota en ellos la ausencia del sentimiento de lo sencillo y natural, propio de un idioma vivo y palpitante.

Hay en estas poesías y escritos un gran caudal de estudio, de trabajo, de decisión y hasta de ingenio; pero en ellos domina el artificio sobre el arte, lo rebuscado sobre lo natural, lo retorcido sobre lo espontáneo. Y es hora ya de que todos lo advirtamos»³. (*Euzkadi*, 1935, Ilbeltzak 5).

Aitzolek hitz hauen bidez agertzen duenez, berrizaleen joera linguistikoa eta literarioak erasotzeko premia sumatzen zuen, eta bereziki Lizardi eta Orixerena. Lizardiren *Umezurtz olerkiak* bildumaren sarreran koplak zaharren itxuran idatzitako olerki gutxi batzu gorapatzen entzun dezakegu, eta ez gehiago sekula.

Gogorregiak irudituko zaizkio Aitzolen goiko hitz horiek *Euskaltzaleak* sortu zeneko asmo on eta jarrera adoretzu haien oihartzuna gordetzen duenari. Eta halere, Aitzolen bidea lantxo honetan jarraitu duenari, dagoeneko ez zaio ulerkaitza egingo Aitzolen desgainoia eta dezepzioa.

Aitzolengan balorapen literarioa aldatu zela pentsatzea, gauzak xinplegi ikustea litzateke; besterik da haren samina sortarazten duena eta, berriro ere haren proiektuaren iturrietara jo beharko dugu, ulertu nahi badugu.

Errealitate praktikoa gogoratu hurbilpenak aldarazi zuen Aitzolen gogoia. 1934 urtearen balantzea egin du, lan literarioak nolakoak diren, ugariak, arrakastatsuak... eta lurjota dago. Berak hainbat artikulutan zehar adierazitako proiektu kultural haren errealizazioerik ez du inon ikusten. Gogora dezagun Aitzolen proiektu kulturean literaturak zuen leku ohorezkoaren arrazoia: mugimendu soziala, kulturala eta politikoa eragitea, irakurleak euskaragana erakartzea, haren maila kulturala lantzea, gure hizkuntza mintzaira kultural egokia izan zitekeela demostratzea. Eta, noski, ez zaio iruditzen elite batentzat geratu beharko duten Lizardi eta Orixeren idazlanek horrelako mugimendu baten eragile izan daitezkeenik.

Ausarta litzateke gaurko ikuspegitik Aitzolen arrazoiaren lehen-tasun hori juzkatzea; eta, bestalde, ezin dezakegu erabat txarretsi 1933az gero herri-olergintzari eman zion garrantzia, kaltegarri

izan zela esanez: gutxitan iritsitako gailurrak ezagutu bait zituen euskal literaturak eta Aitzolek igarritako herri-olerkigintza horren bideetan Lauaxetaren bigarren liburua, *Arrats beran* (1935), aurki bait dezakegu.

Hona hemen azkenik, Aitzolen «balantze» hari erantzunez, Gurbindo goitizena erabiltzen zuen idazle batek argitara zuen «Los males del idioma» deritzan artikulua; bertan agertuko da, ispilu batean bezala, Aitzolen saminaren barrenean gordetzen den frakasoaren arrazoietako bat:

«Si pues ni por falta de interés (calidad) por parte de los autores, ni por los costos de su adquisición cabe explicar el retraimiento de los lectores euskaldunes, ¿cómo no ha de preocupar el tan corto número de lectores de las obras euskéricas?»

Es acaso que no interesan los temas de estos libros, por ejemplo?

No sostendremos que el contenido de algunos de ellos, por ejemplo «Itz Lauz» y «Umezurtz olerkiak» sean de franco sabor popular, pero de todas formas entre los estudiosos renacentistas ¿no cabe arbitrar arriba de 300 compradores? Esto revelaría un índice cultural pobrísimo. ¿Dónde están esas élites vascas que sacamos a relucir cuando se trae a mientes la potencialidad de nuestro pueblo?»⁴.

L.O.

¹ SARASOLA, I.: «Hitzaurrea», in: ARESTI, G.: *Obra guztiak*, Kriselu, Donostia 1976.

² *El Día*, 1933-2-12.

³ *Euzkadi*, 1935-1-6.

⁴ *El Día*, 1935-1-10.

EL PROYECTO CULTURAL DE AITZOL
LE PROJET CULTUREL D'AITZOL

Aitzol fue el impulsor de la generación que en la década 1926-1936 promovió diversos ámbitos de la cultura vasca. El proyecto cultural de Aitzol, que hundió sus

raíces en Sabino Arana, era global. Sólo con la llegada de la República pudo exponerlo y difundirlo. En numerosos artículos políticos, culturales y literarios analizaba la situación de diversas minorías nacionales de Europa, especialmente Irlanda, Finlandia, Provenza y Catalunya.

Aitzol había observado una constante: el renacimiento lingüístico, político y cultural estaba siempre precedido por el de la literatura, la poesía en particular. En este contexto se explica el atractivo que ejerce entre los escritores la idea de crear un «poema nacional». Lizardi fue la excepción: se manifestó escéptico sobre la posibilidad de crear tal poema, así como sobre su eficacia para salvar el euskara.

Euskaltzaleak

Aitzol concretó su proyecto en la fundación de **Euskaltzaleak** en 1927. En los tres primeros años organizó campañas pro-euskara; luego creó concursos de poesía para animar a los escritores y descubrir jóvenes valores: Lauaxeta y Lizardi fueron los vencedores respectivos de los dos primeros años. El lenguaje literario y el estilo de estos nuevos valores levantó vivas polémicas. Aitzol decidió impulsar y premiar un género de poesía «popular», más asequible.

El tercer paso de Aitzol: la decepción

En 1935 Aitzol ha perdido su fe en la efectividad de su proyecto cultural. Critica las tendencias lingüísticas de Lizardi y Orixe. A su juicio les falta el frescor, la naturalidad de un euskara fluido, fácil, inteligible. No ve que se vayan realizando los objetivos que se había propuesto con la potenciación de la literatura: atraer cultivadores del euskara, demostrar que el euskara puede ser una lengua de cultura, influir en el movimiento cultural y político. El lenguaje de Lizardi y Orixe no puede ser el de semejante movimiento. Pero no todos fueron tan pesimistas como Aitzol.

Aitzol a été le promoteur de la génération qui dans la décennie (1926-1936) encouragea l'essor de la culture basque. Le projet culturel d'Aitzol, qui puise ses sources dans la pensée de Sabino Arana, était global. Ce n'est qu'avec l'avènement de la République qu'il put l'exposer et la diffuser. Dans de nombreux articles politiques, culturels et littéraires il analysait la situation de différentes minorités nationales en Europe, spécialement l'Irlande, la Finlande, la Provence et la Catalogne.

Aitzol avait observé un phénomène constant: la renaissance linguistique, politique et culturelle était toujours précédé par celle de la littérature en général et de la poésie en particulier. C'est dans ce contexte que l'on comprend l'attrait qu'exerce chez les écrivains l'idée de créer un «poème national», à l'exception de Lizardi qui se manifesta sceptique sur la possibilité de créer un tel poème et sur l'efficacité de celui-ci pour sauver l'euskara.

Euskaltzaleak

Aitzol concrétisa son projet en fondant la revue **Euskaltzaleak** en 1927. Durant les trois premières années il organisa des campagnes en faveur de l'euskara; en-

suite il créa des concours de poésie pour encourager les écrivains et découvrir des jeunes promesses: Lauaxeta et Lizardi furent les lauréats respectifs des deux premières années. Le langage littéraire et le style de ces nouvelles valeurs soulevèrent de vives polémiques. Aitzol décida d'encourager et de récompenser un genre de poésie «populaire», plus accessible.

La troisième étape d'Aitzol: la déception

En 1935 Aitzol a déjà perdu la foi en la viabilité de son projet culturel. Il critique les tendances linguistiques de Lizardi et d'Orixe. A son avis, il leur manque la fraîcheur, la simplicité d'un euskara fluide, facile, intelligible. Il ne constate pas la réalisation des objectifs qu'il s'était fixés pour l'encouragement de la littérature, à savoir, attirer les «cultivateurs» de l'euskara, prouver que l'euskara peut être une langue de culture, exercer une influence dans le mouvement culturel et politique. La langue de Lizardi et d'Orixe ne peut pas être celle d'un tel mouvement. Mais tous ne furent pas aussi pessimistes qu'Aitzol.

ORIXE eta ARANA GOIRIren ERAGINA LIZARDIrengan

Anjel Zelaieta

Lizardik adiskide kutun zuen Orixek, 1922. urterako. Urte honetan, Donapaleura bidaia bat egiten dute, eta Lizardik artikulu polit eta umoretsu baten berbatu zuen «Yoan-Etorria», eta «Uitzi» (Orixek estaltzen duen gotizena) «adiskide miña», «zintzo»... dela dio. Gerotxoago, 1928an, Donostian hitzaldi bat ematen du Orixek, eta Lizardi entzule du. Markiegik ere idatzi izan zuen adiskidetasun horretaz, eta ezagutu aurretik ere «maisuztat zeukatela, adierazi zuen.

Orixek berak ere azaldu izan zuen, 1961ean, Tolosan, inoiz zuzenketaren batzuk egin izan zizkiola. Lizardiren poemak Verdes etxean irarten direnean, Orixek begiratzen ditu poemon zuzen-okerrak. Baina «poesi gaiean bat ere» ez ziola ukitu esaten digu.

Ibartzabalek ordea, garaiko poesi-komentarista berau, eta Zaitegik ere, «Olerki-izkera Orixek eta apaindu zuten» diote. Zehazkiago hitz eginik, Lizardik berak ere, zera esan-go digu: «Orixek eman baitzizkigun beñola ederrak...

Izneurtuz idaztea txaldankeri agiria dela, bertsoak beti dirala txar, beti mintzo aizun».

Zertan izan ote zuen maisutza Orixek Lizardirengan? Gure ustez, gutxienez lau gaitan Lizardik jaso zezakeen zerbait haren-gandik:

1. AZENTUA

Berbaldi luze eta mardulak emanak zituen Orixek azentuari buruz: «Acento Vasco», kasurako, *RIEV*-en 1918an agertu zena, eta «Eusko Olerki Neufritzaz», *Lenengo Euskalegunetarako itzaldiak* (1921, Bilbo) liburuan agertu zena. (Irakastaldi guzti hauen berririk badakar Altunak ere bere tesi doktoralesan). Ez da oso argi ikusiko zein den, azken batez, Orixeren ustea guzti honetan, baina Lizardik zera garbi atera zuela dirudi: «Las estrofas que usamos se han debido introducir por el canto... En el verso rítmico y en la rima son esenciales los acentos intensivos: como nosotros no los tenemos, nuestra métrica no debe estribar en el acento intensivo. Los versos que usamos hoy día sólo valen (...) para cantados, no para declamados.» Orixek herri-moldeetatik askatu egin nahi duela dirudi euskal poesigintza: «... gure euskaljaietako neurtizlariiek egiten dutena...: ori ederki egiña dago; kantatzeko egin bitza neurtitzak nai dunak, alare euskera zapildugabe. Irakurtzeko ordea nik ez dut besterik asmatu, ta ez dut betarik galduko ortan, da enuke nai bestek galtzee ere.»

Hau guztiau Lizardik arretaz irakurria zuelakoan gaude. Baina kontu handiz begiratu beharko litzateke zein neurritan izan zuen eraginik.

2. ERRIMA

Ulerterrazagoa da honetan Orixeren irakatsia: «itzen berdiñ amaitzee, erderaz *rima* diotena, guretako bear al dugu? Beste izkuntza batzutan ere ez dute askok uste itzen atzenkide edo guenkide izate ori edergaí denik: gu gaizki oiturik gaude, eta ez dugu éfaz osotara kenduko oitura au; baño ederik aski baluke gure mintzoak origabe ere: askotan bada estutu egiten du orék ere; ...

Goraberako igikera [Orixerentzat «erritmoa» da] oni yañai bear diogu... neurtiztik egiñen ezpadugu ere.»

Irakatsi honen oihartzunik badago Lizardiren izkribuetan: «Jakiña, neurtiztak eztu berezko, ez bearrezko oskidetasun ori. Gabe ere egin izan dira ta baditezke egin neurtitz eder askoak; agian, ederragoak. Baña, berez bezala, esaldia biurritu gaberik, olerkariaren antzetsuz datorrenean, belarriak, egia esan, eztu ain gaizki artzen».

Errimen, edo «puntuen» (?) kontu honetan, bestalde, bertsolariak gaudituz egin nahi zirela esan dezakegu, Zaitetik dioen legez: «Gañera itz-kopuru urri ta beartsuak itzen berdin-amaitze urriak ekarri zitun; itz-erorkera geientsuenak errez eta betikoak ziran. (...) Asmo berrien geznari ziran Aitzol'en gizaldiko euskal-olerkariak (...) Beraz, itz-neurtizkera eraberritu bear zuten.» Honetarako, Azkueren hiztegian, «itz yatorrak bildu, ta, erabillaren erabilliz garbitu, soildu ta egutera ekarri zituten. Orrela, ordurateko olerkietan erabiltzen zan itz-eli urritxoa ugaldu zan.

Itzak ugaldu ondoren, itz-erorkera ere asko ugaldu ta aberastu zuten (...) itz erorkerari garrantzi aundia eman zioten eta itz-erorkera zail, bakan eta oitu-ezen irrika ari ziran.» (Honen frogagarri bezala, Lizardiren bertso-sail bi ematen ditu).

3. AGLUTINAZIOA

Begira zer dioen Orixek «aglutinazioaz»: «Otro punto de nuestra gramática que se puede explicar por la prosodia, es la aglutinación. Es tendencia general en el vasco la de aglutinar elementos que en la forma flexional o equivalente a la flexional son perfectamente vascos. Pongamos, por ejemplo, la palabra *basajaun* (...). Esta palabra es resultante de *basoko jaun* ó *basoaren jaun* perdido el sufijo correspondiente al genitivo *ren* ó *ko*». *Prosodia* horretaz hitz egingo du berriz ere. Eta «aglutinazio» hori hitz (?) biren elkarteaz gora ere badoa: «Lo de aglutinar varias oraciones y frases seguidas que llaman aglutinación polisintética es también conocido entre nosotros. ¿Qué tendrá que ver la prosodia en este fenómeno? Según lo he experimentado al componer, aunque á veces sea por tendencia á sintetizar el pensamiento, es que el oído tiende á

apresurar la melodía en aquellos casos sobre todo en que halla trabas, ó quiere aunque no las encuentre, adelantarse á cerrar el período por lo largo que resultaría quizá éste con las formas ordinarias (...) siempre tendremos aglutinación además de la abundante flexión, principalmente verbal de que gozamos» (...). Eta gehitzen du aurreratxoago: «la flexión es perfectible en sus formas» (...). «En el valle de Ulzama, si la memoria no me es infiel, he oído á algunos *tor da* en vez de *etorri da*; *kar dit* por *ekarri dit* (...). No es que *ekarri* venga de *kar*, ni *etorri* de *tor* (...) sino viceversa. La explicación está en la misma prosodia degenerada de los que hablan de ese modo. Transforman el acento tónico en intensivo, de lo cual se sigue la elipsis y la agrupación de más consonantes alrededor de él».

Beste behin ere ekiten dio Orixek «aglutinazioaren» arazo honi. Euskararengan ikusten duen lege hau azaltzeko, exenplu argi bat jartzen du: «Camoesek esan zuun Adanastofez: “a boca negra, os dentes amarelhos”». Aboa beltz eta ortzak [*sic*] ori. Areak itz ayetan esana, ¿ez al dugu bitan bakañik obeki esanen? aobelz, ortzori?». Aglutinazioak, exenpluak ezin argiago adierazten duenez, «luzeagotik», laburragora egin du. Adibide gehiago ere jartzen du, baina nahikoa dateke.

Garaiko komentaristak ere kargutu ziren legez, Lizardik biziki maite izango du joera «laburtzaile» hori. Aitzolek, Orixe bera aipatuz, «Pinceladas felicísimas son por ejemplo —idatzi zuen—, “kabigai-lor”, “carga de materiales para construir el nido”, “itxaron-kabi”, “nido de esperanza”... y numerosas más, que pudieran citarse, mientras otras son sensaciones que no son para percibidas por la visión sino por otras potencias. Así v.g. “urundu bearaka”, “impulso hacia la lejanía”; “bidazti-nai”, (sombra) “acogedora del caminante”». Agirrek ere uste ber-berak azaldu zituen: «Irudi asko darabilzki. Zuuñ, ordea. Tximistaren gisan argizatzen dizkigute begiak. Egunsentiko lenengo argi-txiñistak bezala. Laburki, ukigarri. “Suzko itxaso” deitzen dio mudari. “Ufe-zauri” eguzkiari (...). Laburtu ta giartu-beařak, ořatik, iluntasunera darama maiz».

Aglutinazio edo, Agirrerren hitzez esateko, «giartu-beařak», eraman zuen, seguraski zenbait -a mugatzaile kentzera, bokal epentetikoak baztertzera, etabar.

Aglutinazioaren lege hau, euskararen joera jator eta oinarrizkotzat ematen zen garai hartan. Aitzolek «peculiar genio sintético y expresivo», zioen. Guztiz argigarri egiten zaigu, honetaz, Ibar jaunak idatzia: «No faltarán quienes imaginen que «Orixe» abusa aquí arbitrariamente de la elipsis. Aconsejamos a los tales que se tomen el trabajo y el placer de hojear el curioso poema histórico- anecdótico de Hiribarren, publicado en Bayona en 1853 bajo el mismo título «*Euskaldunak*». Salta a los ojos la semejanza de las dos obras en lo que atañe al laconismo de la frase, y concretamente a la *omisión del verbo y del artículo*». Eta Orixek ez zuela Hiribarren—en lana ezagutzen azaldu ondoren, bukatzen du: «¿Será muy aventurado atribuir la coincidencia de ambos poetas a la *común posesión del mismo genio estético y euskaldún?*» (Azkuek ere, hitz—konposaketaren arima, elipsia zela azalduz hainbat paia idatzi zituena).

Lizardik, bada, Orixerengandik, eta garaiko girotik, jaso zuen «aglutinazioaren» legea. Baina Lizardirentzat badagoke beste arrazoï bat ere. Aurreko horrekin doa, baina estetikoagoa (?) da, zelanbait esateko. Garai honetan indar bizia duen *poesía pura* delako hori eta Lizardik hainbeste maite duen «konzisismo» delakoa.

4. EPIKA

Mintzatuak gara, jadanik ere, Lizardi eta Natura delako gaiatz. Oraingoan, baina, Lizardiren iturriak begiratzen ari garelarik, jakin nahi dugu, ahal den neurrian, noraino agertzen den Natura Lizardiren poemagintzan maite zuelako, eta noraino, ostera, ager daitekeen, garai hartako gai erabilgarria zelako. Orixek dioen legez, Lizardi «mendirako (...) griñatua» zen. Eta horregatik Natura «pintatu»? Ez al dugu *post hoc, ergo propter hoc* ezarriko hemen ere?

Orixek, 1921ean, planteiatzen zuen: «Gure oiturak ez al diren gure ugari edera? Eri bakoitzak badiñu bereek eta bai guk ere geroak; añaena izkuntza da, ta egokiena alare; baño izkuntza berbera duten bi erik ere ¿ez al dute edergai berezirik beren oituretan? Bai guk ere (...). Segidan, eta exenplu bezala, «indarketa» aipatzen du; era berean, «aíaunketa», «aizkora»... Eta hori berori jorratu ere

egin zuen, batipat, Orixek. Eta, gerotxoago, galdetzen du: «¿Ez ote da gutarteen baten bat egiñalak egiten asiko? Baliñteke. Nion bezala bada, eñi orok eta izkuntza orok badu bere aroa ta giroa. Ederki zion Hegelek: eñi batek bere izan-ustee guda-eresin edo *poesi epican* agertzen du aúfenekoz: beragatik basa-bizitzetik aterata bere buruuren bizitza erakutsi-gai deneen, orduuntxe dator guda-eresii. (...) Ate-aldera yo beaugu eresiin, asteko beñipein; ez geron baitan sartu, ez bañeneratu, ez zorabildu: gure indarlariik bezala gure ereslariik ere sendo izan bear dute. (...) Nere aburuu au da. *Asieratik asi bear dela*, ta emendik asi obe dugula». Noraino ez ote zuen asmo hau gidari Lizardik, Orixek hain «adiskide» eta «irakasle» zuelarik?

Badio Orixek aurreratxoago: «guk eñoma-ípui edo beñi-ípui izendatu genezazkenak. ¿Olakorik ez al zaigu sori? Ez diot ezetz, baño *aúfenario dire egiñek eta egiñek*, ipuiek baño» (Azpimarka, gurea da). Orixerentzat aurrengoetariko legea da azken hori: «Gauzai ondo begiratu, beñiz begiratu, safi begiratu, ta ola asma-tzen dira egiak. (...) Udalena, uda, udazkena ta negua, eguna ta gaua, guziok ikusi ditugu, baña zenbaitek, zer egiten dute oietaz olerki bat egin bear ta? (...) Nondik artu du olerkari onak bere eguna, gaua, udalena, udazkena? — Gauzetatik beretatik. (...) Gauzekin berakin artu-ñana bear da, ondo ezagutzeko».

Zelanbait, Lizardik Orixeren eskari batzuei erantzuten ziela-koan gaude gu. Ez da, edo ez da soil-soilik, «enamorado de Dios y de la naturaleza», *Euzkerea-k*, Lizardi joan zitzaigunean, idatzi zuen bezala. Edonola ere, komentarietentzat garbi dagoena, «Lizardi idolatra a la naturaleza» da. Edo, «ha triunfado en la descripción del paisaje vasco, cuya belleza le ha cautivado», Villasantek dioenez.

Hala ere, berriro galdetu nahi dugu, ea ez ote zegoen «maisua-ren irakatsirik». Ea, eta zein neurritan, ez ote zuen bide hori jorratu garaiko prezeptibak eskatzen ziolako. Kasualitate hutsa ote da, Lizardiren aurrekotxoak ere, Natura-zale izatea? Lizardiren aurrekotxoak diogunean, Novezentistak esan nahi dugu. «Es interesante —dio Díaz Plaja-k— caracterizar el período novecentista como el del ascenso del aprendizaje del mirar. El contorno de las cosas físicas está hecho para que lo saboreemos golosamente. (...) De

acuerdo con el aprendizaje impuesto por Cèzanne, lo que aporta de fundamental el período que estamos estudiando, es un nuevo aprendizaje del arte de mirar. (...) La manera nueva de ver el mundo, de aproximarse a las cosas, tiene un origen en la historia del arte: se llama Paul Cèzanne. (...) Se diría, pues, que con este aprendizaje, con este «nuevo ver» las cosas, a la Humanidad se le ha despertado una formidable hambre de mirar; una fervorosa voluntad de ver el mundo, con la gozosa posesión de su superficie, de su múltiple apariencia que alcanza, precisamente, en los “años veinte” su “climax”».

Dena den, esan dezagun, bukatzeko, Lizardik jasotzen duen Natura, bere begiez ikusia dela. «Biotz–begietan zatzaidate sortu», dio sarrera–gisa. Edo «Urte–giroak ene begian». Orixek deigarriro zehaztu eta garbi utzi nahi du Lizardik ezagutu eta jaso Natura, *erreal*a dela: «Bestela, zuzen ateraten giñan mendira, etxe–atzetik tren–bidea utzita. Txelaiaren eskubitara, azkenean, arkaitz bakarti bat Rio de Janeiro’ko azukre–opillaren antzekoa, bere txikian. An asten zan aldapa zearra, aski pikoa, ezkerretara eta biurgune bat eginda, eskubitara beste ainbestetsu. Goraxeago baserri bat: Arane, ondoan iturri batekin. Iturri ari nik urde–iturri izena ipiñi nion, ura etenka, tarteka bialtzen baitzun. Oraindik goraxeago beste baserri bat: Bereterbide. An gurdibide zelaiagoa utzi Mutitegi aldera, ta aldapa gora asten giñan bidetxurretik. Aldapa bere basotxoarekin, eta aldapa gaiñean, bereala, zuzen, “gurdibide bakan–ibill” ua, untzez eta larrostoz apaindua. “Gurdibide bakan–ibill ertzetan, masusta (beste nunbait untza) dago loretan”. Bertantxe, ezkerretara, bide ertzean, pago–ondo bat erakutsi zidan, osto guziak erorita oraindik bi orri igar jaiki nai ezik zeuzkanak: “nola oi baituten neskazar ezin–etsiak”. Aurreraxeago, ezkerretara, “sagasti zuria, inguma atsedentokia iduri, elurte arian geldia”. Oraindik aurreraxeago soilgune bat, gu biok eseritzen giñaneko tokia. Ezkerretara ua ere, ta Urkizu aldera begira. Tartean arru aundi bat ura baso ederrarekin: udazkenean “tarteka gorri garoa”. Erakutsiko nizueke nun agertu zitzaion Itzala, “basoaren ume yaukala”. Lau urte–giro oietan ez da batere xeetasunik nik ikusi ez dudarik».

Hitz batez esateko, Lizardik «egiazko gertaera»k baino ez ditu

ematen. «Ez dago esan bearrik ere; olako bizitasunik ez dute ematen bestek idatzitako liburuen argitasunak».

(Edonola ere, Orixek natura «begiratu» egiten duen bezala, Lizardik naturarengana bere barne-arazoak «bulkatu» egiten dituela esango genuke: liriko da).

* * *

Lizardiren iturriak arakaeran, ezin da ahaztu, Aranak izan zezakeen eragina. Badakigu Aranak egin zuela abertzale eta, esker onez, poema bat eskaini ziola: «Gure mintzo», *Biotz-Begietan* bildumaren azkena, «Arana-Goiri'ren oroiz ta eskañez» opariaz. Hiru maisutza izan zituen Aranak, Leizaolaren ustez: poesizaletasuna, garbizaletasuna eta bertso libreak. Alderdi honetatik, hau da, «desde el punto de vista del euskera, se puede y se debe hablar de antes y después de Sabino» esaten du Mitxelena. Baina Sabinoren eragina indartsuagoa da. Leizaolarentzat, «las cualidades de la nueva poesía» Sabinorengan oinarritzen dira. Aipatu nahi diren berezitasunak, metrika eta poetikari buruzkoak dira.

Arazo hau begiratzean, benetan interesgarria da *Euzkerea* aldizkariaren oharra: «Con el propósito de unificar las reglas métricas y atendiendo a la exactitud y conveniencia de las preconizadas por nuestro Maestro Arana-Goiri'ta' Sabin en su magnífica obra titulada "Lecciones de Ortografía del Euzkera Bizkaino", la entidad organizadora del acto recomienda a los concursantes se atengan en un todo a ellas». Eta aurreratxoago: «Nos complace sobremanera el acuerdo, por lo que tiene de acertado y por lo que tiene de reparador». Dei hau, «Euskaltzaleak»ek antolaturiko poesi sariketa iragartzeko egiten zen, eta poesi sariketa hau, Mourlane Mitxelena, Lauaxeta eta Orixe jaunek epaitua, Lizardik irabazi zuen, «Baso Itzal» poemarekin. Azalarekiko Sabinoren maisutza hau, Sarasolak estudiatu berria du.

Aranaren aipaturiko lanaren seigarren atala, «La fonética en el metro del verso» da. Gutxienez ondoko legeok begi onez ikusi zituela Lizardik, dirudi: sinalefak eta lizentziak.

Metrika kontuetan jaramon gehiago egin ziolakoan gaude, garbizale joeran baino. Poema bat, behinik behin, «Bizia lo» hain zuzen ere, Arana-Goiriren «Askatasun-eguzkija» delakoaren neurri berberean egin ere, egin zuen.

A.Z.

Bibliografia

AGIRRE, J.M. («LIZARDI»): *Biotz-Begietan*, Bilbo, 1932. *Itz-lauz*, Donostia, 1934.

AGIRRE, T.: «Gure olerkariak», in: *Yakintza*, 1933.

ALTUNA, P.: *Versificación de Dechepare*, Bilbo, 1979.

ARANA GOIRI, S.: «La fonética en el metro del verso», in: *Obras Completas*, Buenos Aires, 1965.

ARIZTIMUÑO, J. de: «El poeta J. M. Agirre», in: *Yakintza*, 1930.

ARTETXE, J.: «Olerkari neurkoia», in: *Egan* 1953, 1-4.

DIAZ PLAJA, G.: *Estructura y sentido del Novecentismo español*, Madrid, 1975.

ZAITEGI, J. (ETXETXO): «Aitzol'en Gizaldia», in: *Euzko-Gogoa*, 1950, I.

Euzkerea (Bilbon ateratzen zen aldizkaria): *Ikus* 1933, III, 307.ean.

GOIKOETXEA, J. I. («GAZTELU»): «Orixe-ren bizi-berri laburra», in: ORIXE: *Euskaldunak poema eta Olerki guziak*, 1972.

IBAR: *Genio y lengua*, Tolosa, 1935.

IBARTZABAL: «Lizardi'tar Xabier», in: *Euzko-Gogoa*, 1950, I.

LEIZAOLA, J. M.: *Estudios sobre poesía vasca*, Buenos Aires, 1951.

ORMAETXEA, N. («ORIXE»): «Lizardi», in: *Oleri*. «Lizardi'ren azken-olerkiak», in: *Yakintza* 1933, XI-XII. «Acento Vasco», in: *RIEV* 1918, IX. *Le-nengo euskalegunetako itzaldiak*, Bilbo, 1921.

SARASOLA, I.: «Lizardiren poemagintzako alde formalen estudio baterako», in: *Homenaje a Julio Caro Baroja*, Madrid, 1978.

VILLASANTE, L.: «Lizardi en la Literatura», in: *Fontes Linguae Vasconum*.

LA INFLUENCIA DE ORIXE Y ARANA-GOIRI EN LIZARDI
L'INFLUENCE D'ORIXE ET D'ARANA-GOIRI SUR LIZARDI

Existen numerosos testimonios de la amistad entre Orixé y Lizardi. Al parecer, Orixé incluso introdujo algunas correcciones en los poemas de Lizardi, que reconocía en él un maestro. Esta influencia se puede concretar en cuatro temas.

1. **El acento.** Orixé se ocupó del acento vasco en prosa y en verso. En Lizardi, no sabemos hasta qué punto influenciado por su amigo, hallamos afirmaciones similares a las de Orixé: el euskara no posee acento intensivo; por ello «nuestra métrica no debe estribar en el acento intensivo».

2. **La rima.** Orixé y Lizardi coinciden en que la rima no es algo que necesariamente deba ir ligada al verso. Desde otro punto de vista, como atestigua Zaitegi, se intentó enriquecer y superar la rima de los bersolaris.

3. **La aglutinación.** Orixé trató el fenómeno de la aglutinación en el euskara en diversas ocasiones. Según él, es tendencia general en el vasco aglutinar no sólo palabras, sino también varias oraciones y frases. Otros autores contemporáneos o anteriores (Hiribarren, Aitzol, etc.) y con ellos Lizardi, coinciden en señalar este «genio sintético» del euskara. Lizardi que busca afanosamente este «concisismo» de la frase hace una valoración estética de la aglutinación en la poesía.

4. **La épica.** En sus reflexiones sobre la poesía, Orixé invita a tratar como tema poético, las costumbres, los juegos, etc. variados de nuestros pueblos; invita a mirar las cosas, la naturaleza con detención. Lizardi, para todos los críticos ha sido un enamorado de la naturaleza; describe maravillosamente la belleza del paisaje vasco. Pero este amor a la naturaleza no es exclusivo de Lizardi. El tema de la naturaleza emerge con fuerza, precisamente, entre los novecentistas. Lizardi se vió probablemente influenciado por la corriente en boga. Por otra parte, la naturaleza que describe Lizardi, es la que ha mirado y contemplado con sus propios ojos, la naturaleza real. Pero si Orixé «mira» la naturaleza, Lizardi vuelca en ella todo su mundo interior. Lizardi es lírico.

No se ha de olvidar tampoco la influencia de Arana-Goiri en Lizardi. La influencia de Sabino Arana en el euskara va más allá de la ortografía o de la pureza del lenguaje, hasta la poesía (métrica, etc.). Por ejemplo se recomendaban vivamente sus normas en las bases del concurso literario ganado precisamente por Lizardi con el poema «Baso itzal». Parece que Lizardi le siguió más en cuestiones de métrica (al menos en la normativa sobre «sinalefas» y licencias) que en sus preocupaciones puristas.

Nombreux sont les témoignages prouvant l'amitié entre Orixé et Lizardi. Il paraît même que le premier apporta quelques corrections aux poèmes de Lizardi, celui-ci reconnaissant en Orixé un maître. Cette influence apparaît concrètement dans les quatre points suivants.

1. **L'accent.** Orixé étudia l'accent basque dans la prose et dans le vers. Chez Lizardi, nous ne savons pas jusqu'à quel point influencé par son ami, nous trouvons

des affirmations semblables à celles d'Orixe: l'euskara ne possède pas d'accent intensif; c'est pourquoi «notre métrique ne doit pas s'appuyer sur l'accent intensif».

2. **La rime.** Orixe et Lizardi sont d'accord sur le fait que la rime ne doit pas nécessairement être liée au vers. D'un autre point de vue, comme le montre Zaitegi, on essaya d'enrichir et d'améliorer la rime des bertularis.

3. **L'agglutination.** Orixe traite à plusieurs reprises le phénomène de l'agglutination en euskara. D'après lui, l'euskara tend d'une façon générale à agglutiner non seulement des mots mais aussi des propositions et des phrases. D'autres auteurs contemporains ou antérieurs (Hiribarren, Aitzol etc.) et parmi eux Lizardi signalent tous ce «génie synthétique» de l'euskara. Lizardi qui recherche ardemment cette concision de la phrase fait une appréciation esthétique de l'agglutination dans la poésie.

4. **La poésie épique.** Dans ses réflexions sur la poésie, Orixe nous invite à traiter comme thème poétique, les coutumes, les jeux... si variés de nos villages; il nous invite à jeter un regard attentif sur les choses, la nature. Lizardi, de son côté, a été pour tous les critiques un amoureux de la nature; ainsi, décrit-il merveilleusement la beauté du paysage basque. Mais cet amour de la nature n'est pas exclusif à Lizardi. Le thème de la nature émerge avec force, précisément, parmi les écrivains du début du siècle et Lizardi a probablement été influencé par ce courant en vogue. D'autre part, la nature décrite par Lizardi est celle qu'il a regardé et contemplé de ses propres yeux, la nature réelle. A la différence d'Orixe qui «regarde» la nature, Lizardi y déverse tout son monde intérieur. Lizardi est un lyrique.

Il ne faut pas non plus oublier l'influence d'Arana-Goiri sur Lizardi. L'influence de Sabino Arana dans l'euskara dépasse l'orthographe et la pureté de la langue et touche même la poésie (la métrique, etc.). Par exemple, ses normes étaient vivement recommandées dans les bases du concours littéraire gagné précisément par Lizardi avec le poème «Baso itzal». Il semble que Lizardi ait suivi d'avantage Arana-Goiri dans des questions de métrique (du moins dans les normes sur les synalèphes et les licences) que dans ses préoccupations puristes.

LIZARDIren POETIKAZ

Lourdes Otaegi

Lizardiren olerkigintzarekiko lehen kontaktoan irakurlegoak jasotzen duen inpresioa zailtasunarena eta gotorrarena da, harrian zintzelaturiko zeinu garbi bezain estrainuen irudipena.

Koldo Mitxelenak, 1956ko artikulu batetan, erreferentzia luzea egiten du olerkari honen forma poetikoaren zailtasunaz, «azal zaila» deritzolarik. Lizardiren zailtasun hori, Mitxelenaren ustez, lirikorik onenek bere baitan eraman ohi duten ezaugarritzat azaltzen zaigu:

«Horrela gertatzen ere da gehienbat lirikorik onenekin. Hutsaren inguruko azal atseginak, musika itsaskorrek bezala, go-gait eragiten digu luzaro gabe. Mamia behar baitu lirikak, eta mami joria, behin eta berriro irakurriko badugu»¹

Zalantzarik gabe, Lizardiren olerkigintzaren zailtasunaren iturrietako bat lirikan, poesi hizkuntzan kontzeptu bereziak eta konplexuak adierazi beharraren lehian sortzen da; funtzio poetikoa betetzea helburutzat duen mezu hark beti

erakarri beharko bait du irakurlearen arreta mezuaren expresamolde den hizkuntzarengana: nahiz xotila, nahiz bihurria, laburtzalea nahiz barroko oparoa.

Bestalde, metaforaren, metonimiaren, sinestesiaren eta, orokorki, hitzen esanahia aldatu egiten duten baliabide poetikoek zaildu ohi dute gehienik poesia; are gehiago, noski, hitzen arteko harreman semantikoa surrealismoak eta asoziazio libreak eraginkoa bada.

Lirikari berez dagokion moldatze berezi horrezaz gain, halere, edo beharbada, moldatze horren expresio areagotuan, badute Lizardiren olerkiek hizkuntz ezaugarri berezi zenbait, biziki eragiten dutenak haren olerkigintzaren formaren zailtasunean.

Horietako bat Lizardik hiztegian egin zuen hautaketa zaindua izan daiteke: poesiak behar zuen musikalitatearen eta kontzeptuen adierazgarri sujerente eta bitxituaren expresabide izango zena.

Ez dago zalantzarik Lizardiren hiztegiaren prestijioa ez zaiola huts-hutsik doinuaren sujerentzi kapazitateari egotzi behar; Lizardik, literarioki landuenik izan den euskalkira jo bait zuen eta egoki bereganatu lirikaren expresabidetzat.

Nahiz izen eta adjektiboetan, nahiz morfologi eta sintaxi egituretan nabarmendu ahal izango genuke haren hautaketaren finezia.

Badago, halere, Lizardiren olerki moldearen zailtasuna eragiten duen hirugarren faktore bat: trinkozaletasuna, haren dentsitate nahia hizkera lirikoan.

Gudaurreko Pizkunde mugimenduaren idazleen artean berezia, nabarmena gertatu zen Lizardi bere hizkuntzaren trinkozaletasun honengatik. Gaurregungo kritikoek ziurki jarriko lituzkete harremanetan Lizardiren eta Orixeren olerkiak ezaugarri honi dagozkiorarik; baina garai hartakoek ez zuten Orixe olerkizaletzat ezagutzen; alderantziz, «bertso gorroto» izena irabazia zuen poesia idatziari buruz zituen eritziengatik.

Lizardiren olerkigintzaren inpaktoa, beraz, 1929-36 epeko Jakakortajarena, Jautarkol, Emeterio Arrese etabarren olerkien ingurumarian explikatzen da, horien olerkigintza bertsolariek ohi duten prosaren egitura arruntetatik ez bait zebilen oso urruti. Li-

zardik, aldiz, olerkigintzak moldaera sintaktiko eta morfologiko bereziak eskatzen zituela uste izanik, haiengandik desbideratzea suposatzen zuen hautapena egin zuen.

Hala sumatu ere zuten garaiko irakurleek. Hona hemen Jautarkolek 1933an, *Biotz-Begietan* atera berria zelarik, argitara zuen artikuluaeren zati bat:

«No está hecho para los lectores que están acostumbrados a poesía de fácil comprensión. Es un salto gigantesco el que este libro representa en el momento actual.

Es de difícil comprensión por la excesiva concisión de la frase, consecuencia premeditada por el autor por encerrar el mayor número de ideas en la menor cantidad posible de palabras; a veces por el uso de giros del lenguaje y palabras continuamente los cuales son de rancio abolengo pero hoy en desuso en literatura; otras veces por la altura conceptual y poética, de ideas poéticas jamás expresadas hasta ahora en nuestro viejo idioma².

Beraz, Jauregik artikulua honetan adierazten digunez, Lizardiren olerkigintzak erabat berria eta orduko irakurlegoarentzat bereziki gaitza gertatu behar zuen; batez ere zenbait ezaugarrik trinkozaleengan kokatzen zuelarik, ahaztu gabe, ordea, haren olerkigintzan biltzen ziren ideia poetikoek zuten eite berezi eta goren mailakoek zailtasun hori gratuitoa ez zela demostratzen dutela. Meretziluke, beraz, trinkozaletasun horrek dituen manifestazio konkretuak zehazki begiratzeak eta, honela, orokorki olerkigintza forma landuak, bihurrituak eta laburtzaleak zein kontzeptu estetikori, zein helburu poetikori erantzuten dion aztertzeak.

1.- SINTAGMA INDETERMINATUAK

«Kanta ditzagun hango gau luze
hango illunabar su gorrizbete...»
(*Eusko bidaztiarena*).

1929-36 garaiko idazleetan bereziki bi dira sintaxi-baliakuntza honez erabilera berria egiten dutenak: Lizardi eta Orixe direla diosku Ibon Sarasolak «Lizardiren poemagintzaaren estudio baterako» deritzan idazlanean.

Han aditzera ematen digu, berez plural edo singularrak behar luketen sintagma mugagabeen uzten hasi zirela gudaurreko bi idazle hauek. Sarasolak Laffiteren laguntza izan zuela diosku idazlan horretan, Orixek norengandik ikasia ote zuen errekurtsu hau aztertzen ari zenean; Laffitek Hiribarrengandik hartua zuela baieztatu zion; eta *Eskualdunak* liburutik harturiko adibideek aditzera ematen dutenez, sarri erabili ohi zituzten lapurtarrek sintagma mugagabeak errima-beharkizunak ondo eta dotore betetzeko.

Patxi Altunak, aldiz, sintagma mugagabe hauen erabilera aitzinagora darama, Etxepare eta Ziburuko Etxeberrirengan aurki ditzahegun zenbait adibide eskaintzen dizkigularik. Berrikuntza bat dakarkigu, ordea, Sarasolaren planteamenduaren aldean: sintagma mugagabeen erabilera, errima-beharkizunak betetzeko lizentzia hutsa izan gabe, sintaxiaren egitura estilistiko erabat gramatikala ez ote den proposatzen du.

Baieztapen hori egitera dakarte Etxepare eta Etxeberrirengan aurkitu dituen adibideek; horietan, gehiegitan ez bada ere, sintagma mugagabeak bertso barruan ere ageri dira ohizko kontextuetatik at:

«miraculu banagui ere...» (XIII, 22), «bidegabek aritu nu, bide ez nuyen leqhtuc» (XIII, 5). Eta ondoriotzat galdera hau egiten du Altunak: «Ez ote zen, gero, herri hizkeran gaur baino gehiago zabalduko ohitura?».

Baiezta dirudi. Arrazoin du, halere, Sarasolak, 1930 urteetako olerkarien artean praktika hau zabaltzen hasi zen lehena Orixe izan zela esatean.

Altunak eta Sarasolak bideratu diguten gai honi jarraituz, beste zenbait zehaztasun eman nahi genituzke: hala nola Lizardiren *Biotz-Begietan* idazlanaren argitalpenaz geroztik garaiko beste zenbait idazlek sintagma mugagabeari aurkitu zioten ahalmen berezia.

Orixe eta Lizardiren bide honi jarraitu zioten Onaindia, Zaitegi eta bestek, *Yakintza* aldizkarian 1933-37 epean argitaraturiko zenbait olerkitan nabarmen dezakegunez.

Hedapen honeñ lekuko den artikulua bat ekarri nahi genuke ira-

kurlegoaren gogora momentu honetan: haren izenburua «Mugaitz edo artikuluz», eta lehen argitalpena 1934ekoa den arren, bigarrenaz bakarrik baliatu ahal izan gara, *Euzko Gogo*a Guatemalako aldizkarian 1952an berrargitara zenaz.

Guretzat garrantzi berezia duen artikulua honen eragilea «Artiz'tar Xabier» ezizena erabiltzen zuen idazlea izan zen; «Orixe'ri» izeneko artikulua bat argitaratu zuen Orixeri zuzendua eta sintagma mugagabea noiz eta nola erabil daitekeen galdetuz:

«Artikulu kentzeak euskerari gizona kendu eta gierri-uts eginda uzten du gure izkuntza.

Zuei [Orixe eta Lizardiri] ikasi-bide au artu nai nizuke bada, baña ez jakin zenbaterano utzi diteken artikulua ori, noiz bearreko degun, ta noiz baztertu al-dan».

Orixek mugagabearen erabilerari buruzko arautegi interesgarri batez erantzuten dio; gerora gramatikalariek euskal determinanteari buruz zehaztu dituzten hainbat erregelaren berri ematen dio: kopuru zehaztugabeetan, zenbait kasutan atributo funtzioa betetzen duten adjektibo sintagmatan, etabar.

Beste zenbait erabilera ere erakusten dizkio Orixek eta, hain zuzen ere, horiek interesatzen zaizkigu guri hemen, Lizardiren olerkigintzan aurki ditzakegun egiturak expilatzen dituztelako:

«4ena itz-erorkera edo rima dela bide, sortaldeko bertsolariet batez ere».

Hemen dugu, beraz, Sarasolak eta Altunak lehenik aipatzen zituzten erabilera hura, zehazki jaso. Eta hona hemen, baita, Lizardiren olerkietan hainbat errima zail eta berri posibilitatu zituzten arauaren erabilera:

«Orra noizpait ere beeraño el
ta leotza arki dut ondoaren sabel»
(*Gure mintzo*)

«Apaldiak elkarren ondoren
yalki ta uso zuri antzean, zetozen
itzuli itsaso urdiña zear,
mokoan, edergai, basoaren abar»
(*Gure mintzo*)

Baina poesiari arazo tekniko bat konpontzeko huts-hutsik erantzuten dioten kasu hauezaz gain, bertso barruan agertzen zaizkigun sintagma mugagabeak erraz aurki ditzakegu, nahiz eta gehienetan funtzio, helburu expresibo nabarietan agertzen diren hala nola bokatibo eta apostrofetan:

«Itzal! Baso'ren ume yaukal,
xaloagorik ezin âl:
beltxeran, begi bai azal»
(*Baso-Itzal*)

«Atsedenaren eliz, zutoiz bete,
ostoz-pillo ta izan izar izunak abe:
ta i bertan oianeko yaupaleme...»
(*Baso-Itzal*)

Orixek seigarren eta zazpigarren arauetan biltzen dituen mugagabearen erabilerak, aldiz, Lizardiren poesigintzaren ezaugarri nabarmen bilakatu dira; hona hemen zergatik:

«6. *Zerbait nortzen dugularik (cuando personificamos cosas): Eder eta On aide dira, la Belleza y la Bondad se relacionan entre sí...*»

Arau hau irakurri orduko datozkigu gogora Lizardiren naturari buruzko olerkietako pertsonifikazio sujerente haiek, ia-ia mitologia berri bat sortzerainoko haiek: Itzal, Baso, Udaberri, Negu, Uda, Euri, Eguzki...

Zazpigarren araua, honen bide berekoa dugu:

«7. *Lenengo arau ortan sar ere daiteke muga-kentze, guzitaratze edo delako «generalización».*

Ez du Orixek inolako adibiderik eskaintzen; baina, zalantza handiegirik gabe, Lizardiren olerkietan hain sarri aurkitzen ditugun sintagmak posibilitate hau erabiltzen dute:

«Sagasti solla lotan,
abar makur naaspil;
zelaiek, orbelpéan,
ametsetan Orril;
txori gaxoei aztu
gau latzaren urbil;
aizeñoa lillurak
otxanduta dabil».

(*Izotz ondoko iguzki, 6. ahap.*)

Orokorki, «urbil» adjektibo edo adberbioaz izen bat sortu nahi lukeenak, generalizazio-atzizkiren bat erabiliko luke; ziurrenik, «tasun» atzizkia erantsiz, «hurbiltasun» sortuko luke. Lizardik, atzizkiez baliatu beharrean, mugagabeen utzi du.

Mugatzaileari eskaini diogun zati hau amaitzeko, bada, aipa ditzagun zenbait ondorio: Sintagma mugagabeak, funtzio tekniko batzuek gain, errima berriak posibilitatzeak gain, beste zenbait helburu bete ditzakeela gudaurreko idazle honengan: hizkuntzaren posibilitate abstraktiboak areagotzea, pertsonifikazio eta «guzitarratze» honen bidez; sintaxian, aurrerago ikusiko ditugun expresamolde «esaeratsuak» sortzea; eta morfologi-sintaxi mailan, ikusiz joango garen beste zenbait ezaugarriekin batera, Lizardiren olerkigintzari halako eite berezi bat ematea.

2.- ADITZAREN PARTIZIPIO/INFINITIBOAK

Mugatzaileak gain, hizkuntzaren «giartasuna» eta indar expresiboa gaitu nahi duen beste moldaera morfologikoa, idazle hauen artean, aditzaren erroan infinitibo eta partizipioaren arteko ezberdintasun morfologikoa isiltzean datza.

Olerkigintzan honelako lizentzia erabil zitekeela norengan sortua den eta zein garaitan, ez zaigu oraindik batere argi agertzen.

Nolanahi ere dela, Sarasolak³ aipatzen duenez erabilera hau aski arrunta izan da prosan, eta ez poesigintzari mugatua; hala ere, kontextu poetikoan mugatzaile gabeziak bezala, errima-beharkizunei erantzuteko baliotsua izan zaie eta baita bertsoaren neurria ongi betetzeko ere.

Funtzio horiezaz gain, ostera, eta partizipioaren ordeztu infiniti-

boa erabiltzen duen kontextuetan oinarrituz, beste helburu expresiboen funtzioan daudela esango genuke; sarri galderatan, exklamaziotan edo, bereziki, esaldi ironiko edo emotiboetan aurkitzen bait dira:

«Betidanik zizkiok kendu—alak *ken*
Aren irentsi—beaŕa ez dik ezerk asetzen.
Lafeko zezena, oianeko basauntza,
odeietako txoriak... Oro gizonak *eiza...*»
(*Zuaitz etzana*, 10. ahap.)

«Betidanik, eskale labur, emale eder:
ire bizi guztian, txarkeri bat al—duk ager?»
(*Zuaitz etzana*, 4. ahap.)

«Badut zalantza zein giro izaki;
otzaren ala denentz ebaki;
ikus ezpaitut Udaberi...»
(*Sagar lore*, 3. ahap.).

Bestalde, adibide batzuetan, partizipioaren marka kenduriko adizki horiek hasiera batetan zuten izen edo adjektibo kategoria erdizka bereganatzen dutela dirudi, eta honekin batera, noski, azken kategoria gramatikal hauei dagokien estatismoa eta «sustantzi» kontenidoa berreskuratzen dutela:

«Beste erpin musker bat or baita agiri,
maldan—gora zaizka zuaitzak *geldi*:
oker, ats—estuka, luŕari itsatsi—
mendizale makal unatuak iduri»
(«*Baso—Itzal*», 9. ahap.)

«Lafeko xamoŕo ozenen zantzurik
ez da inon. Aspaldidanik
ixil zen olerkari yaun Kilkeŕa»
(*Ondar goŕi*, .6. ahap.).

3.— MAILA MORFOLOGIKO ETA SINTAKTIKOAN BESTE ZENBAIT JOKABIDE TRINKOZALE

Goiko bi sail horietan agertu ditugun jokabideek Lizardiren olerkigintzan duten leku bereziagatik banaturik azaltzea merezi

zutela zirudien; baina ez dira, azken batetan, beste zenbait eremutan agertu zuen zaletasunaren manifestapen berezi batzu baizik.

Horiekin batera aipatu behar lirateke Lizardik, eratorketaz eta konposaketaz, egin zuen hitz berrien erabilera jakintsua; bide horiek eskaintzen zizkioten posibilitate expresibo abstraktu bezain trinkozaleak maisukiro probetxatu bait zituen.

Adibiderik eman beharko balitz, neurri handiegia izango luke hitz-zerrendak; eta erabili zituen osabide guztien berri ematea, berri, oso teknikoa litzateke. Aipa ditzagun, bada, haren bertsoetan adierazgarrienik iruditu zaizkigunak, hala nola, «gorago-yoranez», «atseden-egarriz», «udazken-ostoa», «kabigai-lor», etabar. Zenbaitetan, eduki metaforiko sujerente bezain koloretsuak biltzen ditu hitz berriak: «egun-eunez yantzia», «marrubi-odolez» («Neskatz urdin yantzia»). Azkenik, ez ditzagun aipatzeko utzi Lizardiren olerkietan maila sinboliko eta semantikoa lotzen dituzten hitz konposatu haiek: «bizitza-itsaso» («Gure mintzo»), «Eri-baratzak» («Asaba zâfen baratza»).

Sintaxiari dagokionean, aldiz, zenbait bide ezberdin aukeratu ditu Lizardik hizkera laburtzalearen bilaketan.

Horietako bat elipsiarena dugu. Haren olerkietan baliapide poetiko honen erabilera sarri goraiapatua izan da, haren posibilitate sujerente, azkar eta bereziki inpresionistengatik. Esaldietako aditza ezkutaraztean, azken batean akzioa konkretatu gabe uzten bait du.

Morfologian bezala, bestalde, egitura trinkoen hautapena gailentzen da Lizardiren olerkietan, eta zenbaitetan ulerkaitzak diren esamoldeak sortzen dira:

- «goriak astundu-tantai ařizko» (*Uzta-erdi*)
- «lufari itsatsi-mendizale makal unatu iduri» (*Negu*)
- «loak ar basoan»

4.- BUKATZEKO

Aipatuz joan garen trinkozaletasunaren manifestapen konkretu bakoitzean, helburu expresibo-poetikoak iritsi nahi zituzten joka-

bideak nabarmendu ahal izan ditugu. Ez dira, inola ere, formalista hutsaren zailtasun gratuitoak, baizik eta poesiari buruzko kontzeptzio baten azalpen bizi eta zoragarria, funtsean.

Banan-banan zehaztuz joan garen egitura, jokabide morfologiko eta sintaktiko hauek, beraz, halako «estetika» bati erantzuten diote; eta, zalantzarik gabe, maila fonetiko-metrikoan, eta baita semantikoan ere, *estetika* horren zerbitzuan dauden jokabideak aurkitu ahal izango dira.

Zein ote da, ordea, *poetika* hori?

Galdera nagusi honi erdizka bada ere erantzun diezaiokeen Aitzolen artikulu-zati hau aipatuko nuke nik aurrenik:

«La amplificación, la exhuberancia de expresiones eran sin duda alguna, influencia de lenguas latinas. Y tendió a la brevedad y a la concisión.

Y no solamente, en la expresión de las ideas procurando la supresión de verbos y palabras, recurriendo al suplet. (...), en todo aquello que diera vigor a la forma y no obscureciera la frase; adoptó el criterio de simplificar las mismas palabras y los verbos quitando la determinante «a» y la terminación de la forma verbal.

Con todo ello quiso dar una cierta impresión de arcaísmo (...) porque creyó que por ese camino se iba directamente a imprimir al idioma su peculiar genio sintético y expresivo, y no por el simple hecho de revivir viejos moldes»⁴.

Aitzolek aditzera ematen digunez, bada, euskarari, hizkuntza aglutinantea den aldetik, berez dagokion trinkotasuna dela dirudi Lizardiren egitura linguistikoen arrazoi nagusia: «imprimir al euskera su peculiar genio sintético».

Ez dirudi burugabekeria, abertzaletasunaren urterik sutsuenean sortu zen Pizkunde mugimenduko olerkari batek erabat tonu euskalduneko olerkigintza sortu nahi izatea. Hizkuntzaren mailan hemen nabarmendu duguna bera bilatu zuen Lizardik metafora, pertsonifikazio eta gainerako errekurtsu poetikoetan.

Hizkuntza erromanikoengandik urruntzen eta hizkuntza arkaiko bat moldatzen saiatu zela diosku Aitzolek goiko zati ho-

rretan, eta hori bide da halako egitura gotortuen, zenbait esamolde errefracutsuren eta fragmentarismoaren arrazoia.

Halere, garaia lotua dagoen arrazoi honen indarra ukatu gabe, Lizardiren olerkigintzaren ezaugarri formalista hauek helburu poetiko sakonei dagozkiela ikusenezake: haren lirikaren adierazle nagusienetako bat izatera iristen da eta Poetika pertsonal baten agerpena bilakatzen:

«En cuanto al ropaje de sus conceptos poéticos (...) creo que debe usted esforzarse en alcanzar una expresión cada vez más justa y más densamente vasca.

Me parece evidente que si en algo ha de ser superior el verso lírico a la prosa, no será por lo que todo verso tiene de convencional, sino por lo que ayude a extraer del lenguaje el máximo de sustancia expresiva.

Sé por repetida experiencia que esta teoría tiene, entre nosotros, numerosos y acérrimos enemigos: a ellos me dirijo para hacerles observar que la poesía tiene otros géneros, como el épico, que no piden el mismo grado de concentración, y cuyo cultivo procuramos promover los que a él no nos sentimos llamados; y que en un género u otro, siempre el espíritu auténtico del idioma vasco tiende a la densidad expresiva, en grado muy superior al romance, que tanto ha tenido que pesar sobre nosotros, para hacernos agradable lo redondeado y relamido»⁵.

Lizardik 1931n Lauaxetaren *Bide barridak* liburuari buruz idatzi zuen artikulua honetan, zeharka bada ere, bere poetika pertsonalaren berri ematen digu batez ere; bertan bildurik ikusten ditugu lehenago aipatu dugun euskararen izate sintetikoarenganako ardurara, hari berez dagokion trinkotasunaren aipamena, baina baita gure olerkariak lirikari buruz zuen kontzepzioa ere.

Hautatu dugun zati honetan biltzen da nagusienik kontzeptu hori, nahiz eta artikulua guztian zehar, zenbait baieztapen interesgarri aurki daitekeen han-hemenka.

Garrantzizkoena, halere, hizkuntzaren etekin expresiboa probetxatzeari ematen dion lehen postua dugu, zalantzarik gabe. Bete-betean adierazten bait du haren olerkigintzak, hizkuntzaren errekurtsuak areagotuz, lortu nahi dituen helburu expresiboetan kontzepzio horren hedadura.

Eremu sintaktiko, morfologiko, semantiko eta fonetikoetako errekurtsuak areagotuz, zentzu-sentimenduei lehen prisma eskaintzean, lirika barrenkoi horren adierazpena lortzen du Lizardik, hizkuntza poetikoa benetan zainduaz.

Formalismoak ez du lekurik apenas honelako lirika batetan. Erabiltzen diren formak helburu expresibo baten zerbitzuan daude, helburu poetiko bat dute eta horien kolaborazioa olerkigintza horren handitasunean ez da sinboloena edo imagina literarioena baina txikiagoa.

L.O.

¹ MITXELENA, K.: *Idazlan hautatuak*, Etor, Bilbo 1972, 176 or.

² *El Día*, 1933-6-8.

³ Ik. SARASOLA, I.: «Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio bate-rako» in: *Homenaje a Julio Caro Baroja*, Madrid 1978.

⁴ AITZOL: «Xabier de Lizardi», in: *Yakintza*, 1, 1933.

⁵ LIZARDI: «Rumbos nuevos», in: *Euzkadi*, 1931-12-30.

DE LA POETICA DE LIZARDI SUR LA POËTIQUE DE LIZARDI

Lizardi es un poeta «difícil». Los factores explicativos de este hecho son tres: 1) Esta «dificultad» es distintivo de los grandes líricos. 2) El léxico particularmente cuidado. 3) La búsqueda de un lenguaje denso. A continuación se analizan algunas manifestaciones concretas de esta densidad.

A) *Sintagmas indeterminados.*

La práctica del indeterminado en los poetas de los años 30 la introdujo Orixe. Este lo habría tomado de los bersolaris de Lapurdi (Ibon Sarasola). Pero Patxi Altuna ha demostrado su uso ya en Etxepare y Etxeberri. Lizardi no solo utiliza la forma indeterminada por exigencias técnicas de la rima. La hallamos también en vocativos y apóstrofes, en «personificaciones» y «generalizaciones».

B) El participio/infiniitivo del verbo

Otra forma empleada en función de la densidad y fuerza expresiva del lenguaje es la supresión de la diferencia morfológica entre el infinitivo y el participio en la raíz del verbo. Lizardi echa una mano de esta forma por exigencias de la técnica de versificación; pero también se la encontramos en interrogaciones, exclamaciones y en expresiones irónicas o emotivas.

C) Otras formas morfológicas y sintácticas

Lizardi hace también un uso inteligente de la derivación y de la composición en la creación de palabras nuevas.

Respecto a la sintaxis, el empleo de la elipsis, permite construir una frase más breve, sugerente, de tinte impresionista.

Estas particularidades morfológicas y sintácticas señaladas aquí, junto con otras fácilmente detectables en la fonética y semántica, son indicativas de una Estética propia de Lizardi.

Según Aitzol, con esta Estética, Lizardi quería imprimir al euskara, lengua aglutinante, «su peculiar genio sintético y expresivo». Pero por encima de interpretaciones formalistas no se ha de olvidar que esta densidad de lenguaje está al servicio de la lírica. Lizardi pretende «extraer del lenguaje el máximo de sustancia expresiva».

Lizardi est un poète «difficile». Trois raisons expliquent ce fait:

- 1) Cette «difficulté» est un des signes distinctifs des grands lyriques.
- 2) Le lexique particulièrement soigné.
- 3) La recherche d'un langage dense.

Nous passons ensuite à l'analyse de certaines manifestations concrètes de cette densité.

A) Les syntagmes indéterminés.

La pratique de l'indéterminé chez les poètes des années 30 a été introduite par Orìxe. Celui-ci l'aurait prise des bertularis de Lapurdi, d'après Ibon Sarasola. Mais Patxi Altuna a trouvé cette caractéristique déjà chez Etxepare et Etxeberri. Lizardi utilise la forme indéterminée non seulement pour des exigences techniques de la rime, mais aussi dans les vocatifs et les apostrophes, les «personnifications» et les «généralisations».

B) Le participe/infiniitif du verbe.

Une autre forme utilisée pour atteindre cette densité et cette force d'expression dans le langage est la suppression de la différence morphologique entre l'infiniitif et le participe dans la racine du verbe. Lizardi fait recours à cette forme pour appliquer les règles de la versification; mais nous la trouvons aussi dans des phrases interrogatives, exclamatives ainsi que dans des expressions ironiques ou émotives.

C) Autres formes morphologiques et syntaxiques.

Lizardi emploie aussi d'une manière intelligente la dérivation et la composition dans la création de termes nouveaux.

Quant à la syntaxe, l'emploi de l'ellipse lui permet de construire une phrase plus brève, suggestive, de tendance impressionniste.

Ces particularités morphologiques et syntaxiques signalées ci-dessus ainsi que d'autres facilement décelables dans la phonétique et la sémantique sont les indices d'une esthétique propre à Lizardi.

Selon Aitzol, par cette esthétique, Lizardi voulait imprimer à l'euskara, langue agglutinante, «son propre génie synthétique et expressif». Mais il ne faut pas oublier, par dessus toute interprétation formaliste, que cette densité de la langue est au service de la lyrique. Lizardi cherche à «extraire du langage le maximum de substance expressive».

LIZARDIren ESKEMA METRIKOAK eta PUNTUAK

Juan Mari Lekuona

I. SARRERA

Euskal metrikaren arazoa beti da zaila, beharbada zenbait puntutan aski landu gabea daukagulako edo. Eta Lizardiren kasuan, nahiz-eta autoreak sistema nahiko landua eskaini, zailtasunek irmo diraute ezer sistematurik lortu nahi bada.

Lizardiren metrika artikulua baten mugabarruan ematekotan, lehenengo zailtasuna eremuaren zabaletik datorkigu. Izan ere, berez aztergai asko leudeke miratu beharrak: sinalefen erabilera, estrofa-motak, errimak eta/edo puntuak, diskurtsoaren moldezkatzea eta pentsamenduaren erritmoa, sintaxiaren egitura eta eskema metrikoaren luze-zabala bat datozen ala ez, erritmoaren eta hotsen zeregin imitatiboa, kantutegietako metrikaren alderdiekin erkatzea, erdal neurkerarekin konparaketak egitea, eta abar. Egiaz, luzeegia litzateke gauza horietaz hemen mintzatzea.

Bigarren zailtasunak zehaztasunean luke bere sorburu, metrika-alorrean gauzak zehatzago eman behar horretan. Hasi beharra dago hartzen ditugun arloak beren luze-zabalean aztertzen, ikuspegiak mugatzen eta kuantifikatzen, edo-

ta baieztapenen oinarriak eskaintzen, neurri egoki batean behintzat. Eta hau gutzia textuetatik abiatuz, inolako aurre-eritzirik gabe, ez alde, ez kontra. Eta horrelako azterketak zabalkunde mailan egitea ez da erraza gertatzen, ikerketaren esparrura hurbiltzen garenaz.

Idazlan honetan eskema metrikoak eta puntuak aurkezteko asmoa hartu dugu. Lizardik estrofen molde-barruan idazten digu beti, aldi oroz eredu desberdinaz baliaturik. Eta estrofagintza arakatzeko funtsezko osagaiak jotzen ditugu eskema metrikoak eta puntu-errimak kontuan edukitzea. Hauek zehazki aztertzeak alderdi jakingarriak finka ditzakegu (edota hauetara asko hurbildu) Lizardik erabiltzen duen artifizio erritmikoari dagozkionetan.

Eta arloari eskua erantsi aurretik, zenbait ohar egin beharrean gaude:

a. Aztergaitzat, *Biotz-begietan olerkiak* bakarrik hartzen dugu. Laburtu beharraz aparte, liburu honi soilik heltzen diogu, bertan bakarrik dagoelako Lizardik argitara eman zuen bere erabateko eritzia; eta gainera, liburu honetakoa ematearekin aurkezturik dagoelako autoreak metrika-arazoan duen ikusmoldea, duen bertso-gintza, neurri on batean bederen.

b. Izenburuan «puntuak» hitza darabilgu, eta barruan «errima» hitza ere sartzen dugu. Bi hitz hauek zertan diren berdin eta zertan ez, oraindik aski finkatu gabe dagoela dirudi gure artean. Guk hemen, eta besterik erakusten zaigun arte, desberdintzat hartzen ditugu: errimak batez ere letrekin du zerikusia, eta azken letraz/-ez egindako hoskidetza berdina emango luke aditzera, asko edo gutxi direla letra horiek; eta puntuak, letrekin ezezik, erritmoarekin ere badu zerikusi, adibidez, oinekoekin; eta letrei dagozkienetan, errimarena baino luzeagoko hoskidetza ere lekarkiguke, bai hoskidetza magikoa deritzana, bai aliterazioz ematen zaiguna, gero ikusiko dugunez.

c. Errimen hoskidetza sailkatu eta kuantifikatzeko sistema hau hartu dugu. Ez da erabatekoa, baina bai bide bat azterketak egiten hasteko; eta are probetxugarriago Lizardik errimetan duen joera kontuan hartzen badugu, (ia beti bi puntuko estrofa erabiltzeko joera). Eta errimako letren hoskidetza nondik hasten den begiratu, kasu hauek aurki daitezke:

- A eredua:* atzizki edota morfema berdinez egiten dena, bakoitzaren *n*abardurak barne: izu-izuAN/ arteAN; sortuRIKO/ jantziRIKO; diranAK/ oiAK; buruTU/ aazTU.
- B eredua:* lexema desberdinetako azken silabaren bokaletik edo kontsonantetik hasiz egiten dena: bainO/ banekialakO; jaurtI/ bizI; oNENA/ biguNENA; negUA/ puztUA.
- C eredua:* lexema desberdinetako azken silaba osotik, edota bi letretatik hasiz: murkIL/IL; OIN/ itxOIN; zorakortasuNA/ igaNA; baduTE/ ez oTE.
- D eredua:* lexema desberdinetako azkenurreko silabaren bokaletik edo kontsonantetik hasiz: gERO/ERO; beñOLA/kaiOLA; AGO/ pozAGO; baÑA/AÑA.
- E eredua:* lexema desberdinetako azkenurreko silaba osotik, edota bi letretatik hasiz: ZEGOEN/ZEGiOtEN; mALDAN/ALDAN; yausiTAKOAN/DAGOAN.
- F eredua:* lexema desberdinen heren silabatik hasiz egiten dena: IzURI/ IdURI; bEStERI/ESERI; zornA BERRIAK/ABERRIAK; ITZALI/ kIXKALI.

Puntu bateko eta besteko letren erkatze hau ez da beti grafiari letraz-letra jarraituz egiten dena, baizik eta hoskidetza berdintsuari jarraituz, grafia eta hoskidetza beti bat ez datozelarik.

d. Hasieratik ohartarazi nahi genuke, baita, zertan legokeen estrofoagintzaren funtsa. Eskema metrikoak ematea, besterik gabe, argibide soilegia litzateke, gero eskema horien egitekoa agertzen ez badugu, neurri batean behintzat. Eta egitekoa eta funtsa esatean, zera ari gara markatzen: idazterakoan eskemak eskaintzen dituen ahalbideak, bere erraztasun eta zailtasun guztiekin, dohai eta akatsekin; gero diskurtsoaren erritmoa edo abiada ere bereziki markatzen ditu estrofa-motak, erritmoa bera binakoa, hirunakoa edo gehiagokoa den erakutsiz, sekuentzien azkartasuna erabakiz, kontaren bizitasuna edota lirikotasunaren trinkoa edo arina nabari-araziz; eta, baita, egitura sintaktikoen eta eskema erritmikoen arteko atxekitasuna ikusi beharra legoke, ager dadin ea autoreak zenbateraino ihes egiten dien monotoniari, bete-lanari, amaneramendu eta beste zenbait biziori.

Bistan da guzti hau gure gaurko egitekoaz kanpo dagoela. Guk

eskema metrikoei eta puntuei heltzen diegu. Gauzak zerbait kuantifikatuz eta sugerentziak eskainiz gatoz, Lizardiri eta metrika-lanetan jarduten dutenei alderdi jakingarriren bat aurkeztuko diegulakoan.

II. AZTERKETA

1. YAUN ERRUKIORRA

1.1. Eskema metrikoa

14 A
14 B
14 B
14 A

14 A
14 B
14 B
14 A

14 C
14 D
14 E

14 C
14 D
14 E

(1 olerkia)

1.2. Puntuak

	/lOi	/dii	/guIn	/gA	/rrI	/AN/	
	/O	/gen	/e	/gin	/nu	/AN/	
	/sOr	/tU	/zI	/tun	/nIg	/AN/	
	/zu	/zeUn	/de	/lA	/goI	/AN/	
							(1, 4, 5, 8 b-1)
/ZE	/REi	/dU	/riz	/sor	/tu	/RI	/KO/
/ZE	/REes	/kU	/ek	/yan	/tzi	/RI	/KO/
	/ez	/tiz	/Ko	/A	/bAi	/nO/	
	/ba	/ne	/Ki	/A	/lA	/KO/	
							(2, 3, 6, 7, b-1)

	/o	/ñaz /be	/ta /ro	/RRi /RRen	/lA /AR	/RRI /gI	/A/ /A	
								(9, 12 b-1)
/ze	/ne	/or /ri	/tzi /o	/Ai /dAn	/zui /ar	/zu /te	/AN/ /AN/	
		/e	/guz /i	/ki /tu	/a /rri	/yaur /bi	/tI/ /zI/	(10, 13 b-1)
								(11, 14 b-1)

1.3. Azterketak

1.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Lizardirentzat «amalaukoa» dena eta Oihenartek «hamalaurkuna» deitzen duena, erdal sonetoaren moldea dugu. Hala ere, aipatu bi poeton artean silabetan eta etenaldietan badago bereizkuntzarik. Lizardik hamalau silabako bertso-lerroak ditu, eta etenaldiak 8+6 multzo fonikoen hasieretan eta 6+8 gerokoetan. Oihenartek hamabi silabako bertso-lerroak ditu, etenaldia sei silabatik sei silabara, 6+6, egiten duela.
- Idazteko ahalbideen aldetik, hamalaukoak baditu bere ezaugarriak. Pieza bakarreko saioa gertatzen da eta moldearen garrantzia osotasunean datza. Errima gurutzatuak edukitzeak zailtasunik balekar ere, silaba ugariko hemistikioak direnez, ez du behartzen pentsamendua, eta badu leku xehetasunen ugaritasunak. Eta ezinahaztua da azken esaldiak duen garrantzia hamalaukoan.

1.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasiz egiten den begiratzuz:

A	eredua, 2, % 28,57
B	eredua, 3, % 42,85
C	eredua, 1, % 14,28
D	eredua, 1, % 14,28

Aliteraziorik dagoen:

- Baietz dirudi, baina ez sistematikoki eginak.
- Dauden aliterazioak belarriaren isuriz explika daitezke, noski. Hala dirudi.

2. OIA

2.1. Eskema metrikoa

Neke-sendaria,	7 -
buru-argitzaillea,	7 -
lanaren saria...	6 A
Amestegi guria,	7 -
naigabien azkaia,	7 -
nagian nausia	6 A
(2)	

2.2. Puntuak

/lA	/na	/rEN	/sA	/rI	/A	/
/nA	/gi	/EN	/nAu	/sI	/A	/(2, 1)
/guz	/ti	/Ak	/zu	/RE	/TZAT	/
/zin	/du	/A	/na	/REn	/TZAT	/(2, 2)
/E	/ra	/sO	/bai	/ño	/lEeN	/
/nEur	/ti	/tzOk	/e	/sa	/tEN	/(2, 3)
/Es	/ka	/tzen	/ZAu	/da	/TE	/
/bE	/gi	/ok	/ZA	/kUs	/TE	/(2, 4)
/da	/go	/ki	/on	/nEur	/RIZ	/
/lo	/tsa	/ga	/be	/kE	/RIZ	/(2, 5)
/o	/rreN	/bEs	/Te	/nE	/kE	/
/A	/daN	/E	/Ta	/E	/bE	/(2, 7)
/A	/bA	/rAs	/kA	/bA	/TEN	/
/pA	/rrA	/pA	/rrA	/jA	/TEN	/(2, 17)
/gu	/re	/A	/bI	/Ar	/kO	/
/a	/gur	/dA	/gI	/An	/IO	/(2, 21)

2.3. Azterketak

2.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Lauko txikiaren antza du, puntutik puntura 13 silaba izan beharrean 20 dituela izan ezik, 7 silabako bertso-lerro librea erantsiz.
- Estrofaren egitura bikoitza da, bi parte dituenaz, bi puntuen arabera. Molde txikikoa denez, eta sei lerrokoa, azkartasuna eta flexibilitatea bereak ditu, eta konta-poesiarako ahalbide egokiak eskaintzen ditu

eredu honek. Idazteko, 20 silaba daude puntutik puntura, hiru etenaldi markatuz.

2.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasiz egiten den begiratzuz:

A eredia, 5, % 23,80

B eredia, 8, % 38,09

C eredia, 3, % 14,28

D eredia, 4, % 19,04

E eredia, 1, % 04,76

Aliteraziozko hoskidezari begiratzuz:

- Ezin-ukatzukoa da horrelako hoskidezaren presentzia: aurkeztu ditugun 8 eredueta garbi dago.
- Hoskidetza hau sistematu eta kuantifikatzeak idazlanaren eta gure asmoen mugak gainditzen dituenek, konstatazio horretan uzten dugu. Eta jakingarria gertatzen da Lizardik hemen ez duela errima aberastetako grinarik, baina puntuen aberastasuna sartzen dela xede metrikotan.

3. MENDI-GAIÑA

3.1. Eskema metrikoak

Maite ditut gaillurrak	7 -
argiak ez beste...	6 A
Ai, egaztia banintz	7 -
gainik-gain nenbilke!	6 A

(3, 1)

Oi, udaberri-goizez	7 -
mendiaren gaillurra!	7 -
Oi, aren ametsezko	7 -
zorakortasuna!...	6 A
Zein ezkutuzko indarrez	7 -
zein atsedeen-egarriz,	7 -
zein gorago-yoranez	7 -
narakark igana?...	6 A

(3, 2)

3.2. Puntuak

/ Ar	/ gI	/ Ak	/ Ez	/ Bes	/ tE	/
/gAi	/ nIk	/gAin	/nEn	/ Bil	/ kE	/(3, 1)

/zo	/RA	/KoR	/ta	/su	/NA	/
/na	/RA	/KaRk	/i	/ga	/NA	/(3, 2)
/e	/Zil	/kor	/tZen	/dU	/NA	/
/lo	/reZ	/e	/Za	/gU	/NA	/(3, 3)
/go	/tzo	/nEN	/uR	/bil	/GO	/
/su	/ma	/tzEN	/beR	/ta	/GO	/(3, 4)
/az	/ka	/iA	/bA	/le	/gOK	/
/ken	/du	/nA	/zA	/ki	/OK	/(3, 5)

3.3. Azterketak

3.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Errepikak lauko txikiaren neurkera du. Erritmo azkarra, flexibilitate handikoa, egitura bikoitza, errimen arabera.
- Barruko estrofeak, funtsean behintzat, bi errima nagusi baizik ez dituzte, nahiz-eta han eta hemen, sistemarik gabe, hoskidetzak agertu bertso-lerro libreen artean. Binako erritmoa darama pentsamenduak, estrofaren bi zatien arabera. Silaben aldetik ahalbide zabalak ditu puntu batetik bestera: 27 silabako hemistikioa. Estrofa azkartasunean galzten duena, aberastasunean irabaz dezake.

3.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratu:

B eredu, 2, % 40,0

C eredu, 3, % 60,0

Aliteraziorik dagoen:

- Argi eta garbi dago poema honetan aliterazioen presentzia, estrofa guztietan egon ere.
- Konstatazio hutsak berriro ere lehengo ondorioa garamatza: lexema berriaren azken silabatik ez dela igarotzen hoskidetza, eta errima aliterazioaren bidez aberasten dela.

4. ZERU-AZPIA

4.1. Eskema metrikoa

Esan amatxo: aingerutxoak	10	-
egoa urrezko badute,	8	A
zeru urdiñean urre-dirdira	10	-
nik nola ikusten ez-ote?...	8	A

(4, 1)

4.2. Puntuak

/e	/gO	/Au	/rreZ	/ko	/ba	/du	/TE/
/nik	/nO	/lAi	/kuS	/ten	/ez	/o	/TE/
/Au	/rra	/ri	/A	/la	/di	/o	/TsA/
/Az	/pi	/a	/bAi	/zik	/ez	/bai	/TA/
/o	/Rrein	/e	/de	/rrA	/Da	/la	/rIK/
/ze	/Ru	/a	/goi	/Al	/Der	/di	/tIK/
/bA	/Re	/oz	/kAR	/bi	/ze	/gO	/EN/
/Au	/Rra	/ri	/pAR	/ze	/gi	/O	/tEN/
/Bi	/uR	/Oi	/di	/rAn	/ga	/rai	/AN/
/Be	/Rri	/rOo	/ne	/lA	/zi	/o	/tsAN/
/da	/la	/rik	/A	/mA	/txo	/mai	/tE/
/i	/kus	/te	/rAal	/bA	/nin	/go	/kE/
/A	/lA	/tsu	/o	/toitz	/gaR	/bI	/A/
/YAu	/nA	/ri	/la	/gun	/be	/RrI	/A/
/be	/Rri	/roi	/ze	/kI	/za	/nE	/KO/
/zE	/Ru	/az	/pi	/aI	/kus	/tE	/KO/
/O	/toI	/ze	/gi	/an	/nE	/gA	/RREZ/
/gOi	/kI	/ai	/ku	/si	/bE	/A	/RREZ/

(Estrofaz-estrofa emanik)

4.3. Azterketak

4.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Estrofa honi lauko nagusia deitzen diogu, hegoaldeko bertsolarien tradizioari jarraituz. Molde laburra denez, flexibilitate handia du, batez ere kontaerarako. Pentsamenduak binako erritmoa darama beti, muga errimek ezartzen dutela. Idazteko posibilitateei begiratzen bazaie, 18 silaba ditu errimatik errimara.

4.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

B	eredua, 4, % 44,44
C	eredua, 3, % 33,33
D	eredua, 1, % 11,11
E	eredua, 1, % 11,11

Aliteraziorik dagoen:

Multzo fonikoak erkatzean ikus daiteke bi eta hiru aliterazio aurkitzen direla hoskidetza bakoitzean. Eta bat izan ezik errimak aberatsak ez badira ere, aliterazioen bidez aberastasuna hartzen du hoskidetzak.

5. ALDAKERI

5.1. Eskema metrikoak

Leioa. Kaiola, bertan.	8 A
Urrezko ariz lotuta, pozik, txoria:	5 8 B
ez margo, ez eztarria:	8 B
ederrik gaxoa nekez ezertan...	11 A
Uda yoan da. Mardulka zaizka mordoak	5 8 A
matsondoari. Beiñola	8 B
—egari mozkorra— yo du kaiola	11 B
gazteenik ildako ostoak.	8 A
(5, 1 eta 15)	

5.2. Puntuak

	/ka	/io	/la	/bER	/TAN/				
	/ne	/kez	/e	/zER	/TAN/				
	/po	/zik	/Txo	/RI	/A/				
	/ez	/ez	/TA	/RRI	/A/				(5, 1)
/da	/to	/rrEN	/I	/Re	/mAi	/tE	/A/		
/be	/gi	/EN	/I	/Rri	/pA	/rrE	/A/		
	/or	/dE	/a	/zi	/mUR/				
	/e	/nE	/nork	/la	/pUR/				(5, 18)
/IE	/Ioos	/te	/An	/I	/tZa	/II	/A/		
/bE	/tI	/koil	/Ar	/gI	/guZ	/tI	/a/		
	/i	/U	/AN	/gA	/RRA/				
		/IU	/NA	/bA	/RRA/				(5, 21)
	/na	/gIZ	/al	/dI	/AK/				
	/be	/rrIZ	/be	/gI	/AK/				
	/AR	/TA	/bu	/rU	/A/				
	/dAR	/DAr	/es	/kU	/A/				(5, 28)

5.3. Azterketak

5.3.1. Estrofen ezaugarriak

- Arretagarria gertatzen da neurkera hau, neurri berak konbinaketa desberdinetan eskaintzen dizkigunez Lizardik. Errimetan ABBA gurutzatzea ezaguna zaigu, hamalaukoan ikusi dugunez. Gero, silaben kontuan bost silabadun multzoa sartzen du, multzo librea; bigarren bertso-lerroan lehen eskeman, eta lehenengo bertso-lerroan bigarren eskeman. Berau molde nagusiaren ildotik badoo ere, (5+5/8), gauza berezia bezala dakar Lizardik, idazkeran ere espazio zabal batez bereizten duela. Eta azkenik, hamaika silabako bertso-lerroa, laugarren lerroan lehen eskeman, eta hirugarrengo lerroan bigarren eskeman. Orohar, lau aldiz sartzen du autoreak hamaika silabako bertso-lerroa bere liburuan.
- Estrofaren dinamika nahiko ohargarria dela esan daiteke: anisosilabikoa denez, eta errimak gurutzatuak doazelarik ABBA eskema erakutsiz, zailtasuna litzateke lehenik nabari dena, eta erritmo jakinik eza pentsamenduaren agerkunde. Askotan tartekatzen dira komentario lirikoak, zailtasunaren amorez edo, ipuinaren haria eta xehetasunak iluntzen eta banatzen direla.

5.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

A eredua,	4,	% 05,88
B eredua,	21,	% 30,88
C eredua,	32,	% 47,05
D eredua,	9,	% 13,23
E eredua,	1,	% 01,47
F eredua,	1,	% 01,47

Aliteraziorik dagoen:

Etenaldiak erkatuz gutxiago agertzen dira, baina aberatsagoa gertatzen da errimen hoskidetza.

6. XABIERTXOREN ERIOTZA

6.1. Eskema metrikoa

Gabon-egun-goizean	7	-
Yaun Aita pozik	5	A
yaiki, ta aingerutxoak	7	-
orra non bildu ditun,	7	-
esanik:	3	A

(6, 1)

6.2. Puntuak

/ Yaun / ai / ta / po / zIK /
/ e / sa / nIK / (6, 1)

/ gaur / a / rra / tsE / AN /
/ lu / rrE / AN / (6, 2)

/ guz / ti / ok / bE / RA /
/ gur / tzE / RA / (6, 3)

6.3. Azterketak

6.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Lehen ere erabiliak ditu Lizardik zazpi silabako bertso-lerro libreak, punturik gabeak, baina 6 silabako lerro errimadunekin konbinatuz. Hemen, ordea, 5 eta 3 silabako bertso-lerro errimadunekin konbinatzen du.
- Molde txikia baino laburragoa denez silaba aldetik, azkarra da eta flexibilitate haundikoa. Lehen errimara arte 12 silaba dauzka, eta lehenengotik bigarreneira 17, idazteko posibilitateak ez hain zabalak izanik. Eta 7/5 eta 7/3 horiek erritmoa aldatzen dute eta ahoskera berri bat sortzen, haustura moduko mozketak bat erantsiz estrofaren bukaeran. Neurkera egokia kontaerarako.

6.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

A eredia, 8, % 21,62
B eredia, 7, % 18,91
C eredia, 16, % 43,24
D eredia, 6, % 16,21

Aliteraziorik dagoen:

- Errimaduneko multzo fonikoen hoskidetza ezin eman olerki honetan bigarren multzoak hiru silaba besterik ez dituenek, eta legokeen hoskidetza errimaren mailakoa litzatekeenez.
- Puntudun ez diren bertso-lerroen bukaeretan hoskidetzak aurki daitezke, baina ez dugu uste gauza sistematu direnik.

7. NESKATX URDIN-YANTZIA

7.1. Eskema metrikoa

Udaberri, uste-ezik,	7	-
arki dut basoan.	6	A
Neskatxa da, ta urdinez	7	-
yantzita ziyoan.	6	A
(6, 1)		

7.2. Puntuak

/Ar	/kI	/dut	/ba	/sO	/AN	/
/yAn	/tzI	/ta	/zi	/yO	/AN	/
/Be	/gi	/Aa	/rE	/A	/GO	/
/Ba	/re	/An	/Ez	/dA	/GO	/
/a	/sE	/za	/ki	/da	/TE	/
/e	/dE	/rrik	/au	/bes	/TE	/
/o	/Re	/tu	/ai	/ñO	/LAZ	/
/ma	/RRu	/bi	/o	/dO	/LAZ	/
/be	/zIn	/su	/zo	/II	/A	/
/yo	/rIk	/i	/lle	/dI	/A	/ (6, 1-5)

7.3. Azterketak

7.3.1. Estrofaen ezaugarriak

- Gorago atera zaigu estrofa-mota hau, lauko txikia alegia. Erritmo azkarra, flexibilitate haundikoa, egitura bikoitza, errimen arabera eramana.
- Kontaerarako gaitasun berezia izan dezake neurkerak honek. Errimatik errimara 13 silabako hedadura du, isosilabikoa delarik.

7.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

A eredia, 3, % 14,28
B eredia, 6, % 28,57
C eredia, 8, % 38,09
D eredia, 3, % 14,28
F eredia, 1, % 04,76

Aliteraziorik dagoen:

Aipatu exenpluetan ikusten da baietz. Antzeko proportziotan datoz

hoskidetza duten silabak, bai batere ez dutenak, bai bat, bi, hiru silabatan hoskidetza egiten dutenak.

8. BULTZI-LEIOTIK

8.1. Eskema metrikoa

Oi, lur, oi lur!	4 -
Oi, ene lur nerea!...	7 A
oi, goiz eme,	4 -
parre gozoz ernea!...	7 A

(8,1)

8.2. Puntuak

/oi	/E	/ne	/lur	/NE	/RE	/A/
/pa	/rrE	/go	/zoz	/ER	/NE	/A/
/men	/dI	/ba	/se	/rri	/zAa	/RRA K/
/a	/ball	/du	/ta	/sa	/gA	/RRA K/
/mEe	/ba	/tek	/es	/tA	/II	/A/
/E	/guz	/ki	/ak	/yAn	/tzI	/A/
/gi	/zaN	/DI	/bat	/i	/dU	/RI/
/be	/yoN	/DeI	/zu	/la	/zU	/RI/
/gu	/raz	/ko	/a	/Be	/rrI	/a/
/ta	/ber	/tan	/ni	/Bul	/tzI	/A/
/ba	/nin	/du	/zu	/ze	/rE	/A/
/zu	/re	/sa	/riz	/a	/sE	/A/
/bee	/kO	/be	/AR	/go	/rI	/AK/
/so	/rO	/sa	/gAR	/men	/dI	/AK/

(Estrofaz-estrofa emanik)

8.3. Azterketak

8.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Funtsezko eskeman, eta bestelako hoskidetzak ere barne, lau silabako librean eta zazpi silabako errimaduna. Konbinaketa berria dugu orain artekoekin erkatuz gero. Antzeko erritmoa ezaguna da kantutegi zaharretan, adibidez, «Intxauspeko alaba dendaria»ren lehen partean.
- Erritmoa zeharo azkarra du, poeta estilizaziora behartuz. Gauza in-

presionista bat egiteko egoki-egokia. Abiada azkarrekoa, trenaren ziztoari dagokion eran.

- Silaben konbinaketak, lau silabakoa monosilabo hutsez, eta zazpi silabakoa monosilabo eta bisilaboz egina, badu zerikusirik trenaren onomatopeiak markatzen duen eritmoarekin.

8.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

B	eredua, 4, % 57,14
C	eredua, 1, % 14,28
D	eredua, 1, % 14,28
E	eredua, 1, % 14,28

Aliteraziorik dagoen:

Funtsezko eskema metrikoaz gain, badira libre behar luketen bertso-le-roak errimadun gertatzen direnak, hala-nola, o Ro la ñO/u Rrez o RO (3. estr.); ne ka za RI/ gi zan di bat i du RI (4. estr.).

9. PARISKO TXOLARREA

9.1. Eskema metrikoa

Txolarretxo, txolarre,	7	A
Paris-erdikoa:	6	B
Bourse'ko iskanbilla	6	C
(gizon zoro batzarre)	7	A
ez ote naikoa	6	B
i izutzeko, axolakabe biribilla?	13	C
(9, 1)		

9.2. Puntuak

/txo	/la	/rre	/txO	/txo	/lA	/RRE	/
/gi	/zon	/zo	/rO	/ba	/tzA	/RRE	/
	/Pa	/ris	/Er	/dI	/KO	/A/	
	/ez	/o	/tE	/naI	/KO	/A/	
	/Bour	/sE	/koIs	/kan	/BI	/LLA	/
/...	/ka	/bE	/bI	/ri	/BI	/LLA	/ (9, 1)
/fA	/Rol	/i	/Tza	/li	/bA	/TEN	/
/A	/puR	/os	/Tu/	bat	/jA	/TEN	/
	/txA	/pEl	/ga	/llu	/rrE	/RA/	
	/bA	/tE	/tik	/bes	/tE	/RA/	
	/e	/to	/rrI	/aiz	/txu	/XEN	/
/...	/a	/rin	/dI	/tuk	/gain	/TZEN/	

/sal	/to	/bA	/na	/kin	/bE	/GI/	
/be	/gi	/rAl	/di	/lu	/zEe	/GI/	
	/er	/na	/iAk	/lu	/rrE	/RA/	
	/ga	/be	/bAa	/tor	/bE	/RA/	
	/ez	/aiz	/i	/mA	/kA	/LA/	
/...	/ya	/so	/tze	/rAa	/zA	/LA/	(9, 2 eta 3)

9.3. Azterketak

9.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Beste eredu bat dakar Lizardik aberatsagoa. Lehen ere erabili ditugu 7 silabako bertso-lerroak eta 6 silabakoak. Baina hemen zazpi silabakoak errimadunak dira bestetan ez bezala; eta errimak gurutzatuak doaz, ABCABC eskema markatuz.
- Errimak azkar datozenez lehenengo bost bertso-lerrotan, eta gainera gurutzatuak, ez da zailtasunik gabea, edota ez dira hain erosoak idazteko ahalbideak. Eta burutazioen erritmoa hirukoitza egiteko joera nabari du.
- Silabaz hala bada ere, zazpi silabakoa errimaduna izateak bereizten du molde hau molde txikitik.

9.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

A eredu,	2, % 06,66
B eredu,	6, % 20,00
C eredu,	11, % 36,66
D eredu,	8, % 26,66
E eredu,	2, % 06,66
F eredu,	1, % 03,33

Aliteraziorik dagoen:

- Aliterazioak areagotu egiten ditu eta errimak aberastu.
- Metrikaren aldetik landua dugu poema hau.

10. OTARTXO UTSA

10.1. Eskema metrikoa

Zumezko otartxoa,	6 A
bazterrean utsik...	6 B
Noizdanik, gaixoa,	6 A
ez duzu lorerik?	6 B
(10, 1)	

10.2. Puntuak

/Zu	/mez	/koo	/tAr	/tXO	/A	/
/noiZ	/da	/nik	/gAi	/XO	/A	/
/baZ	/te	/rre	/an	/u	/tsIK	
/eZ	/du	/zu	/lo	/re	/rIK	/
/u	/da	/be	/rrI	/e	/RO	/
/lo	/re	/on	/tzI	/na	/RO	/
/bai	/zen	/Kus	/tAn	/I	/kUS	/
/zer	/ga	/tiK	/gAur	/aIn	/UTS	/
/men	/di	/An	/A	/ri	/dA	/
/ba	/so	/A	/tAi	/tza	/IA	/
/ku	/Ku	/a	/kAn	/TA	/RI	/
/el	/Ka	/rren	/mAi	/TA	/RI	/
/mi	/txe	/le	/tAk	/il	/kOR	/
/ba	/da	/bil	/tzAan	/ta	/OR	/
/e	/zik	/be	/ren	/us	/tEZ	/
/lur	/a	/pain	/du	/gai	/nEZ	/ (10, 1-4)

10.3. Azterketak**10.3.1. Estrofaren ezaugarriak**

- Oso hemistikio laburrak ditu eredu honek, sei silabatik errima ezarriz. Gero, errimak gurutzaturik kidetzen ditu ABAB eskema markatuz.
- Neurriaren laburrak pintzelkada juxtuak onartzen ditu. Erritmo azkarra eta bizia, silaben monotonia arintasunak eta errimen ugaritasunak hausten dutela.

10.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

A eredua,	2, % 07,14
B eredua,	8, % 28,57
C eredua,	14, % 50,00
D eredua,	2, % 07,14
E eredua,	2, % 07,14

Aliteraziorik dagoen:

- Errima bokalez aberasteko joera nabaria.
- Gainerako aurre-silabetan ere ageri dira, ez hainbeste beharbada, beste zenbait poemarekin erkatuz.

11. AGUR

11.1. Eskema metrikoa

— *Lehen konbinaketa*

Adiskide kuttun, lagun zorigabe	12	A
azpildu gabeko biotzaren jabe	12	A
(11, 1a)		

— *Bigarren konbinaketa*

Elkar-ordainaren ezti berdinaka	12	A
bein ta berriz uka maitasunak baitik,	12	B
r'ez eskein bizitzak beazuna baizik	12	B
(ala baita mikatz sagar bat elduka)	12	A
(11, 2a)		

11.2. Puntuak

/la	/gun	/Zo	/Ri	/GA	/BE	/
/bi	/o	/tZa	/Ren	/YA	/BE	/
/e	/de	/rRak	/su	/bE	/RA	/
/gaur	/o	/Roi	/me	/nE	/RA	/
/ez	/ti	/Ber	/di	/ña	/KA	/
/sa	/gar	/Bat	/el	/du	/KA	/
/mai	/tA	/SU	/NAk	/BAI	/tIK	/
/be	/A	/ZU	/NA	/BAI	/zIK	/
/la	/gun	/bI	/oTZ	/bE	/RA	/
/er	/bes	/teI	/TZa	/lE	/RA	/ (11, 1-2)

11.3. Azterketak

11.3.1. Estrofaren ezaugarriak

— Bertso-lerroak hamabi silabakoak, seigarrenean etenaldia eginez (6+6). Errimen konbinaketak era askotakoak: AABB, ABBACC, AABCC hoskidetuz.

— Errimak binaka doaz gehienak, bitan izan ezik.

— Idazteko posibilitateak, 12 silaba puntutik puntura.

11.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

B eredua, 4, % 23,52
C eredua, 4, % 23,52
D eredua, 4, % 23,52
E eredua, 4, % 23,52
F eredua, 1, % 05,88

Aliteraziorik dagoen:

- Bertso-lerroak bikotxiak izanak aliterazio joera dakar. Ikustagun zenbait esenplu:

MaitASUNAK BAITIK
 beAZUNA BAIZIK (6-7)
 eZetua iDURI
 iZukoi urDURI (19-20)
 baI AGO
 eztI AGO (21-24)
 Al nEZAKE
 adi-AREN JABE (31-32)
 bESARKA nEgarrEz
 nEGARRA dEn emEz (33-34)

- Errimaren inguruko hoskidetzaz gain, hor daude, baita, atzeragoko silaben arabera han eta hemen ikusten diren hoskidetzak, ia aldi oro.

12. BIOTZEAN MIN DUT

12.1. Eskema metrikoak

Biotzean min dut, min etsia,	10	-
negar ixilla darion miña.	10	A
Amonatxo bat nun: gaur, enarak	10	-
etorri-garaiez, aldegiña.	10	A
Eguzkirik ez dute	7	-
leiotan zapiak;	6	-
aur-yolasik ez dago	7	-
gaur zure kalean.	6	A
Odeiek lits urratu;	7	-
itsasoak orro.	6	-
Gizadi bat geldirik;	7	-
gero, bat-batean:	6	A
Ots!	1	A
Ots!	1	A
bizion oiñok...	5	A
(12, 1-15 b-l.)		

12.2. Puntuak

/ Gaur / zu / re / kA / lE / AN /
 / Ge / ro / bat / bA / tE / AN /

/a	/tze	/TiK	/aN	/drE	/AK	/
/bi	/o	/TzaK	/NE	/kE	/AK	/
/i	/be	/Zin	/a	/rI	/ÑA	/
/e	/ga	/tZe	/ko	/dI	/ÑA	/
/zU	/RE	/aur	/yo	/la	/SAK	/
/UR	/tEur	/din	/i	/ge	/SAK	/(12, 2)

12.3. Azterketak

12.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Lehenengoa lauko berdina dugu, hamar silabakoa eta bi errima dituen, 2 eta 4 garren lerroetan.
- Bigarrena silabaz zortziko txikiaren moldekua dugu, lau errima eduki beharrean bi bakarrak dituela ezik, funtsezko eskema fixoan behintzat, nahiz-eta han eta hemen hoskidetzaren bat gertatu. Antzeko eskema lehen ere aipatu dugu, baina *Mendi-gaiña* deituriko hartan 7 -/7 -/7 -/6 A//7 -/7 -/7 -/6 A egiten zuten.
- Hirugarrena onomatopeiaz eginik dago, ibiltarien oin-hotsa eta bihozaren taupadak txaplastan antzatur.
- Idazteko ahalbideei gagozkielarik, berriro ere Lizardik estrofismo libreagoa hartzen digu, bi errimatik goragoko konbinaketei ihes eginez. Konta-poesiarako joko ederra duen moldea bereizten du.

12.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiraturaz:

A eredia, 2, % 13,33
B eredia, 1, % 06,66
C eredia, 9, % 60,00
D eredia, 3, % 20,00

Aliteraziorik dagoen:

- Badu gauza nabarmenik, hala nola: IRu di mENEAN/IRe ba rrENEAN (12, 85-89 b-l.); gor pUtz ximur mAI TE/ e gUn aun di rAr TE (12, 121-123 b-l.).
- Urrunxeagoko hoskidetzak ere nonahi aurki daitezke.
- Badirudi puntuak aberatsago direla hemen, eta aliterazioak ez hain nabariak.

13. ZUAITZ ETZANA

13.1. Eskema metrikoa

Zuaitz bat, urtezua, lurrera botea...	13	A
Zarra izanagatik bazun ark osasun bete!	15	A
Ondoan orra agiri, zornak ezotua,	13	B
aizkora ankerraren ebaki sarri-berritua.	13	B

(13, 1)

13.2. Puntuak

/lu	/rre	/ra	/Bo	/TE	/A	/
/o	/sa	/sun	/Be	/TE	/A	/
/zor	/nak	/E	/zo	/TU	/A	/
/sa	/rri	/bE	/rri	/TU	/A	/
/be	/a	/rrez	/au	/tSI	/AK	/
/rra	/tu	/an	/yo	/SI	/AK	/
/ga	/ñe	/rOn	/tze	/KO	/AK	/
/ze	/ru	/kO	/yain	/KO	/AK	/
/a	/goz	/kit	/i	/xI	/lIK	/
/bu	/ru	/a	/gel	/dI	/rIK	/
/aI	/Ze	/A	/ziN	/ku	/rUZ	/
/I	/Zu	/A	/reN	/i	/zUZ	/ (13, 1-3)

13.3. Azterketak

13.3.1. Estrofaen ezaugarriak

- Lehen bertso-lerroa molde txikikoa da: zazpi silabako librea eta sei silabako errimaduna. Eta bigarrena molde klasikokoa: zortzi silabako bertso-lerroa librea eta zazpikoa errimaduna. Bi molde, beraz, nahasian doazenak, eta errimak pareka jarriak.
- Erritmo berria gertatzen da, eta idazteko ahalbideak ere arretagarriak: 13 eta 15 silabako esaldiak puntutik puntura. Monotoniaren haustura dakar.

13.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

A eredia,	3, % 10,71
B eredia,	6, % 21,42
C eredia,	15, % 53,57
D eredia,	2, % 07,14
E eredia,	2, % 07,14

Aliteraziorik dagoen:

- Urrutiago gelditzen dira, lerroz-lerro egitura monorritmoa hausten denez.
- Aliterazioz baino errimaz areago egiten du Lizardik hemen hoskide-tza.

14. BIZIA LO

14.1. Eskema metrikoa

Egur ezearen kea	8	—
goiak du kolore:	6	A
egunaren atariruntz	8	—
zauri bat, gordiña,	6	—
odol-bearrean urre.	8	A
	(14, 1)	

14.2. Puntuak

/go	/iAk	/du	/ko	/lo	/RE	/
/be	/A	/rre	/an	/u	/RRE	/
/ton	/to	/rrak	/e	/lu	/RREZ	/
/a	/me	/tsez	/koon	/tzi	/EZ	/(14, 1)

14.3. Azterketak

14.3.1. Estrofen ezaugarriak

- Silaben kopurua gordetzen badu ere, 6 eta 8 silabako bertso-lerroak beti, behin izan ezik, gero libreak gertatzen dira, bai hauen arteko konbinaketak (batzutan 8/6 eta beste batzutan 6/6/6 edota 8/8/8 eta abar); eta librea estrofen luze-zabala.
- Gero, silaba bereko bertso-lerroak batzutan errima gabeak dira, eta beste batzutan errimadunak. Horregatik urruti dago ohizko bertso neurtuen higidura erritmikotik.
- Askatasun honek idazteko posibilitateak eskuratzen dizkio, loturak hain hestuak ez direnez.
- Errima gehienak pareatuak dira; eta hala ez diren gutxietan, (hiru gutzitara), bata atzizki hutsez osatua.

14.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

A eredia, 2, %	20,00
B eredia, 4, %	40,00
C eredia, 1, %	10,00
D eredia, 2, %	20,00
E eredia, 1, %	10,00

Aliteraziorik dagoen:

Erritmo desberdineko bertso-lerroak errenko doazenean zailago egiten dira horrelako hoskidetzak; egon badaude, ordea, silaba berdinetako bertso-lerroak errenko datozenean, baina ez asko.

15. SAGAR-LORE**15. 1. Eskema metrika**

Anitz egunez, ez gera alaitu	10	A
lurtarrok. Goien sar egin baitu	10	A
Euri'k Eguzki giltzapean;	9	B
yaun orail eder, legorteen aita,	10	C
katez loturik egona baita	10	C
odei bustien sabelean.	9	B
(15, 1)		

15.2. Puntuak

/ez	/gE	/raa	/IAI	/TU	/
/sar	/E	/gin	/bAI	/TU	/
	/gil	/tza	/pE	/AN	/
	/sa	/be	/IE	/AN	/
/IE	/GO ^r	/teen	/AI	/TA	/
/E	/GO	/na	/bAI	/TA	/
/tAR	/tE	/kAur	/dI	/ÑA	/
/IA	/RrE	/rA	/mI	/ÑA	/
	/meN	/di	/aL	/DI	/
	/No	/an	/geL	/DI	/
/ar	/giz	/bE	/GI	/OK	/
/lo	/tu	/E	/GI	/OK	/
/zeiN	/gi	/roi	/zA	/KI	/
/da	/Nentz	/e	/bA	/KI	/
	/u	/da	/bE	/RRI	/
	/aal	/i	/gE	/RRI	/
/gain	/bee	/ra	/mAL	/DAN	/
/e	/lur	/ez	/AL	/DAN	/ (15, 1-3)

15.3. Azterketak

15.3.1. Estrofaen ezaugarriak

- Konbinaketa berria eta arretagarria. Bertso-lerroak errimadunak denak; eta hoskidetza 1-2, 4-5 eta 3-6 egiten dela; eta azken bertso-lerro hauek silaba bat gutxiago dutelarik.
- Idazterakoan eskaintzen dituen ahalbideak ez dira zabalak, 10 eta 9 silaba errimatik errimara; baina hiru puntu edukitzea arnas haundiko moldea izan daiteke, pentsamenduaren erritmoa eraskotakoa bihurtuz.

15.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

A eredia,	1,	% 02,77
B eredia,	3,	% 08,33
C eredia,	10,	% 27,77
D eredia,	15,	% 41,66
E eredia,	2,	% 05,55
F eredia,	5,	% 13,88

Aliteraziorik dagoen:

- Hirutatik bat baino gehiagok daramate errimaz haruntzagoko hoskidetza nabaria.
- Bestalde, poema hau berau dugu aberatsena errimen aldetik ere, erdiak baino gehiagok lexema desberdinen azken-aurreko silabatik hasiz egiten dutenez hoskidetza, bertsogintzarik aberatsenetan bezala.
- Ohar, baita, bi errima desberdin baino gehiago ez duela hemen ere Lizardik erabiltzen.

16. BASO ITZAL

16.1. Eskema metrikoak

— *Ohizkoa:*

Urrun duk, sagasti berri, lorea.	11	A
Arizti, urrunago elurtea	11	A
(16, 1)		

— *Salbuespen 1:*

Itzal, Baso'ren ume yaukal,	9	A
xaloagorik ezin aal:	8	A
beltxeran, begi bai azal:	8	A
Itzal!...	2	A
Itzal!...	2	A

(16, 47-47 b-l.)

— *Salbuespen 2:*

Atsedena eliz, zutoiz bete,	11	A
ostopillo ta izar izunak abe:	11	A
ta i bertan oianeko yaupaleme...	11	A
(16, 54–56 b-l.)		

16.2. Puntuak

	/be	/rri	/Lo	/RE	/A/	
	/go	/e	/LuR	/tE	/A/	
/zu	/du	/Gui	/GuZ	/kI	/A/	
	/ta	/Go	/Ge	/ZI	/A/	
	/sA	/koN	/As	/KI	/AK/	
	/A	/reN	/Ar	/GI	/AK/	
	/Au	/e	/gu	/er	/DI/	
	/tAa	/ba	/ro	/al	/DI/	
	/i	/bil	/eR	/tzE	/TAN /	
	/da	/go	/lo	/RE	/TAN /	
	/An	/go	/mAr	/mA	/RRA /	
	/Ai	/ze	/Ak	/gA	/RRA /	
	/be	/roz	/e	/ze	/zIK/	
	/yo	/ta	/naa	/si	/rIK/	(16, 1–14 b-l.)

16.3. Azterketak**16.3.1. Estrofaren ezaugarriak**

- Bi zati izan ezik poema distikotan doa, hamaika silabako bertso-lerro errimadunak eginez.
- Estrofa jakinik errepikatzen ez denez, pentsamenduaren erritmoa libreki garatzen da.
- Askatasunaren amorez, neurkeran bi salbuespen ezartzen dizkigu: bata, itzal hitzarekin jokatzeko edo (43–47 b-l.); eta bestea, distikoa egin beharrean hirukoa egiten digu, aberasgarri (54–56 b-l.).

16.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratu:

A eredia,	2,	% 06,45
B eredia,	12,	% 38,70
C eredia,	9,	% 29,03
D eredia,	3,	% 09,67
E eredia,	1,	% 03,22
F eredia,	4,	% 12,90

Aliteraziorik dagoen:

- Ez dirudi sistematikoki egina, baina ia ahapaldien erdietan horrelako hoskidetzak datoz: sAkoN AskIAK/AreN ArgIAK (5-6 b-l.); Ango mArmARRA/AizeAk gARRA (10-11 b-l.); bAIItAAGIrI/zuAIItzAk GeldI (31-32 b-l.); aTeRPEAn zAI/beTaRTE ArrAI (41-42 b-l.); eta abar.
- Erdiak baino gehiago puntu aberatsekoak ditugu, eta aliteraziorako joera nabaria du.

17. ONDAR GORRI

17.1. Eskema metrikoak

— *Distikoak*: aurrekoan bezala.

— *Errima bereko multzo luzeagoak*:

Uda—suzko itsaso—baitut ibilli	11	A
gerizpe atsegin bat nuela untzi,	11	A
ondoaz legorra yo dit emeki:	11	A
ondarreta bat du, soil eta gorri.	11	A
(17, 1-4 b-l.)		

— *Salbuespen 1*:

noizbait orlegi, gaur nabar basoa;	11	A
tarteka gorri garoa	8	A
(17, 29-30 b-l.)		

— *Salbuespen 2*:

Adiskide Urretxindor il zaizute,	11	A
ta aren ilkizunetara	8	B
—egoak ikara—	6	B
berandu beldurrak al-zaramate?	11	A
(17, 43-46 b-l.)		

17.2. Puntuak

/BAi	/tUt	/i	/bi	/lII	/
/BAt	/nU	/e	/laun	/tzI	/
/yO	/dit	/e	/me	/kI	/
/sOil	/e	/ta	/go	/rrI	/(17, 1)

17.3. Azterketak

17.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Distikoei buruz aurrekoan esandakoak hemen ere baliagarri zaizkigu.
- Aurrekoarekin erkatuz, lehenengo berezikuntza zera da: bost ahapaldi badaudela lau edota sei errima berdinekin eginak.
- Bigarren berezikuntza, bertso-lerroen errimen hoskidetza gurutzaturik doala, ABBA eta ABAB eginez, bakoitza bi aldiz bakarrik.
- Hirugarren berezikuntza hausturetan legoke: zortzi silabako bertso-lerro bat tartekatzen du (30 b-l.); gero, 8 eta 7 silabakoa (44-45 b-l.); bada 6/5/6/5 silabako estrofa bat ere (47-50 b-l.); eta azkenik, zortzi silabakoak (60, 62 eta 68 b-l.). Askatasunaren ezaugarri litzateke hausturak egiteko joera hau, erizpide estetikoek eskaturiko askatasunarena.

17.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

A eredia,	2,	% 06,89
B eredia,	9,	% 31,03
C eredia,	11,	% 37,93
D eredia,	6,	% 20,68
F eredia,	1,	% 03,44

Aliteraziorik dagoen:

Aurrekoaren antzera, baina ahapaldi luzeagoak edukitzean, eta distikoei ez direnean, ezkuta daiteke hoskidetzarako joera.

18. EUSKO-BIDAZTIARENA

18.1. Eskema metrikoa

Aberriaren abots ezta,	10	A
gogamenaren ezkon xuria:	10	A
ekatzan esku guria,	8	A
atorkit geldi-geldia,	8	A
uztagun, aldikoz, Euskalerria.	10	A
(18, 1)		

18.2. Puntuak

/a	/bOts	/ez	/tI	/A/
/EZ	/KOn	/xu	/RI	/A/
/ES	/Ku	/gU	/RI	/A/
/gEl	/di	/GEl	/dI	/A/
/Eus	/Kal	/E	/RRI	/A/

/Min /tZO /Yo /RI /A /
 /ga /rOZ /YAn /TzI /A /
 /rE /tik /ez /TI /A /
 /Eus /kaL /mA /mI /A /
 /o /Ler /kA /RI /A /

/go /go /bA /LE /dI /
 /bE /ZIN /gAr /tsu /KI /
 /A /ZAl /tA /ma /mI /
 /A /reN /o /LEr /KI /
 /lEn /bAlIt /len /bE /gI / (18, 1-3)

18.3. Azterketak

18.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Lehenengoz hemen dugu bost errimako estrofa. Nahiz-eta bertso-le-
 rroak ezagunak zaizkigun, konbinaketa berria egiten dute poema ho-
 netan.
- Idazteko ahalbideak asko zailtzen dira, batez ere zortzi silabako ber-
 tso-leerro errimadunetan; eta bost errimaz baliatu beharrak ere zailta-
 suna areagotzen du.

18.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

B eredia, 7, % 46,66
 C eredia, 6, % 40,00
 D eredia, 2, % 13,33

Aliteraziorik dagoen:

- Hirutatik bik aliterazio aberatsa daramate; eta denetan nabari da nole-
 rebaiteko hoskidetza.
- Berriro ere, errimen aberastasuna eta aliterazioak elkarrekin datoz.

19. ASABA ZAARREN BARATZA

19.1. Eskema metrikoa

Asaba zaarren baratza,	8	-
untzadun ormek esia,	8	-
eguzkiak leen maitea...	8	A
Otzaldi zoro baten itzuli,	10	-
yoka nagokik atea.	8	A
(19, 1)		

19.2. Puntuak

/ e	/ guz	/ ki	/ ak	/ leen	/ mAi	/ TE	/ A /
/ yo	/ ka	/ na	/ go	/ kik	/ A	/ TE	/ A /
/ eu	/ rI	/ zaa	/ rrEk	/ us	/ tel	/ DU	/ A /
/ dir	/ daI	/ tsu	/ Ez	/ a	/ pain	/ DU	/ A /
/ de	/ a	/ dar	/ ka	/ ri	/ yA	/ iO	/ a /
/ bi	/ zi	/ o	/ te	/ dut	/ ga	/ xO	/ A /

(19, 1-3)

19.3. Azterketak**19.3.1. Estrofaren ezaugarriak**

- Hasieran zortzi silabakoak errenko, koplak luzeak bezala, baina lehenengo biak ez dira errimadunak koplak luzean hala diren bezala. Horregatik, aipagarria da autoreari molde honek eskaintzen dion idazteko askatasuna.
- Bigarren aldean, errematean, koplak bezala: 10 silabako librea, eta gero zortzi silabako errimaduna.
- Beraz koplaren bidetik doa; baina lehen partean idazteko posibilitateak azkartuz, luzatuz.

19.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

A eredia, 1, % 04,76
B eredia, 6, % 28,57
C eredia, 8, % 38,09
D eredia, 7, % 33,33

Aliteraziorik dagoen:

Aurkitzen diren hoskidetzak ez dira nabariak; ez dirudite sistemaz edo hoskidetza bereziaz ezarriak.

20. IZOTZ-ONDOKO IGUZKI**20.1. Eskema metrikoa**

Izotz-ondoko iguzki	7 -
neguaren parre:	6 A
olerkariak noizpait	7 -
iri goratzarre.	6 A
Emeki duk itxaroz	7 -
piztu garai-larre:	6 A
udaberrilamiak	7 -
larreon batzarre.	6 A

(20, 1)

20.2. Puntuak

/ne /gU /A /Ren /pA /RRE /
 /I /ri /GO /Ra /TZA /RRE /
 /pIz /tu /Ga /RAi /lA /RRE /
 /la /rre /On /bA /TZA /RRE /

/I /ZoZ /tu /tAu /TZI /AZ /
 /u /RReZ /Ko /yAn /TZI /AZ /
 /i /RRI /Ka /bi /ZI /AZ /
 /ez /tI /be /re /ZI /AZ / (20, 1-2)

20.3. Azterketak

20.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Molde du zortziko txikia; eta berau bakarra da bertsoaritzaren moldearik Lizardik erabiltzen duena liburu honetan.
- Hala ere, abestuz gero, laister usma daitezke bertsoaritzarekin dituen desberdintasunak: hitz konposatu ez-ohizkoak, hiperbatonak, eta egitura sintaktikoa eta multzo erritmikoa elkarri ez egokitzea eta abar.
- Idazteko ahalbideak 13 silaba errimatik errimara, puntuak ugaritzeak dakarren bereizkuntza guztiakin, batez ere monotoniaren arriskua, formen barrokismoa eta abar.

20.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiraturaz:

B eredu, 2, % 16,66
 C eredu, 6, % 50,00
 D eredu, 4, % 33,33

Aliteraziorik dagoen:

- Aliterazioak gutxiago ditu; eta areagotu egiten digu errimen aberastasuna.
- Alderdi honetatik, gehiago hurbiltzen zaio kantutegiari beste poemetan baino, gorago aipaturiko bereizkuntzak barne.

21. GURE MINTZO

21.1. Eskema metrikoa

Nerekin yaio nun abesmiña,	10 A
ta aurtandik min ori dut izan samiña.:	12 A
Kanta nai, nai alper: mintzoa	9 B
peitu, miñak bear-eztigai gozoa!	12 B

(21, 1)

21.2. Puntuak

	/nun	/A	/beS	/MI	/ÑA	/
/dut	/i	/zAn	/Sa	/MI	/ÑA	/
	/al	/per	/min	/TZO	/A	/
/ez	/ti	/gai	/go	/ZO	/A	/
	/gu	/Ri	/be	/rE	/XA	/
/e	/zin	/soR	/a	/bE	/SA	/
	/o	/iu	/bAi	/II	/TZAN	/
/i	/zui	/ka	/rA	/nIn	/TZAN	/
	/du	/guN	/gi	/zO	/NA	/
/lur	/pe	/aN	/da	/gO	/NA	/
	/A	/ren	/i	/zE	/NA	/
/gu	/yAn	/tzi	/a	/rE	/NA	/ (21, 1-3)

21.3. Azterketak

21.3.1. Estrofaren ezaugarriak

- Bertso-lerro hauek lehenago ere erabiliak ditu, baina ez konbinaketa horretan. Eta estrofa berria gertatzen da.
- Etenaldiek erritmo desberdina daramate: bost eta bost (5+5), hamar silabakoek; sei eta sei (6+6) hamabi silabakoek; lau eta bost (4+5) bederatzi silabakoek.
- Errimak binaka hoskidetzen ditu AABB eginez, berriro ere bi puntu-koak egiteko isuria agertzen digula Lizardik.
- Monotoniaren etsai agertzen zaigu autoreoa.

21.3.2. Puntuak

Hoskidetza nondik hasten den begiratzuz:

A eredia,	2, % 07,69
B eredia,	5, % 19,23
C eredia,	10, % 38,46
D eredia,	6, % 23,07
E eredia,	2, % 07,69
F eredia,	1, % 03,84

Aliteraziorik dagoen:

- Erritmoa aldatzeak hoskidetza urrunagotzea dakar.
- Hala ere aurki daitezke zenbait letraren hoskidetzak, batez ere errimaren hots-jora ezarriak.

III. ONDORIO OROKORRAK

Eskemen eta puntuen aurkezpena eta azterketa egin ondoren, Lizardik arlo horietan erakusten digun jokabide estetikoak nahi genduz azaldu, hari nagusien nondik-norakoa zehaztuz.

1. ESTROFEN EGITURAK

1.1. Molde txikia

		7-	7-	7-
7-		7-	6-	6 A
7-	7-	7-	7-	7-
6 A	6 A	6 A	6 A	6 A
		7-	7-	7-
7-		7-	6-	6 A
7-	7-	7-	7-	7-
6 A	6 A	6 A	6 A	6 A

Errenko emanik, eredu hauek ditugu: 2, 3a eta 7, 3b, 12b eta 20 olerkiak.

1.2. Molde nagusia

10	-
8	A
10	-
8	A

Eredu bakarra dugu, 4 olerkia.

1.3. Molde berdina

12 A	11 A	11 A
12 A	11 A	11 A
		11 A
		11 A

Errenko emanik, eredu hauek ditugu: 11a, 16, eta 17a olerkiak.

1.4. Kopla

8	-
8	-
8	A
10	-
8	A

Eredu bakarra, 19 olerkia.

1.5. Hamalaukoa

Eredu bakarra, 1 olerkia.

1.6. Klasikoa eta txikia nahasian

13 A	8-	7 A
15 A	6 A	6 B
13 B	8-	6 C
13 B	6-	7 A
	8 A	7 B
		13 C

Errenko emanik, 13, 14 eta 9 olerkiak dira.

1.7. Nagusia eta berdina nahasian

10	-
10	A
10	-
10	A

Eredu bakarra, 12a olerkia.

1.8. Molde berdina errimak gurutzatuz

6 A	12 A
6 B	12 B
6 A	12 B
6 B	12 A

Errenko emanik, 10 eta 11b olerkiak.

1.9. Molde bereziak

8 A	5+	8 A	7-	10 A	11 A	10 A	10 A	4-
5+8 B		8 B	5 A	12 A	8 B	10 A	10 A	7 A
8 B		11 B	7-	9 B	7 B	8 A	9 B	4-
11 A		8 A	7-	12 B	11 A	8 A	10 C	7 A
			3 A			10 A	10 C	
							9 B	

Errenko emanik, hauek dira: 5a, 5b, 6, 21, 17b, 18, 15 eta 8 olerkiak.

2. ESTROFEI BURUZKO OHARRAK

2.1. Poema guztien garapenean metrika desberdina erabiltzen du beti Lizardik, 3 garren olerkiko errepika bakar baten salbuespen llaburra izan ezik. Beraz, autorearentzat poema baten karaktere

rizaziorako funtsezko balio estetikoak hartzen du estrofaren eske-
ma metrikoak, polimetrizale agertzen zaigaririk.

2.2. Errimak bi puntukoak egiten ditu beti Lizardik, bi poe-
man izan ezik: 15 eta 20 garrenetan. Beraz, 3, 4 eta 5 errimako es-
trofei ia beti ihes egite honen arabera, autoreak bigarren mailan
ezarririk dauka polirrimiaren balio estetikoak.

2.3. Konbinaketa metrikoak aukeratzekoan, oso maiteak ditu
molde txikiko eta molde berdineko multzoak; baina behin baka-
rrik darabil molde nagusia soil-soilik. Beraz, hemistikio laburrek
lehentasuna dute Lizardiren estrofagintzan, hamar silaba dituen
errimarik gabeko bertso-lerroari arreta estetikorik jartzen ez diola.

2.4. Molde desberdinak nahastuz, errimak gurutzatuz eta akata-
lektikoak katalektiko eginez, molde ez-ohituak eta konbinaketa
berriak ia matematikoki asmatuz, eraikirik dauzka 13 poema. Be-
raz, estrofa isosilabikoen erritmo berdina haustea baliabide maiz
erabilia da izan haren hitz neurtuzko ederkeran.

2.5. Estrofaren idazteko posibilitateei bagagozkio, ikusten dugu
Lizardik estrofa oso llaburra erabiltzen duela armonia imitatibora-
ko; llaburra, kontaera, idilio-antza eta lirika finerako; luzea, gai
sakonetarako. Beraz, autoreak sentiberatasun estetiko nabaria du
tradizioz datorkigun molde metrikoen erabilerari jarraitzeko, ge-
nero bakoitzari bere neurkera ezarri.

3. PUNTUEN ARLOA

3.1. Errimen batez-besteak

A eredia: %	8,59
B eredia: %	30,01
C eredia: %	36,18
D eredia: %	18,18
E eredia: %	4,81
F eredia: %	2,28

3.2. Aliterazioak puntuen hoskidetza-barruan

- Inoiz lekurik ez dago aliteraziorako: 6 olerkia.
- Beste batzutan, hots-jo urria: 1 olerkia.

- Gero hemistikio paraleloen hots-jo bera dago: 2, 3, 4, 7, 8, 10, 12, 18, 19 eta 20 olerkiak.
- Anisosilabikoen hoskidetza erritmiko zailagoa dutenak: 5, 9 olerkiak.
- Etenaldiaren aurreko partean hoskidetza zailagoa dutenak: 11, 13, 16, 17 eta 21.
- Molde desberdineko hemistikioen erabilera libreak dakarren hoskidetza zailagoa: 14 olerkia.
- Hoskidetza ugaria eta aliterazioak abundo: 15 olerkia.

4. PUNTUEI BURUZKO OHARRAK

4.1. Atzizki edota morfema berdinez eginiko errimak % 8,59. Beraz, errima-mota hau ontzat ematen duenez gero, ez zaigu estilista bete agertzen puntu honetan.

4.2. Gero, hirutatik bi B eta C eredu osaturik dago, lexema desberdinen azken silabatik pasatzen ez dela hoskidetza. Beraz, C eredu nahiko aberats gertatzen bada ere, eta proportzio ederrean etorri (% 36,18), Lizardik lautatik bat bakarra lantzen du estilista zehatzek egingo luketen neurrian.

4.3. Poemen erdietan baino gehiago hoskidetza nabaria agertzen da Lizardiren estrofagintzan. Beraz, errimaz atzeragoko hoskide-tzak badirudi osatu egiten duela bete-beteko errimen hutsunea, erizpide estetikoaren garrantzia errima onean eta aliterazioan jartzen duela, bata bestearen osagarri.

* * *

Honetan gelditzen da oraingoz gure ekarria. Hartu dugun eremuari buruzko datuak bildu ditugu, zenbatu, eta hauetatik atera daitezkeen ondorio zehatzak atera. Datuen interpretaziorako eta Lizardik zergatik horrela jokatu zuen jakiteko, erizpide historiko-kulturaleraz baliatu beharko genuke; baina ez zen hori gure arloa. Hala ere, eskaini ditugun datuak interesgarri gerta daitezke, antzeko lanak beste autoreei buruz egin ondoren, gure olerkarien estrofagintza zer-nolakoa den zehatzago finka dezagun.

J.M.L.

LOS ESQUEMAS METRICOS Y LOS «PUNTOS» DE LIZARDI
LES SCHEMAS METRIQUES ET LES «RIMES» (=puntuak) DE LIZARDI

*El artículo, en su introducción, se refiere a las dificultades generales y específicas para llevar a cabo la presente investigación. Justifica el haberse ceñido a la obra **Biotz-begietan olerkiak**. Ofrece el significado de «puntuak», distinto de rima. Fija los seis modelos de «puntuak» que le permitirán su clasificación y cuantificación.*

A continuación el autor emprende el estudio detallado de cada uno de los poemas, indicando el tipo de estrofa y de «puntuak», añadiendo oportunas anotaciones de carácter técnico y literario. Constituye la parte más amplia e importante del artículo.

Después de esta investigación exhaustiva se deducen los porcentajes globales tanto sobre las diversas formas de estrofa como de «puntuak». A continuación el autor interpreta esos datos cuantitativos como signo de los principios estéticos que prefieren seguir Lizardi.

L'article se réfère dans son introduction aux difficultés générales et spécifiques rencontrées pour mener à bien la présente étude. L'auteur explique ensuite les raisons pour lesquelles il s'est limité à l'oeuvre **Biotz-begietan olerkiak**. Il donne la signification de «puntuak», différente de celle de rime et fixe les six modèles de «puntuak» qui lui permettront de les classer et de les dénombrer.

Puis l'auteur entreprend l'étude détaillée de chacun des poèmes, en indiquant le genre de strophe et de «puntuak» et en ajoutant les annotations pertinentes du point de vue technique et littéraire. Cette étude constitue la partie la plus étendue et la plus importante de l'article.

Après cette analyse exhaustive, l'auteur déduit les pourcentages globaux sur les différents genres de strophes et les différents «puntuak».

Pour finir, il interprète ces données quantitatives comme étant le signe des principes esthétiques préférés de Lizardi.

LIZARDIren BIDE MODERNOAK

Anjel Lertxundi

Lizardiren aztarna literarioak arakatu nahiak sorrarazi du dagoeneko idazlan, eztabaida ezkutu eta intuizio-jario bat baino gehiago. Guzti hau bildu beharko bagenu, Lizardiren modernotasunari buruzko galdera geratuko litzaiguke, honako galderon inguruan ibili beharko dugularik:

- Izan al zuen Lizardik kanpoko aztarnarik?
- Baiezkotan, aztarna horiek modernoak ala klasikoak dira?
- Modernoak liratekeen kasuan, non oinarrituko litzateke nagusiki modernotasun hori?

Galdera pedagogiko hauen helburua ez da lanà nolabait razionalizatu nahi izatea besterik, jakinaren gainean ez diegula —ezin diegula— galderoi erabat erantzun. Hala ere, nahiz erantzun ezinaren arrazoiak, edo ematen saiatuko garen pistak, hala nola uste dugunaren zenbait argibide, lanaren zehar eskaintzen ahaleginduko gara.

Koldo Mitxelenak «es extraño que su poesía sea personal hasta el punto de que resulta difícil señalar influencias en su obra; bien es verdad que falta un estudio crítico detenido en ella»¹ dioenean, arazo bat planteatzen ari zaigu: Lizardiren obraren pertsonalitatea; baina nortasun hori «isla» izatetik al datorkio, arakatzea zaila zaion influentzia horrek, besterik gabe, influentzi eza adierazten al du? Ezezkotan gaude.

Arazoa beste bat dela deritzagu: Lizardik, bere garaia arteko olerkaritza kontutan izanik, «bide berriak» urratu behar zituela ikusirik, alde batetik kanpoko esperientziak hartu beharko ditu kontutan, eta, bestetik, hemengo egoerara taxutu. Sintesi-lana egin. Sintetizatzailea dugu Lizardi, handik eta hemendik jasotzen dituen argi-izpien egokitzaille, geroago ikusiko dugunez. Ez da, zentzu honetan, Lauaxetaren parera iristen. Lizardik zubitzat jokatu beharko du aurreko tradizioaren eta belaunaldi berrien —Lauaxetaren— artean, honela Lauaxetak bide propioagoak, identifikatuagoak jorratzeko aukera izango duelarik. Garbi bait dago literaturaren historian zehar sintetizatzaile bezala jokatu behar izan dutenek —Goethez oroitzen gara— kontraesanak, noraezak, aurrera-atzerakadak izan dituztela. Lizardirenean ere garbi dago hau, haren obra poetikoaren garapenari begiratuz gero: oreka gutxiko garapena, guztiz taxuturiko poema borobilen pareko poema pitzatuagoak, zalantzak, aurrerakada haundien ondorengo atzera pausuak... Bilakaera baten egonezina, tradizioarekin erabat apurtzea arriskutsuegia ikusten duenaren etengabeko beldur urduria.

NEURKERAK ETA BESTE

Sabino Aranak lehendabizi, Aitzol eta belaunaldi interesgarri hark ondoren, izan zuten euskal olerkigintza aztertzeko eta arakatzeko desiorik. Sabino Arana Goirik «Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino»² argitaratzen duenean, euskal neurkeraren prezeptiba bat antolatu nahi du. Patxi Altunak garbi adierazten duen bezala³, ez du Sabino Aranak, geroago Lekuona, Leizaola edo Goikoetxeak egingo duten bezala, euskal bertsoak «nola neurtzen diren» erabaki nahi, «nola neurtu behar liratekeen» baizik. Prezeptibaren planteamendu horretan Sabino Aranak proposatzen dituen

bideak —sinalefaren auzian, batipat— Oihenart—enekin parekatu behar ditugu, nahiz Arana Oihenart baino «moderatuagoa» izan, Patxi Altunaren hitzetan.

Lizardiren bidea, Sabino Aranak proposatzen duena da; ez du Lizardik Manuel Lekuonaren *Literatura oral vasca* ezagutuko (ezagutu izan balu ere, ez zatekeen hura Lizardiren egarría asetzeko modukoa) eta Oihenart ezagutuko du Aranaren bidetik, Lauaxetak ere ezagutu zuen bezalaxe.

Ezinbestekoa da galdera. Nondik XX. mendeko poeta disdiratsu baten Oihenart bezalako poeta «estrainio», barroko, zail eta, aldi berean edo horregatixe, baztergarria bereganatzeko beharra? Aukera horretan badira lotura eta ahaidetasunak, lotura eta ahaidetasunak ere badiren bezala Espainiako 27ko belaunaldikoek Góngora gidari bezala hautatzen dutenean. Bi erreibindikapen kointzidenteen arrazoia, estetikoa da. Ekintza poetikoaren misterioa, musikalitatea, zentzu elitista erreibindikatzeko dira.

Kointzidentzia hau —ez hainbeste kointzidentzia, estetika berdintsuen iturriek derrigortua baizik, Lauaxetak expreski aipatzen bait du Oihenart—⁴, garrantzitsua dugu eta baita konparagarria ere Lizardi eta Oihenart—en artean.

Euskarari ezaguna zaion bertso laburretarako zailtasuna kontutan izanik, Oihenart—ek, estetika barrokoaren zurrumbiloan, aditz trinkoa, inoiz euskaraz gertatu ez den bezala sintaxia bortxatuko duen hiperbatona, konposaketa—sistema berezia, sinalefen erabilkera gogorra, lexiko zehatza bezain «garbia» erabiliko ditu bere *0. ten gaztaroa neurthizetan* deituriko poemarioan. Era berean jokatuko du Lizardik ere, euskaldungoak erabiltzen ez zuen aditz trinkoa (dama, dagert, dantzut, dadat...), hiperbatona (ez Oihenart—ek bezain modu gordinean), sinalefak (aipatua dugunez, Aranaren bidetik), euskalki guztietatik bilduriko lexikoa... bere poemagintzan inbolukratuz.

Eta Oihenart—ek jokatu zuen bezala, Lizardik ere euskal metro tradizionala aldatu, berritu eta modifikatuko du, oinarrian zortziko txikia litzatekeena itxuraldatuz eta beste erritmo berriak sortuz («Bizia lo»), zenbait metro desberdin erabiliz poema bat osa-

tzeko («Biotzean min dut»), poemaren egituraketa metriko berriak eskainiz («Aldakeri»)..

Aztarnei buruz mintzatzerakoan, erraz jotzen dugu kanpora, baina Oihenart-en pista garrantzitsua delakoan gaude. Eta, honekin batera, Lizardi-Lauaxeta/Oihenart, 27ko belaunaldia/Góngora gertakari sinkronikoak azpimarratu nahi ditugu, fenomeno hauek literaturgintzan kasualitatezkoak ez direla izaten adieraziz.

MULTZO FONIKOAK—MULTZO SEMANTIKOAK

Hala ere, neurkeraren auzi honetan bada besterik, eta ez genuke aurrera jo nahi arazo bat planteatu gabe. Klasiko batentzat ezi-nezkoa da multzo (unitate) fonikoa eta multzo semantikoa bereztea: Hemistikioaren edo lerro amaieraren geldiuene fonikoak ezinbestekoa du, prezeptiba klasikoan, multzo semantikoa gordetzea. Hala nola, urrutiegira joan gabe, Orixek:

Goizetik gauerdira / eguna luzatuz,
lonaia aizatzen dute / ipuiez ta kantuz./
Euskaldun ele-ederrak / urtero berrituz/
agoz-ago «omenka» / gerora bialduz./⁵

«/» bakoitzak geldiuene fonikoaren eta multzo semantikoaren batasuna agertzen digu, batasun hori hausten ez delarik inoiz.

Lizardik ere bi multzoen arteko identifikazioa sarritan —gehienetan— errespetatzen du. Baina haren poema garrantzitsuenetan, poeta ez da batasun hori haustera ikaratzen:

Nire Tabor—mendi: *nire*
baratz zaarraren antzalda...⁶

Fonikoki geldiuenea *nire*-ren ondorengoa da, baina *nire* horrek *baratz* hitzarekin du batasun semantikoa: geldiuenea eta semantika ez dira kointzidentek, *nire* horretan poetak geldiuenea agintzen digunean, indar berezia *nire* horri eskaini nahi diolarik.

Beste bi adibide aski izango dira:

Izotz-ondo. Neguak
parre eme. *Gizadi*
larria gaillurreruntz...⁷

Edo:

Ezpainak dardar, lepo-zaiñak *ler-*
bearrean, muinki dut estu nere eder...⁸

Kontutan har, bigarren adibidean izena+adjektiboa subjektu-multzoa hautsi badu, hirugarrenean gogorragoa dela haustura: gi-doi batez loturiko hitz konposatua (poetaren baitan, behintzat) hautsi digu zangalatrau bortitz baten bidez. Hemendik poesia askerako urratsa ez da oso luzea.

Hiru adibide hauek ez dute Lizardiren «ausardia»ren zerrenda agortzen. Eta, jakina denez, multzo foniko eta multzo semantiko-en arteko batasun hauen haustura sinbolismoak ekarri zuen (artean, zangalatraua gustorik gabeko lizentziazat jotzen zen, Boileau dixit), prosazko poesia posibilitatuko zuen beste zenbait lizentzia (?) ekarri zuen bezala.

GAIAREKIN BAT ERRITMOA ERE

Baina Lizardiren eskaintza metriko aberatsena, gai poetikoaren (trena, hileta...) erritmoa imitatzetik datorkigu. Elementu klasikoak kontutan izanik (homofonia eta neurkera silabikoa batipat), azentuekin jokaturaz, trenaren edo hiletako segizioaren erritmoak imitatuko dizkigu Lizardik, Ruben Darío-ren «Ya viene el cortejo» poema ezagunean, edo Verlaine-ren «Au rythme du wagon bruttelment» poeman bezalatsu. Ikus nola trenaren erritmo bizi bezain etengabea eskaintzen zaigun «Bultzi leiotik» poeman:

Oi lur, oi lur,
oi ene lur nerea,
oi goiz eme
parre gozoz ernea⁹.

Inoiz esan dugunez, eta Mikel Zaratek ere aztertu zuen arazo hau, Verlaine-ren poeman bezalaxe, ez da trena mugitzen ari dena, paisaia baizik, eta mugimendu azkar honek Verlaine-ri bere maitea gogorazten dion bezala, Lizardiri bere lurra, «beera-minez» utzi behar duen lurra gogorazten dio ¹⁰.

Antzekoa dugu «Biotzean min dut» poeman gertatzen dena ere, neurkera azkarren bidez hiletako segizioaren erritmo pausatua, minbera adierazi nahi zaigularik:

Ots,
ots,
bizion oiñok! ¹¹

Garbi adierazi bait zion Lizardi berak Lauaxetari, honen «Bide barriak» argitaratu ondorengo artikulu batean:

«Me parece evidente que si en algo ha de ser superior el verso lírico a la prosa, no será por lo que todo verso tiene de convencional, sino por lo que le ayude a extraer del lenguaje el máximo de sustancia expresiva» ¹².

Era honetan, neurkera-kontuak direla eta inguratu da Lizardi inoiz baino gehiagotan modernismoaren bideetara. Ba ote zerbait gehiago haren poemagintzan aztarnarik eskaintzen digunik?

BIDE BERRIAK

Badirudi orain arteko bidean, metrikari buruzkoan, gehiegi aritu garela. Metodologikoki jokatu nahi izan dugu horrela, xehe-tasan hauetatik estetika poetikora iritsi asmoz. Egia bait da XVII. mendera jo, Oihenart errekuperatu eta Lizardik gure metro tradizioaletatik etekin berriak atera nahi izan dizkiola olerkigintzari.

Baina bada besterik: Lizardik expreski adierazten digu «Bide berrien» alde dagoela, eta bide berriat jo behar dugu Oihenart-en errekuperaketa ere. Bide berrien arazo hori ez da, beraz, suposizioa. Eta Lizardik bide berriak planteatzen dituenean, maila askotan agertzen dizkigu. Hona hemen, labur eta Lizardiren ideo-

logia poetikoa kontutan hartuz, bide tradizionalen eta bide berrien arteko desberdintasunak ¹³:

	BIDE TRADIZIONALA	BIDE BERRIAK
Maila expresiboa	Epika (narrazio, desk.)	Lirismoa
Maila fonetikoa	Bertsolaritza,	Oihenart Bertsol. + Modernismoa
Maila semantikoa	Hizkera zuzena	Hizkera sinbolikoa
Hizkera poetikoa	Herrikoia	«Yakintza-egoek igoa»
Gaiak	Kostunbristak	Izpiritualak

Eskematikoki erakusten denaren inguruan aritu beharrik dagoenik ez dugu uste, baino garbi agertzen da Lizardik Bide Berriei buruz nahi zuena ordurarteko euskal tradizio erromantikoarekin haustea zela.

Beraz, ez dugu uste hainbestetan aipaturiko «Bide berriak?... Bide guztiak!» artikulua dioenean indar gehiago egin behar denik. Eta «berri» adjektibo horrek erdal itzulpen bikoitza du: «nuevo» eta «moderno», guk modernoaren parekotzat jotzen duela uste dugularik¹⁴. Begira bestela Lauaxetak Orixeri dioena: «Eundi bakoitzean nor klasiko?» Eta Lauaxeta beraren erantzuna: mende horren ezaugarriak hoberen sinbolizatzen dituen, mende bakoitzak bere literatura behar bait du¹⁵. Eta, dakigunez, Lauaxetak diotenari ez zaio «nuevo» deitzen, «moderno» baizik.

Gainera, ez letorke gaizki Lauaxetaren esaldi hura gogoratzea: «... erderaz «*minorias selectas*». Orren gurtzaille nauzu»¹⁶. Berrero ere sinbolismoaz mintzatu behar, mugimendu hau izan bait zen, erromantizismoaren populismoa baztertuz eta zokoratuz, elitearen garrantziaz mintzatu zena. Eta Lauaxetaren espresioak, bestetik, derrigorrez gogorarazi behar digu J. R. Jiménez-en «*inmensa minoría*» hura¹⁷.

Bide tradizionalarekin konparaturiko Lizardiren poetikagintzaren zenbait elementu eta Lizardiren poesigintzaren destinataria argi ditugu. Poesia liriko-izpirituala, molde berrietan emana, hizkera sinbolikoaz jantzia, «*yakintza-egoek igoa*»... Hau da obra. Irakurlegoa, berriz, badaki Lizardik urria duena, baina hau ez da poesigintzaren ondorio, poetikaren helburu eta abiapuntu baizik. Poesigintzaren ezinbesteko hautapen.

Poetika zeren bidez egin behar den aipatzen zaigunean, berriz, klasizisten arrazoia baztertu eta Lizardik bihotz-begiak aipatzen dizkigu bere obrari «*Biotz-begietan*» izena emanaz. Bihotza erromantizismotik datorkio, begiak (zentzumenak) sinbolismotik. Begi horiek ez dira begi soil, zentzumen guztiak baizik. Musikalitatea —entzumen— ere barne, honela sinbolistek —modernistek Espainian— Wagner imitatzeko zuten joerari atxekiz. Bien batasuna garbi ageri da Espainiako modernismoan, sinbolistek baztertu zuten bihotza —intuizioa— errekuperatuz. Eta, bide honetatik, Lizardiren poemarioaren atariko bertsoñoa:

Biotz-begietan zaitzadate sortu:
biotzenago batzuek; besteak
betsein-betseñotan... Biotz-gabe ta itsu,
nork, izan ere, bil olerti-loreak?¹⁸

Edo Lauaxetari aholkuak ematen dizkionean:

«Yo le aconsejaría, amigo mío, que se haga usted *todo corazón y ojos*, que apenas deja a la cabeza sino aquel cuidado, recomendado ya, de dar unidad y encauce a los elementos aportados por aquellos»¹⁹. (*Azpimarka gurea da*)

Guzti honen produktua obra literarioa denez, «*Arrats gorri*» poemako neskaxak goibela, nigarra eta izua sentitzen ditu eta

maiteak kontaturiko ipuinaz desagertzen zaizkio nahigabe guztiak:

Ipuin gazigoxoak izan dik aalmen:
orra gandua urra ta nabari lurmen...
Begi zabaletan irria nagusi:
giro-alda ain usurik ez dut ikusi!²⁰

Novalis-en «La poesía es la más absoluta y auténtica realidad» esaera bereganatuz, Lizardik idazten du:

Ez adi beldur, nere Maiteder:
baserriz landa nai aunat ager-
arazi, bazterrik-bazter,
arroki; ezpaitun ezer
lurbiran ederrik i bezain eder!²¹

Eta Maiteder horren zeregina, alde batetik, «ortzi oro ta egute oro/yaso, ikus ala, ta abes gozoro» da, hots, izadia kantagai; bestetik Maiteder apaindu dadila zernahitarako: «Agi gai adierazteko/gizaki guzien alderdi ta asmo». Gizonen burutazio eta nahiak, ezinak eta antsiak dira, bigarren mailan, poesigintzaren gai. Eta, azkenik, guzti hau agor baledi ere:

Ta, beeko gaiok agor-ezkeroz,
Iguzki'k ezin urtuzko egoz
(Ikar-ek ez bezelakoz)
goazeman zerura igoz,
izar urdiñetaraiñoako asmoz²².

Kantagaiak natura, gizona eta Jaungoikoa dira, beraz, eta poesiak jakin behar du sinestesi baten bidez Lizardik agertzen digun «izar urdinetara» igotzen²³.

Poetikagintza guzti hau ez da klasikoa. Definitzen ere zaila da, zenbait alderdi erromantiko, sinboliko eta modernista ageri baita da (inpresionista aipatu gabe, hau estetikan baino zenbait poematan —«Paris'ko txolarrea», «Biotzean min dut»...— ageriago da), baina zailtasun hori hasieran aipaturiko bide irekitze lanari, lur berriaren lehen jorrocketari zor zaio²⁴.

Guzti honen aurrean, galdera bat dago egiteke: Lizardik defi-

nitu digun ideologia poetiko hori nola gorpuztu da haren poemagintzan? Ausartuko ginateteke ez dela beti hain garbi mamitu esatera. Hau da, Lizardiri heziketa poetiko modernoa falta zaio, haren poesiaren garapenak argi agertzen duenez; autodidakta gisa ihardun zaigu ipini duen helburura iritsi asmoz, eta bide klasikoa —imajineriaren²⁵ aldetik batipat— etengabe ageri da poesian. Jorrratu gabe bait zegoen euskal olerkaritzan bide hori. Eta zuloak tapatze lan horretan aritu zen poetaren kontraesanak ulergarriak zaizkigu. Hain dago gertu guregandik!

A. L.

¹ MICHELENA, Luis: *Historia de la literatura vasca*, Editorial Minotauro, Madrid 1960, 147 or.

² ARANA GOIRI, Sabino: «Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino», in; *Obras completas*, Editorial Sabindiaf-Batza, Baiona 1965.

³ ALTUNA, F. M.: *Versificación de Dechepare; métrica y pronunciación*, Editorial Mensajero, Bilbo 1979, 91 or.

⁴ Datu hau Jon Kortazar-i zor diogu, gero agertuko diren *Euzkadi* aldizkariko Lizardi eta Lauaxetaren artikuluen erreferentziak bezala.

⁵ ORIXE: *Euskaldunak*, Auñamendi argitaletxea, Donostia 1972, 100 or.

⁶ LIZARDI, X.: *Olerkiak*, Erein argitaletxea. Donostia 1983, 197 or. Lizardiren poemien aipamen guztietarako edizio hau hartu dugu oinarritzat.

⁷ *Ibid*, 205 or.

⁸ *Ibid*, 209 or.

⁹ *Ibid*, 91 or.

¹⁰ Hemen aipatzen den honek ez du Lizardik Verlaine ezagutzen zuenik esan nahi, nahiz Lizardik frantsesez irakurtzen zuen. Uste dugunez, bide zeharka bada ere, Verlaine ezagutu zuen; Verlaine-ren zenbait aurkikunde, behintzat, iritsi bide zitzaion beste iturrietatik gure olerkariari.

Gainera, arazoa ez datza, zuzenean, kontu honetan. Verlaine, Leopardi (naturarekiko ikuspegia kontutan harturik, batez ere), Maragall kataluniarra (bide berdinetatik ari dira biak bakoitzaren poesigintza kostunbrista itxuraldatu nahirik), Baudelaire (beste artikulua batean ikusiko dugun Edertasunaren jaurerriaren ikuspegiaz), Novalis (estetikarekiko ikuspegietan), Dario eta Jiménez (hizkera poetikoaren bila-kaeran)... Noski, inguru-minguru poetiko honek badu zerikusirik Lizardirengan eta garrantzizkoa da lotura horren korapiloa askatzea.

Baina, hala ere, garrantzitsuena Lizardiren poetika definitzea dela deritzagu.

¹¹ LIZARDI, X.: *ibid*, 119 or.

¹² LIZARDI, X.: «Rumbos nuevos», in: *Euzkadi*, 1931 urteko abenduan.

¹³ Eskema hobegarria bada ere, bertan biltzen da, gure ustez, desberdintasunen hari nagusia.

¹⁴ Egia esan, expresio hori itzultzerakoan, Lizardik «Rumbos nuevos» bataiatzen du erdaraz, baina textuan dioguna mantentzen dugu. Gainera, «Rumbo» hitzak norabide baten beharra argi asko azaltzen digularik.

¹⁵ LAUAXETA: «Erantzuna», in: *Euzkadi*, 1932 urteko urriaren 20an. Datua konprobatu eta zabaldu nahi duenak jo dezake Jon Kortazar-ek prestatutako *Azalpenak* liburura, Labayru ikastegia, Bilbo 1982, 120 eta 130 or.

¹⁶ LAUAXETA: «Orreri, orreri!», in: *Euzkadi*, 1933 urteko azaroaren 16an.

¹⁷ Dena den, Lauaxetarengandik ez dago batere urruti Lizardi ere, aipaturiko «Bide berriak?... Bide guztiak!» artikuluan zera dioskunean: «Guk badakigu idazle errezak, olerkari errezak, gure aldean «publico» aundia dutena; gure bakartasunean otxan-otxan etsitzen degunezkerok, zer dala-ta zuek guri arrika?»

¹⁸ LIZARDI, X.: *ibid*, 15 or.

¹⁹ LIZARDI, X.: «Rumbos nuevos», in: *Euzkadi*, 1931 urteko abenduan.

²⁰ LIZARDI, X.: *Olerkiak*, 309 or.

²¹ LIZARDI, X.: *ibid*, 177 or.

²² LIZARDI, X.: *ibid*, 183 or.

²³ Bada Lizardiren poemagintzan sinbolismoak asmatu eta gorpuztu zuen sinestasiaren fenomeno gehiago; hona, berriro ere, Lizardiren «bide berri»en euskarara egokitze-lanaren lekukotza.

²⁴ Plano zinematografikoetan jokatzea litzateke Lizardiren joera inpresionista nabarmena. Ikus dezagun «Biotzean min dut» poemaren hasiera:

Lehen plano: etxeren irudia eskaintzen zaigu metonimia baten bidez; kaleak (etxeak) triste daudela agertzen zaigu:

Eguzkirik ez dute
leiotan zapiak;

Bigarren plano: kaleetan alaitasunik ez dagoela esan nahi zaigu:

aur-yolasik ez dago
gaur zure kalean.

Hirugarren plano: zabalagoa, zeru guztia hartzen duen:

Odeiek lits urratu.

Laugarren plano: Zerutik jaitsi, eta itsasoa erakutsiz:

Itsasoak orro.

Bosgarren plano: Ingurune guzti horretan, gizona (Planoen banaketaren ondoren, gizona kokatzearen jokabidea etengabea da Lizardirengan, «Bultzi leiotik» poeman ere berdin jokatzen du):

Gizadi bat geldirik.

Seigarren plano: Hiletaren segizioa hasiko da:

Gero, bat-batean:

Ots!

Ots!

bizion oiñok...

Jokabide berdina ikus genezake hurrengo bertsoan ere: 1/ Errezka bi gizon argizai oriak. 2/ gorputza lau billobok. 3/ atzetik andreak.

²⁵ MUJIKÁ, L. M.: «Influentzi aztarna batzuk Lizardiren lirikan», in: *Jakin*, 25. zb., 1982. Beldur gara, hala ere, Luis Mari Mujikak aipatzen duen imajineriaren sostengu guzti hori ez ote den konstante etengabea —topikoa— literaturgintza osoaren historian zehar.

Eta, bestetik, aipatzeko betarik izan ez dugun sinboloen andana ere hor dago: goiza/argia/eguna/bizitza/berbizkundera... etab. Egia esan, sinboloak aski primitiboak dira frantses simbolistekin konparatzeko, baina kontutan hartu behar da beti ere Lizardiren erroto poetikoa zein ingurune kulturaletan mugitzen zen: Sinestesien erabilkera zuhurra, imajina ausartek imajina topikoekin gordetzen duten oreka... Guzti hau kontutan izan gabe ez da legezko Lizardirengana Baudelaire—rengana bezala jotzea. Baudelaire—k tradizio izugarria zuen aurretik. Ez, ordea, Lizardik.

LOS NUEVOS RUMBOS DE LIZARDI LES NOUVELLES ORIENTATIONS DE LIZARDI

La personalidad y talante original de Lizardi es indiscutible. Pero Lizardi no es una «isla», resguardada de cualquiera influencia. Su obra denota un esfuerzo de síntesis entre la tradición anterior y los nuevos caminos de la poesía.

La métrica, etc.

En Lizardi se pueden observar las normas de la preceptiva literaria señaladas por Sabino Arana y por Oihenart. Es de notar la coincidencia entre Lizardi y Oihenart, en la sintaxis forzada, en la sinalefa, en el léxico «puro», en el verbo sintético. Ambos autores han forzado asimismo la métrica tradicional. Esta pista de Oihenart merecería un estudio más profundo.

Conjuntos fónicos / conjuntos semánticos

Respecto a la métrica también es digno de mención el siguiente hecho: en la preceptiva clásica es imposible la ruptura entre la unidad fónica y la unidad semántica,

entre el hemistiquio y el significado; Lizardi, por el contrario, aunque en general respeta la identificación de ambos conjuntos, no teme romper esa correspondencia, siguiendo la corriente simbolista de la poesía. De ahí el paso a la poesía libre no es muy largo.

La unidad de tema y ritmo

También Lizardi se encuentra por los caminos del modernismo, cuando imita el ritmo del tema poético. Para ello se sirve de elementos clásicos (homofonía, y la métrica silábica), juega con los acentos, etc.

Nuevos rumbos.

La recuperación de Oihenart tiene un significado innovador. Pero Lizardi expresamente se confiesa a favor de los nuevos rumbos de la poesía. Con ello intenta romper con los moldes de la tradición romántica vasca. Como el simbolismo, quiere romper con el populismo del romanticismo, a costa de hacer una poesía culta para una minoría. Los temas que canta son la naturaleza, el hombre, Dios.

Esta poética de Lizardi no es clásica. Sin embargo los aspectos románticos, simbólicos y modernistas e impresionistas la hacen difícil de definir.

Por lo demás Lizardi, que careció de formación poética moderna, fue autodidacta y no siempre llegó a plasmar en la práctica sus propios principios poéticos.

La personnalité et l'originalité de Lizardi sont indiscutables. Mais Lizardi n'est pas une «île», à l'abri de toute influence. Son oeuvre dénote un effort de synthèse entre la tradition antérieure et les nouvelles voies de la poésie.

La métrique, etc.

On peut observer chez Lizardi les règles littéraires signalées par Sabino Arana et par Oihenart. Il est remarquable la coïncidence entre Lizardi et Oihenart en ce qui concerne la syntaxe forcée, la synalèphe, le lexique «pur», le verbe synthétique. Ces deux auteurs ont aussi forcé la métrique traditionnelle. Cette convergence entre Lizardi et Oihenart mériterait une étude plus approfondie.

Ensembles phoniques/ensembles sémantiques

Dans le domaine de la métrique il faut aussi signaler le fait suivant: dans les règles classiques, la rupture entre l'unité phonique et l'unité sémantique, entre l'hémistiche et la signification est impossible; Lizardi, au contraire, bien qu'en général il respecte l'identification de ces deux ensembles, ne craint pas de rompre cette correspondance, suivant ainsi le courant symboliste de la poésie. De là à la poésie libre il n'y a qu'un pas.

L'unité du sujet et du rythme

Lizardi suit aussi les voies du modernisme quand il imite le rythme du sujet poétique. Pour ce faire, il utilise des éléments classiques (l'homophonie et la métrique syllabique), joue avec les accents, etc.

Les nouvelles orientations

Il est certain que l'influence d'Oihenart sur Lizardi a un caractère innovateur. Mais Lizardi avoue expressément être en faveur des nouvelles tendances de la poésie. Ainsi, il essaie de s'écarter des sentiers battus de la tradition romantique basque. Tout comme les symbolistes, il veut rompre avec le populisme du romantisme, à force d'écrire une poésie savante pour une minorité. Les sujets qu'il décrit sont la nature, l'homme, Dieu.

Cette poétique de Lizardi n'est pas classique. Cependant ses aspects romantiques symboliques, modernistes et impressionnistes la rendent difficile à définir.

Par ailleurs, Lizardi qui n'a pas eu une formation poétique moderne, a été un autodidacte et n'a pas toujours réussi à concrétiser dans la pratique ses propres principes poétiques.

OHAR PAREA LIZARDIren ITURRIEZ

Jon Kortazar

Gerra aurreko olerkigintzari buruzko interesa, irakurketa eta ikerketa indartzen ari zaizkigu aurten. Eta interes hori iturrien arazoarekin lotua datorkigu.

Iturri-arazo honetan beti izan dira desberdin Lauaxeta eta Lizardi: lehenengoa influentziaz zipriztindua agertzen zaigun bezala¹, bigarrenari ez zaio aitamarik ezagutzen. Mitxelenaren eritziak («No se le observan precedentes conocidos»²) pisu handia izan du alor honetan, nahiz eta esaldiak subjektibitatea onartzen duen eta Sally Prodhomme Lizardiren hasiera bateko itzulpen bateko idazletzat aipatu (honetan oker dabilela uste dut: itzultzailea Lauaxeta izan bait zen, eta Lizardirenik ez bait dugu ezagutzen).

Luis Mari Muxikaren duela gutxiko artikulu batek³ Lizardiren iturri klasiko eta topikoen ikerketa egin du. Influentziok batez ere antologia konkretu batetik sortuak lirateke, eta Muxikak ez luke, ondo ulertu badut behintzat, simbolismoaren eraginik onartuko: A. Lertxundiren intuizioa expreski ukatzen da, eta, ezaguna denez, honek simbolismoan pentsatzen du Lizardiren iturriak aztertu orduan.

Gure aldetik, gerra aurreko poesiaren konplexutasunean sinestera behartuak aurkitzen gara gu. Ez bait da kasualitatea idazleok irakurtzen duten guztia, eta are gutxiago horien guraria: euskal poesia Europarekin lotzekoa, alegia, poesia modernoa lortzekoa. Gurean baino askoz gehiago irakurtzen zen garaian, beharrezkoa deritzot konplexutasuna eta eraginak aztertzeari.

1. LIZARDI ETA VERLAINE: ARAZO PRAKTIKO BAT

Hipotesien oinarri bezala ondo datoz datuak: argigarri izan da-kiguke Lizardiren «Asaba zarren baratza» Verlaine-ren poema honekin konparatzea:

TROIS ANS APRÈS

Ayant poussé la porte étroite qui chancelle,
Je me suis promené dans le petit jardin
Qu'éclairirait doucement le soleil du matin
Pailletant chaque fleur d'une humede étincelle

Rien n'a changé. J'ai tout revu: l'humble tonnelle
De vigne folle avec les chaises de rotin...
Le jet d'eau fait toujours son murmure argentin
Et le vieux tremble sa plainte sempiternelle.

Les roses comme avant palpitent; comme avant,
Les grands lys orgueilleux se balancent au vent,
Chaque alouette qui va et vient m'est connue.

Même j'ai retrouvé debout la Velléda,
Dont le plâtre s'écaille au bout de l'avenue,
— Grêle, parmi l'odeur fade du réséda.

Lizardiren poemak Verlaine-ren honi jarraitzen diona argiegi agertzen zaigulakoan nago: ez da kopia hutsa, jakina, poemaren birsorketa baino. Iturri-arazoaz, ordea, Verlaine-ren poema Lizardirenaren atxakia izan delakoaz ez dago dudarik.

Lizardik argumentua hartzen dio olerki honi: hiru urteren bu-ruan baratzer a heltzea, atea zabaltzea, aurkitu bezala deskribatzea eta, azkenik, baratze-erdian atsoa aurkitzea Lizardigan, jainkosa zelta —Velléda— Verlaine-engan.

Baina Lizardik hiru aldaketa nagusi egin dizkio:

1. Sinbologiaren irakurketa: orain arte, sinbolistatzat hartu izan dugu Lizardi, baina sinbolistek egiten ez duten zerbait egiten digu beti: sinboloak poemaren azken aldean azaldu. Eta hori ez da sinbolismoaren jokabidea, poeta alegorikoena baino. Sinbolistek aske uzten dute irakurlearen interpreta-zioa; Lizardik, berriz, berea, idazlearena, azaltzen du.
2. Elementuen euskalduntzea: Jainkosa zelta amona euskaldu-na bihurtu du. Baina ezaugarri hau hirugarren aldaketaren adierazle baino ez dugu.
3. Errealitate-jokaera. Lizardiri egiazko erreferenteak gusta-tzen zaizkio poemak osatzeko. Errealitateak bultzatzen du «Asaba zarren baratza» poema ere. Lizardiren errealismo—zaletasuna ederki azaldu zuen Lauaxetak: «Ormuzko perlak edo Chinako loreak ez ditut ezagutzen, leen bezin ilun nago. Gizonaren sudurrak Txindoki irudi esan adidazute, ederki ulertuko»⁴.

2. LIZARDI ETA MARAGALL: TEORIAZKO ARAZO BAT

«Onen antzeko olerkari bat Catalunyan dute: Maragall»⁵ esa-tean, Lizardiren iturriez bideak zabaltzen zituen Lauaxetak. Lizar-diren lanak Maragall-en *Pirinenques* gogoratzen zion. Nik ez dut oraindik eragin formalik aurkitu idazle bien artean. Orduan, zer-gatik zioen hori Lauaxetak? Agian, izpiritu bera sumatzen zuelako biengan; baina izpirituaren arazoak ezin dira ondo neurtu. Edo, agian, inpresionismo—kutsu bera aurkitzen zien. Eta ez zen urruti ibili: Maragall-en estetika eta Lizardiren praktika hurbil daude⁶.

Maragall ere panteista dugu. Izadia berrinterpretatu— eta berri-rakurri—zale. Beti izadiaren idazle. Lizardi izan zen moduan.

Maragall, Novalis-en jarraitzaile zen. Eta hona hemen zer dio-

en Novalis-ek: «Gogoak askatzen duen Jainkoaren harri magikoa dugu Izadia». Izadia, gizonak irakurtzeko egina dago filosofoaren-tzat; eta olerkariak izadiaren irakurle bihurtu beharko du. Hori uste zuen Maragall-ek, eta horixe bera, nik uste, Lizardik ere.

Guzti honek, bigarren hipotesi bat sortzera garamatza: ez ote zitzaizkion berdintsuak iruditu Lauaxetari, azken batean biengan Novalis-en estetikaren eragina sumatzen zuelako? Novalis-ek Euskal Herrian izan zuen indarra, nahiz indarrrik eza, ezagutzeko ez dugu oraindik bide handirik, Lauaxetaren aitormenez at: «Horatius zuretzat emongo deusut [Orixerentzat], Keats, Novalis edo beste bategaitik»⁷.

Gaiaren konplexutasuna gero eta handiagoa agertzen bazaigu ere, interesgarria deritzagu Novalis-en estetikaren eraginari arreta gehiagoz begiratzeari; zeren, goiko aforismoaren jarraitzaile, bai bait ditu beste eritzi batzuk: Novalis-en ustetan, Jainkoa era bitan agertzen da izadian, beste gabe eta kontzienteki. Bigarren hau gerta dadin, gizon-irakurle bat behar da. Ez ote du Lizardik gizon-irakurle horren egitekoa betetzen? Ez ote du izadia irakurtzen? Elementuei sinbolizazio alegorikoa eransten? Poemetako sinboloen eta alegorien azalpena textuan bertan ematen duenean, badirudi Lizardik bere irakurketa denoi eskaini nahi digula. Beraz, jabetzen dela bere egitekoaz, honen kontzientzia argia duela.

Arrazoi zuen Lauaxetak: ez daude hain urruti, Novalis kontutan izanik, Maragall eta Lizardi.

J.K.

SARASOLA. I.: «Hitzaurrea», in: ARESTI, G.: *Obra guztiak*, Kriselu, Donostia 1976.

¹ KORTAZAR, J.: «Lauaxetaren prosa lana», in: LAUAXETA: *Azalpenak*, Labayru, Bilbo 1982.

² IBARZABAL, E.: *Koldo Mitxelena*, Erein, Donostia 1977, 56 or.

³ MUXIKA, L.M.: «Influentzi aztarna batzuk Lizardiren lirikan», in: *Jakin* 25, 1982, 131-151 or.

⁴ LAUAXETA: *op. cit.*, 155 or.

⁵ LAUAXETA: *op. cit.*, 151 or. Textu berean, Leopardi ere gogoratzen du; baina italiarraren influentziak Lizardigan dudazkoagoa dirudi, aipatzen den textuak ez bait du Lizardiren texturik azaltzen; bai, ostera, Lauaxetaren *Ondartzan*. Keats ere aipatzen du inoiz; baina Keats-en eragina beste batean aztertu beharko da.

⁶ TRIAS, E.: *El pensament de Joan Maragall*, Ed., 62, Barcelona 1982.

⁷ LAUAXETA: *op. cit.*, 135 or.

DOS NOTAS SOBRE LAS FUENTES DE LIZARDI DEUX NOTES SUR LES SOURCES DE LIZARDI

Estas notas se refieren al problema de las posibles fuentes de la poesía de Lizardi, tomando pie de las diversas opiniones al respecto (Mitxelena, L.M. Muxika, A. Lertxundi).

1. Lizardi y Verlaine: una cuestión práctica

Se compara «Asaba zarren baratza» con otro poema de Verlaine. El poema de Lizardi se diferencia, por su simbolismo que es explicado dentro del mismo poema, por la euskaldunización de los elementos, y por el gusto del realismo.

2. Lizardi y Maragall: una cuestión teórica

Ya Lauaxeta apreció cierta semejanza entre el poeta catalán Maragall y Lizardi. Esta intuición de Lauaxeta se puede explicar por doble hipótesis: 1) ambos estarían influenciados por el impresionismo, y ambos son poetas de la Naturaleza; 2) El influjo de Novalis en Maragall y en la poesía vasca de la preguerra explicaría las semejanzas de los dos poetas. Se debería ahondar más en la influencia de la estética de Novalis en Lizardi.

Ces notes se réfèrent aux éventuelles sources de Lizardi et sont fondées sur les différentes opinions émises à ce propos (Mitxelena, L.M. Muxika, A. Lertxundi).

1. Lizardi et Verlaine: une question pratique

On compare «Asaba zarren baratza» à un autre poème de Verlaine. Le poème de Lizardi en diffère par son symbolisme qui est expliqué à l'intérieur du poème même, par l'euskaldunisation des éléments et par le goût du réalisme.

2. Lizardi et Maragall: une question théorique

Lauaxeta déjà trouva une certaine ressemblance entre le poète catalan Maragall et Lizardi. Deux hypothèses expliquent cette intuition de Lauaxeta: 1) tous les deux seraient influencés par l'impressionnisme, et tous les deux sont des poètes de la nature; 2) l'influence de Novalis sur Maragall et dans la poésie basque de l'après-guerre expliquerait les ressemblances entre les deux poètes. Il faudrait faire une étude plus approfondie sur l'influence de l'esthétique de Novalis chez Lizardi.

AI, MARLOWE, MARLOWE!

Anjel Lertxundi

— Beno, Sam: ikusi al duzu azken bi egunotan?

— Nor? Hillman?

— Ez zaitzela berriro eroarena egiten has. Zu bizkorra zara. Erantzun iezadazu.

— Baina, hori baino lehen, erantzungo al diozu nire galdera bati?

— Ahal badut, bai.

— Haren bizitza salbatzen ari zarela diozunean, influentzia txarretatik askatu nahi duzula eta Kuadratu-eneara ekarri nahi duzula beste kuadratuaren artera, hori esan nahi al duzu?

— Ez da gerta dakjokeen okerrena.

Ez zidan erantzun.

— Ez zait galdera gehiegi gustatu. Hura ez hiltzeaz ari natzaizu. Hiltzea erabaki dezakeen jendearen eskutan dago, segun eta jende horrek zein bihozkada duen. Ezagutzen ez duzun zerbait esaten ari al natzaizu?

— Noski baietz! — haren ahotsari egia zerion eta haren begiak damuz gainezka zeuden. Baina urtebete osoz harekin hitz egiten ihardunda gero ere, niri zerbait ezkutatzeko gauza litzateke. Adibidez, ez zidala ezer sinesten aitortzeko gauza.

— Zergatik ez didazu sinesten, Sam?

— Ez dut horrelakorik esan.

— Ez da beharrezko. Ongi demostratzen didazu hori, dakizuna gordetzearekin.

— Gordetzen dudan bakarra tokitxo bat besterik ez da nire ohetxo zahar honetan — bota zuen trufaz.

— Ziur nago esaten dudana. Badut belarria gauza batzutarako, zeuk musikarako duzun bezala. Tronboia jotzen duzu, ezta?

— Bai — harriturik zirudien.

— Esan didatenez, ongi jotzen duzu.

— Karamelorik ez. Ez naiz inondik ere J.C. Higginbotham.

— Ezta ni Sherlock Holmes ere. Baina goiz ala berandu, esango didazu, noski baietz, noiz ikusi zenuen azkenekoz Tommy Hillman. Ez zara gertuko zure ohetxo zaharrean telebistak bide-bazter baten Tommy-ren hitlotza aurkitu dutela noiz informatuko zain.

— Aurkitu al dute, bada?

Ross MacDonald: *Dolarraren bestekaldea*

Mitxelena dixit «es difícil señalar influencias...» eta ez zaio arrazoirik falta. Isla bat da Lizardi; edozein euskal idazle aztergai da ohizko parametroekin, baina zarauztarra jarioka irristatzen zaigu behatz artetik, dios, zer gertatzen da hemen, hau ez bait da Elis-sanburu, hau ez bait da... ere.

Zeren Lizardiren aztarna literarioak arakatzerakoan, oztopo bat baino gehiago topatzen bait dugu bidean eta oztoporik nagusiena Lizardik taxutzen duen euskal idazkera orijinala, geurean ez bait dugu Lizardiren antza-izpiren bat izango duen idazketarik.

«Es difícil...» esan zigun Mitxelenak. Xehetasunaren arabera, ez da ezinezko. Konstatazio horretatik salto egitea eta Lizardi amildegiz inguraturiko muino bakarti gisa hartzea gehiegizkoa iruditzen bait zaigu. Ez dugu, zentzu honetan, Lizardi isla bat zenik uste. Xabier Agirre, pentsatzen dugunez, aktualizaturik, eguneraturik zegoen poetika gaietan eta hau usaintzen zaio darabilen gai-multzoari, edertasunari buruzko obsesioari, imajineria bisualaren erabilkera etengabeari. Bai, aztarna literarioak usaintzen dira, ukitzen, dastatzen, Lizardirenean.

Gure honek, ordea, ez du aztarna literario horien segizio poli-ziako sirenatsuan murgilduko garenik esan nahi. Horretarako jaiotzen ari da nonbait eta plazaratzen nostalgiarik gabeko Poirot metikulosorik, zehaztasunaz barre egiten duen Marlowe distanterik, Archer zinikorik geurean.

Maila apalagoan horregatio, egingo duguna ez da pista posible batzuren bidezidorra adieraztea besterik izango. Aitortu behar bait da, adierazpen horretan baino ur sakonagoetan ez aritzea, igerian Spitz gisa iharduten ez jakiteari zor zaiola, nahiz eta, ditugun prioritateen arabera, Lizardiren obrako dilema poetiko-poliziako honen auzia guztiz garrantzitsua iruditzen zaigun Lizardi bere konplexitate osoan ulertzeko.

Pistak emango ditugu, beraz, aumento gutxiko lupa bat lagun. Hor konpon ondoen osa daitezkeen nobela poliziakoekin. Edo beltzekin, batek daki!

BADATOZ PISTAK: HILOTZA AURKITU ONDORENGOAK

Garbi dago lehendabiziko pistak euskal literaturaren inguruan aurkitzen saiatu behar dugula. Gertuenetik urrutienara, barkatzen diogu ausardia hori formulatu zuen Poe-ri.

Aipatu dugu ale beronetan, geure beste batean, Oihenarte-rekiko. Bego dagoenean, baina ez da aski: Lizardiren idaztankerari begiratzen badiogu, aranismoaren eragina gutxituz doa poemagintzan aurreratu ala, aranismo lexikoari ironia krudelaz barre egiteraino (gogora «garbizaleak alda ditzateke itz banaka batzu onelatsu» ohar gordina «Paris-ko txolarrea» poemapean). Tradizio metrikoari buruzkoak ere ez dira Lizardirenean hobeto libratzen: orijinaltasun baten nahian oinarritu behar, Juan Mari Lekuonak bere artikuluan adierazten digunez, eta hor dabilkigu poeta eginahal neketsuetan distantziak markatzen, gero eta *handicap* pertsonalagoei erantzuten. Eta, azkenik, aipatu izan den Mistral-en eraginari Lizardirengan, adierazitakoa baino txikiagoa deritzat, praktika poetikoan behintzat. Besterik bait da Lizardirentzat Mistral-en Nobel sariak (Nobel sariak, Mistral-ek baino gehiago) helmuga bezala suposa zezakeena.

Ingurune kulturalari bagagozkio, eta Euskal Herrikoa eta Espainiako berezten ditugu entorno bezala (kontu irristatzeari, hain erraza bait da entorno kulturaleri buruzko hauetan!), Darío de Regoyos eta Sorolla ditugu Euskal Herrian Euskal Herriaz maite-mindurik, haien paisaia inpresionistak guztiz dira ezagunak euskaldunen artean, eta hauen estetika plastikoa zein gertu ikusten

dugun «bihotz-begiak» erreibindikatzen zituen Lizardirengandik! Esan ere esan behar da, urte batzuk lehentxeago Bilbon ibilia zela —bizitua— Ezra Pound, Ortega y Gasset-ek Zumaian igarotzen zituela uda luzeak, sozio-politiko-literarioak ziren tertulia amai-gabeak antolatzen zirela Zarauzko uda grisaren lasaitasunpean, Arteta, eta ez ustekabeen, bat zetorrela garaiko europar jokabide plastiko abangoardistekin...

Espainiari bagagozkio, berriz, modernismoa, Rubén Darío eta haren lexiko canoforoa, eta haren erritmo imitatiboak eta haren sintaxi entzutetsu eta eufonikoa... Eta Rubén-en atzetik —ondolan, aurrean, beti etengabeko presentzian—, sinbolismoa. Noski baietz! Eta Verlaine... *au rythme du wagon bruttelment* zein gertu ikusten den «bultzi leiotik»!, multzo foniko eta semantikoen arteko ahustura sakrilegoa, ironia, «bidaztiar-dei»a poesiaren lurralde autonomoetara...

Eta 27ko belaunaldia, aipaturikoak eta gehiago surrealismoa ere barne, Góngoraren erreibindikapen ausarta bezain ikonoklasta, uhin eta uholde poetiko europarren Madrileratze orijinal bezain zaratatsua...

Barka, irakurle, ez omen dugu oraindik exordio luze honetan Lizardirengana jo eta pistak eskaini behar dizkizu Poirot eta Marlowe-ren morroin honek:

— Erritmo imitatiboak: «Bultzi leiotik» eta «Biotzean min dut» poemetan bereziki.

— Multzo foniko eta semantikoen arteko haustura: Ia poemagintza osoan.

— Ironia: Zein gutxi aipatu eta aztertu den Lizardirenean hain garrantzizkoa den puntu hau!

— Joera inpresionista, guztiz plastikoa («biotz-begietan» berriro ere): «Bultzi leiotik», «Biotzean min dut»... eta poemagintza osoko imajineria bisuala (eta ez razioziniozkoa).

— Lexiko poetikoaren berrikuntza: Zein poemetan ez? Konposaketa, aditz trinkoen erabilera, beste euskalkietatik jasotako lexiko eufoniko eta, era berean, esanguratsua...

— Abangoardia: «Aldakeri» (gure ustetan trunkatua, eta Lizardi konturatu zen honetaz, poemagintzaren fetxak begien bistan badi-tugu...).

— Sinbolismoa: sinbologia arrunt samarra poemagintza osoan, zehatza «Eusko bidaztiarena» poeman, hor-nonbaitekoa alderdi honetatik zehatzegi aztertu ez dugun «Urte-giroak ene begian» poemario luzean (konstata beza irakurleak, poema luze hau izan zela ordurartean eginkizun lirikorik anbiziotsuena euskal letretan).

ZEHAZTEA ESKATZEN DIGUZU, MARLOWE!

Ez zaitezela haserre, eta has gaitezen Baudelaire-rekin. «Invitation au voyage» izendatzen du frantsesak bere poemarik famatue-netakoa. Lizardiren «Eusko bidaztiarena» poemak, «Bidaztiar-dei» darama subizentzat.

Jaunak, esaten digute entusiasmo kontrolaezinez biek, literaturaren —poesiaren— lurraldea autonomoa da, eta lurralde hori bisitatzea nahirik biziena denez, Baudelairek «mon enfant, mon soeur» gonbidatzen du bidaiara, Lizardik «gogamenaren ezkon xuria».

Eta lurralde autonomo horretan, palmondoak eta harea bigunak baino zerbait unibertsalago topatuko dugu bi poeten gonbiteari edukatu bagatzaizkio: edertasuna. Baudelaire-k «Là, tout n'est qu'ordre et *beauté*», eta Lizardik, berriz, «Eder aunagu, mintzo yoria».

Zirkunstantzien arabera, gauzak aldatu egin dira bi poeten artean, bai. Helmuga poetikoari buruz ari zaigu Baudelaire; tresna poetikoari buruz, ahalmentsu baina landu gabe ikusten duen euskarari buruz, berriz, Lizardi. Baina kontextu berean, ardatz ideologikoak suposatzen duen nomenklatura poetiko berberaren pean.

Edertasunaren jomuga, helburu hori gustagai aurkezterakoan, Lizardi erredundantzia gehiagoz, insistentzia gehiagoz ari zaigularik:

Ezpaitun ezer
lurbiran ederrik i bezain eder!

Helmuga poetikoa Baudelaire-k eta hizkuntza propioaren etekin ahaltuak Lizardik. Hori aipatu dugu lehentxeago. Baina, hala ere, Baudelaire-k ere lotzen ditu helmua eta helmugara iristeko beharrezkoa duen tresneria linguistikoa:

La splendeur orientale,
tout y parlerait
sa douce *langue natale*.

Sinbolisten obsesioa: Mallarmé-k «las palabras de la tribu» deitzen zuena, Baudelaire-k «sa douce langue natale» bezala bataiatu duena, Lizardik berriz «aberriaren abots eztea», edo «gogamenaren ezkon xuria» edo «mintzo yoria» edo «garoz yantzia» edo «ezteiondoko bide» bezala ezagutzen duena.

Eztei ondoko bide, hain zuzen: poetak eta haren maiteder den mintzo yoriak egin behar duten bidea lurralde autonomora, hara, («Là, tout n'est qu'ordre et beauté, luxe, calme et volupté») lurraldera.

Lurralde autonomoaren, ederraren jauregi den lurraldearen deskribapenari gagozkioarik, imajinak desberdinxeak badira, deskribapen hori zentzu berekoa da oinarrian: lurraldea beroa da, baina baita izotz ere (maitagarri/beldurgarri, harrapagai/helezin... maitasuna bera bezalatsu), exotismo liluragarria ageri zaigu bi poetengan, espejismoa dirudi lurraldeak... Idazleak trajeria bezala bizi duen edertasuna atzapartu ezina eta ezin honetan oinarritzen den literaturgintzaren nahiaren eta ezinaren arteko dialektika nekeza baina inoiz ez antzua...

Lurralde hartan dena bait da «ordre et beauté, luxe, calme et volupté», lurralde hartan dena bait da «dirdaiez ikus egina», «gogamenaren ezkon ez-antzu»... Eta bertan aurkitzen bait da «maitasun-edermen zitu» paregabea ere.

Bestetik, aztartzeke dago «Urte-giroak ene begian» (*begian* eta ez beste inon) Lizardiren poema luze eta taxutuenaren ingurune literarioa. Ez dugu horretarako betarik izan. Baina gorago emandako pistek, *mutatis mutandis*, guztiz balio dutelakoan gaude.

Aipatua dugu, gainera, eta sarritan, «Bultzi leiotik» poemak Verlaine-ri dion zor nabaria (zuzen ala zeharka, aztarna literarioen

atzetik jotze honetan inoiz ezin bait da zehatz jakin horrelakorik: iturriak agertzen dira, ez eredu zuzenak).

Eta, azkenik, 27ko belaunaldiaren garaietan gaudenez, ondoren jorratuko zuen bidea baino lehenagoko gazte-urratsetan, Dámaso Alonso honela ari zitzaigun «poemas puros; poemillas de la ciudad» liburuan (1921):

Las sábanas,
aún goteantes, penden
de todas las ventanas.
El viento juega con el sol en ellas
y ellas ríen del juego y de la gracia.
Y hay las niñas bonitas
que se peinan al aire libre.

Lizardik, berriz, Alonsoren kontextu desberdinxean, amonaren hiletak sortarazten dion nahigabe bihurrian:

Eguzkirik ez dute
leiotan zapiak;
aur-yolasik ez dago
gaur zure kalean.

Eta, aurreraxeago, poema berean:

Orain larogei urte,
kale poz-gabeok
eguzkiak zitun ta
zure aur-yolasak
alaitzen.

Kointzidentziak ote Baudelaire, Verlaine eta Dámaso Alonso-rekikoak? Agian! Baina irakurlea aparte, guztiz informatua zegoen idazle apart batengan bakarrik posible ziren kointzidentziak ditugu horiek. Kointzidentziak liratekeen kasuan. Zerbait sakonago eta nabarmenago adieraziko ez liguketen kasuan. Azken honetara makurtuak bait gaude.

Eta besterik ez. Poirot eta Marlowe aipatu ditugunez, aipa dezagun bi hauen aita ere. Holmes-ek ez zuen idazteko makinarik sartzen bere motxilan, ez irusta-dantzarik dantzaten dantzatokian.

Lupa zeraman, eta ez zen etxetik mugitzen preziso zuen kasuetan izan ezik. Gauza bat bait da kritika literarioa; eta beste bat axaleko irkurketa batek posibilitatzen duen kronika mundanoa.

A.L.

AI, MARLOWE, MARLOWE!
AI, MARLOWE, MARLOWE!

El autor plantea la cuestión de las influencias poéticas que sufrió Lizardi. No se puede considerar la poesía de Lizardi como isla al abrigo de cualquier influjo. El artículo pretende ofrecer pistas de solución.

En cuanto a los influjos recibidos en la literatura vasca, el artículo se refiere a Oihenarte, al aranismo, a la tradición métrica tradicional, a Mistral.

En cuanto al entorno cultural dentro del País Vasco, se recuerdan el impresionismo de Darío Regoyos y Sorolla; se menciona a Ezra Pound, Ortega y Gasset, Arteta. En el entorno cultural de España se destaca el influjo de Rubén Darío, Verlaine, de la Generación del 27.

El artículo enumera a continuación algunos datos literarios en que se refleja un influjo de los autores citados.

Luego emprende un estudio comparativo de los poemas «Invitation au voyage» de Baudelaire y «Eusko bidaztiarena» de Lizardi, encontrando significativas coincidencias. Más brevemente se alude también a ciertas coincidencias entre algunos poemas de Verlaine y Dámaso Alonso por una parte y de Lizardi por otra. Estas coincidencias significan para el articulista que Lizardi no sólo era un gran lector, sino que estaba informado sobre las leyes modernas de la poética en Europa.

L'auteur parle des influences poétiques subies par Lizardi. À son avis, la poésie de celui-ci ne peut être considérée comme isolée à l'abri de tout influx. L'article prétend offrir des voies de solution.

En ce qui concerne les influences reçues de la littérature basque il se réfère à Oihenarte, à l'aranisme, à la tradition métrique traditionnelle, à Mistral.

Quant à l'entourage culturel à l'intérieur du Pays Basque, il nous rappelle l'impressionisme de Darío Regoyos et de Sorolla et mentionne Ezra Pound, Ortega y Gasset, Arteta. Pour ce qui est de l'entourage culturel en Espagne, il signale l'influence de Rubén Darío, Verlaine, de la Génération de 27.

L'auteur énumère ensuite certaines données littéraires qui reflètent l'influence des auteurs cités.

Suit une étude comparative des poèmes «Invitation au voyage» de Baudelaire et «Eusko Bidaztiarena» de Lizardi, où l'on trouve des coïncidences significatives. Plus brièvement, il fait allusion aussi à quelques coïncidences entre certains poèmes de Verlaine et de Damaso Alonso d'une part, et Lizardi de l'autre. Ces coïncidences prouvent à l'auteur de cet article que Lizardi, non seulement était un grand lecteur, mais qu'il connaissait les lois modernes de la poésie en Europe.

ORAIN ETA HEMEN

GAIAK

AGIRIAK

LIBURUAK



XXXI ESKUTIK?

Edozein tabernazulotako muslaria bezala ari zaigu azken urteotan Donostiako Zinemaldia A kategoriako txapelaren atzetik. Beheraka zihoala—eta Donostiako Zinemaldiari A kategoria kentzearen arrazoiak ez daude, ez, Donostiako Zinemaldiak oraintsu arteko urtetan eman dituen fruitu mailatueta bakkarik. Kartak ongi markatuak daude, produktoreen arazoa bait da bereziki Zinemaldia jasaten ari dena. Dannes—ek Europako merkatua, Los Angeles—ek Ipar Ameriketakoa, Moskuk Ekialdeko lurraldeetakoa eta Manilak Asiakoa bereganatzen dituztela kontutan harturik antolatzen badira zinemaldiok, Iberoamerika—Donostian jokatzaren interes ekonomiko—politikoen nomenklaturaren arabera— eskaini nahi liokete produktore guztiz ahaltsuek Donostiari, eta ez dugu uste Donostia honetara presatuko litzatekeen kasuan arazo larriegirik gertatuko litzatekeenik.

Paper gainean, behintzat. Kinka larriak bait daude planteamenduaren praktikaren gibeletik.

Batetik, Donostiaren eta Euskal Herriaren erantzunkizuna zalantzarazkoa da gutxienez. Iberoamerikarako Zinemaldia antolatzeak *handicap* politiko haundiak litzuke sektore abertzaleentzat. Usain zentralistaren hedadura ez litzateke atsegina izango, ez, azken urteotan Zinemalditik urrutiegi egon ez den Antton Ezeizak errepresentatzen duen sektorearentzat, ezta Ramon Labaien alkate jelkidearentzat ere. Konnotazio desberdinak litzuke bakoitzaren jarrerak, noski. Baina, oinarrian, beldur zaio inperio hitzak dakarkigun itzal zabalari, oraindik ere indarra duen Espainiaren Hego—Amerikarekiko influentziari.

Egoera honi diru-falta erantsi behar zaio, organizazioaren nondik norakoaren zalantza, zinemagintza beraren krisialdia (benetakoa eta egoera ekonomikoarekin zerikusi zuzena duena), inguruan mugitzen diren interes antagonikoak, Euskal Herriaren egoera eta erakunde politikoen indiferentzia.

Garbi dagoenez, Zinemaldian interesaturiko «izpiritu garbici» *cocktail* hau bihurriegia zaie horien borondate optimista eta bihotz zabalak baretzeko.

A kategoria bereganatu nahi da derrigorrean. Ez legoke beste biderik. Baina A kategoria zertarako eta zein helbururekin? Nora joan nahi genuke? Nor da arazo honetan benetako erantzunkizuna lukeena?

Beste zenbaitek, ordea, ez du A kategoria lortzearen egarri handiegirik. Bada, askoren ustetan, beste biderik, eta azken Zinemaldian sarritan entzun dugun galdera da: Ez al dago, ordea, beste biderik?

Eta galdera hau egiten duen oro espezializazioaren alde dago. Azken urteotan Zinegile Berriak saila izan da koherentziaz eta funtzionamenduz aurpegi egokiena eta garbiena erakutsi duena. Zergatik ez jo, askoren ustetan, bide horretatik? Zinezale benetako batek baino gehiagok egiten du apustu bide honen alde.

Guk bidea garbi ikusten ez dugun arren, A kategoria lortu nahiari ziklope-lanaren eginahal fruiturik gabearren arriskua ikusten diogu, eta, gainera, ez dugu ikusten A kategoria hori zertarako lortu nahi den, prestigioa kontserbatzen jarraitzeko ez bada. Dena den, A kategoria lortzea dela komenigarriena erabakiko balitz, horren filosofia erabaki beharko litzateke, epeak markatu eta hainbat urtetarako —bost urte baino lehenago ez— A kategoria lortu nahi dela ikusi. Eta asmo horri eginahal guztiak eskaini.

Espezializazioaren bidetik, berriz, egia da Zinemaldiak bere prestigioa galduko lukeela, batez ere industria den zinemagintzaren inguruan kultur arrakasta abangoardistek duten zerikusi hutsa ikusirik. Espezializazioaren bidetik joz, gauzak ongi taxutu beharko lirateke. Zertan espezializatu? Zinegile Berrietan? Badirudi jende asko bide honetatik dabilela, eta kasu honetan Zinegile Berri kontzeptua bera argitu behar da. Zinegile Berri kontzeptupean *opera prima*-ren egilea hartzen badugu kontutan, orain arteko sailak hartu duen bezala, Zinemaldiak galduta luke bere arrakasta guztia espektakulu bezala. Baina Zinegile Berri kontzeptupean zerbait zabalagoa eta interesgarriagoa hartuko bagenu, Zinegile Berri zinemagintzari arte bezala zerbait berri aportatzen dionari deituko bagenio eta kontzeptu horren

mende antolatu guztia, erakarmena baluke kultur sektoreetan behintzat.

Idealki azken proposamen honen zale litzatekeen honek baiditu hala ere, bere zalantzak. Horretarako dirua behar da, horretarako ideia garbi ikusi behar da, horretarako benetako kontzientzia kulturala eduki behar da. Eta ez du horrelakorik ikusten gurean.

Ez ideia garbirik, ez kontzientzia kultural zehatzik. Eta guzti honi lagunduko liokeen dirua ikusten dut planteamendu honetan urrutien.

Amaitzeko, bada beste arazo bat ere. Nor XXXII. Zinemaldiko Zuzendari? Noiz erabaki behar da hori? Berdin da zuzendaria Carlos Gortari izan ala Antton Ezeiza izan. Zer zuzentzeko zuzendari? Hori bait da, oinarrian, aurtengo Zinemaldian egin den funtsezko galdera.

Ez bait ditugu XXXI eskutik izan, Luis Gaskak hala sinestarazi nahi izan bazigun ere. Karta markatu gehiegiren errezeloa dugu. ■ *Anjel Lertxundi*

KONGRESU BATEZ MADRILEN

Ezagunak dira albisteak. Irailaren 19-25etan Kongresu bat egin da Madrilén: «Kristauak eta Bakea» zuen gaian. Joan XXIII.a izeneko teologoen elkarteak antolatua. Horren hirugarren kongresua. Aurreko bien gaiak «Teologia eta pobretasuna» eta «Pobreen esperantza, Kristau esperantza» izan ziren.

Aurtengo kongresu honetan, besteran artean, hizlari hauek mintzatu ziren: Carlos Alonso Zaldivar, Angel Viñas, Tomás Borge, Joan Gomis, Carlos Castilla del Pino, Georges Casalis, Enrique Dussel, José L. Aranguren eta Giulio Girardi. Mila eta bostehun bat entzule eta partehartzaile Kongresuan.

Gaurko munduan bakeari eusteko edo bakea egiteko behar diren baldintza politikoak, militarrek, ekonomikoak eta kulturazkoan aztertu ondoren, bakeari buruzko gogoeta teologikoari heldu zion Kongresuak. Ospakizun eukaristikoa sinboloz beterioko batez eta azken dokumentu bat irakurritz bukatu zen.

Euskal Herriaren arazoak bere leku nabaria ukan zuen Madrilgo Kongresuan: Mahainguru bat egin zen, «La paz en Eus-

kadi» titulupean, non beren eritzia agertu bait zuten Manu Escudero-k, Eva Forest-ek eta Kepa Bordegaray-k. Beste mahainguru batetan, berriz, Jose Mari Setien apezpikuak hartu zuen parte, Euskal Herriaren bakerako Elizaren ekarria aipatuz. Partehartzailen artean euskaldun mordoska ginen Kongresuan, Gipuzkoatik, Bizkaitik, Gasteiztik eta Iruñetik joanak.

Hala ere, nere eritziz, Euskal Herriko bakearen arazoa bazterreko gai bezala gelditu zen: ukitu beharrekoa, baina Kongresu osoari begira halabeharrezko eranskin gisa. Seguruenik gai mingarriena zen —da—, Kongresuaren bakeari buruzko gogoetaren eskeman ondo integratzeko; areago, horren muinean ipintzeko.

Nere ustez, Kongresuaren «logika» hautsi egiten zuen nola-bait Euskal Herriaren burrukak. Jakinaren gainean nengoen Espainiako kristau ezkertiaren artean ez zela erraza Euskal Herriaren burrukaz mintzatzea. Horregatik banuen neure beldurra, gai hori ukitzean gertatuko zenaz eta ez zenaz. Hala ere, esan beharra daukat, baretasuna eta «bakea» nahiko mantendu zirela, nahiz eta aipaturiko mahainguruko batek demagogikoki txalo errazegiak eta beroegiak atera, eta beste batek baino gehiagok egia garratzak jaulki: tortura, desinformazioaren edo malinformazioaren monopolioa, etab.

Euskal abertzalearentzat —areago ezkerrekoarentzat— ez da gozoa Madrila bakeaz mintzatzera joatea. Apezpikuak berak ere ez zuen oso erraza izan. Hemengo burruka harmatua —«terrorismoa»— argi eta garbi kondenatzen ez baduzu, beste ezeren aurretik, jai duzu; nahiz eta solaskideak zure anaia kristauak, ezkertiarrak edota adiskideak izan.

Bakeari buruzko Kongresu honetan —Euskal Herriatik bakeaz mintzatzean, ezeren aurretik burruka harmatua ez gaitzetzera— zure solaskideek azalzuritzat hartzeko arriskua zenuen, edota Kongresuaren dinamikaren haustailatzat.

Hala ere, egia esan, ez zen hainbesteraino garratzu giroa. Kongresuaren «bakearen» faboretan, alboratu, eta ahalean ahaztu egin zela uste dut Euskal Herriaren burruka —harmatua eta beste—, Europako beste Herri «ukatuen» burrukak —harmatuak eta beste— ahaztu egin ziren bezala.

Dena dela, Madrilan eta Espainiako Herrietan ez dugu dena beltza, eta muzina. Badira hainbat lagun, komunikabide estatalen —telebistaren, irratiaren eta prentsaren— gure Herriari eta hemengo burrukari buruzko desinformazioa eta malinformazioa gaudituz, Herri honetatik bertatik begiratzen eta ikusten saiatzen direnak. Areago, baditugu gure burrukarekin eta eskabi-deekin bat egiten dutenak ere.

Behin baino gehiagotan salatu zen hauxe: malinformazio eta in toxikazio zentralista, Madrildik bakarrik begiratu, hainbat komunikabide estatalek nahiz pribatuk «monopolizatzen» dutena, eta Espainiako Herri guztietara zabaltzen. Horrek sortu eta barruraino sartu duena zera da: Euskal Herriaren erreibindikazio eta burruka osoarekiko ukapena, Herria beraganako mesfidantza ez denean. Zalantzarik gabe, barneko «ukapen» eta mesfidantza horrek hartuta aurkitzen dituzu, hasteko, zure soslaskide madrildar eta espainiar asko —gehienak?—, gogo oneko lagun «irekiak» edota zure «kideko» kristau bakezale eta ezker-tiar izan arren.

Elkarrekiko mesfidantza eta ukapen mingarri eta guzti, ez dut uste inola ere itxitasunaren, zapuzkeriaren eta etenaren jokabidetatik abiatu behar dugunik. Lan handia egin beharra dugu Espainiako Herrien eta gogo oneko herritarren artean, komunikazioa zabaltzeko eta ez ixteko. Aurrena, komunikabide handien monopolioak eraikitako horma haustea eta eraustea da, hain zuzen ere.

Horixe ikasi dut Madrilgo Kongresuan. ■ *Paulo Agirrebaltzategi.*

R.I.E.V.en ARO BERRIA

«R.I.E.V. berriro plazaratzen da, kemen berriekin, zuzendari Julio Caro Baroja jaun ospetsua duela, arazo eta antsia milen agertoki izateko asmoz».

Hona Zuzendaritzaren hitzak. Eta halaxe da izan: 1983ko irailean birsortua da R.I.E.V. aldizkari klasikoa. 1936ko egoerak ekarritako «lozorro hartatik esnatzen» dela orain diote oraingo zuzendariak. (Frankismoak inposaturiko egoera «lozorro»a baino gehixeago ere izan ote den nago, «Lazaroren lozorroa» ez bada behintzat).

R.I.E.V.ekin aldizkari klasiko bat agertzen zaigu berriro. Gogora dezagun 1907an sortu zuela Julio Urkijo jaunak, 1921ean Eusko Ikaskuntzak bere aldizkari zientifiko bezala hartu zuela, Urkijo sortzailearen gidaritzapean beti ere, 1936an, gerrakoan, desagertarazi zen arte, eta ospe handikoa zela jakitun eta iker-tzaile-andana baten lankidetzarekin.

Gaur, atzera plazaratzean, lehengo lepotik du burua

R.I.E.V.ek. Lehen aldiko ildotik jarraitu nahi du Julio Caro Barojak, batipat arazorik istilutsuenetako bitan:

- R.I.E.V. ez da dibulgazio aldizkaria izango. Jite herritarren aurka, R.I.E.V.en tradizioa inbokatzen du Julio Caro Barojak: «Lo que no fue nunca la «R.I.E.V.» fue una revista de divulgación o «popular»... La «R.I.E.V.» fue como fue y hay que respetar un criterio de continuidad»...

- Bigarren arazoa, hizkuntzari buruzkoa. Aldizkari «plurilingüe» da: «La «R.I.E.V.» fue «internacional» desde el punto de vista lingüístico»... «Una publicación de alto nivel tiene que mantener esta línea, aunque hay que reconocer que el plurilingüismo no sea del todo cómodo».

Julio Caro Barojak seinatzen duen hau, bide iraunkorra ote? Baietz uste dugu, historia eta Elkargoaren gehiengoa alde bait ditu. Baina ezin dezakegu ahantz, Zuzendaritzarena barik, Elkargoarena dela aldizkaria, eta badela hor beste eritzirik ere, J. Caro Barojak berak aditzera ematen digunez: «Al discutirse el asunto de la reaparición de la «R.I.E.V.» hubo socios de «Eusko Ikaskuntza» que en la Asamblea General que se celebró en Durango, expusieron la tesis de que, precisamente, había que darle un aspecto más popular, o menos elitista como se dice ahora. También plantearon la cuestión del idioma, sosteniendo que debía dársele prioridad al vasco».

R.I.E.V. berri hau sei hilabetero argitaratuko da, egitura honekin: *tribuna*, *aipaleku*, *bibliografía* eta *albiste*.

Aro berriko lehen zenbaki honek, 206 orrialde ditu, hiru hizkuntzatan idatzirik dago (euskara, espainiera, frantsesa), espainierak gehiengoa duelarik. Hogeitahamaikagarren urtean dago aldizkaria, XXVIII. tomoan.

Edukinari dagokionez, hona zenbait datu: «Eusko Ikaskuntza»ren zuzendariaren (J. M. Barandiaran) eta aldizkariaren zuzendariaren (J. C. Baroja) sarreraren ondotik, zenbakiaren sail nagusia dator: *tribuna*. Eta hemen hiru artikulua nagusi: Jesus Altunaren «Situación actual de los estudios arqueológicos pre- y protohistóricos en el País Vasco». Joan Mari Torrealdayren «Euskal liburuaren bide luzea», eta Julian Ajuriaguerraren «L'isolation, technique de guérison, règle de vie, voie de perfectionnement». Hurrengo sailean, *aipaleku* izenekoan, hiru libururen aipamena egiten dute Luis Michel enak, Gurutz Ansolak eta Inigo Aguirrek. *Bibliografía* sailak 49 orrialde eskaintzen dizkio Euskal Herriko artearen historiako liburu-zerrendari. Justo Garatek, sail berean, ohar osagarri zenbait egiten dio R.I.E.V.en aurkibideari. *Albiste* saila dator gero, eta hemen zenbait ohar, aurkezpen eta omenaldi.

Orohar, zer esan zerbaki honi buruz? Nire inpresioa da, ez dagoela behar bezainbat landua, ez duela artean beharko lukeen tamaina. Nire gustorako, leku gehiegi hartzen du bibliografiak, tratamendu tipografiko honekin. «Nazioartekotasuna»ri zerbaki honek ez dio soluzio egokirik ematen: artikuluek ez dute atzean laburpenik beste hizkuntzatan, batek salbu eta berak oker: alegia, espainierazko artikuluek espainieraz du laburpen-txoa. «Plurilingüismo»ak ere saio gehiago beharko du, adibidez, zenbait lanen hizkuntz doblaketak astundu egiten bait du aldizkaria. Aztertzekoa da, baita, hizkuntzen arteko barne-oreka zerbaki bakoitzean. Oraingoan, espainierak du lehentasuna. Eta azkenik; zenbait lan aspaldi idatziak izateak edota beste norabaiterako burutuak eta, inoiz, bestetan argitaratua egoteak zerbakiari freskotasun eta nobedade pittin bat kentzen ote dioten nago.

Dena den, nire ustezko akats hauek erraz, oso erraz emendatzeak dira, eta ziur gaude halaxe gertatuko dela.

Ongi etorria ematearekin batean, gure zorionik sutuenak bidaltzen dizkiogu R.I.E.V.i, eta bizitza luze eta emankorra opa. ■ *Joan Altzibar.*

JENERAL BERRIA

Jeneral berria dute jesuitek. Wojtyla aita sainduak ezarritako egoera berezi eta anormalean denboraldi luzea egin ondoren, azkenean izan dute Arruperen ondorengoa hautatzerik. Eta norbaitek zioenez, askatasuna aukeratu dute, libertatearen alde jokatu dute. Ez diote amen esan aita sainduari; «beren» jenerala aukeratu dute, eta ez aita sainduarena. Ez Pittau, ez Tucci, ezta Dezza ere; baizik jesuitentzat berentzat ere ia ezezaguna zen Peter Hans Kolvenbach holandarra. Zorionak jesuitei! Wojtyla-ren pentzakera eta jokabidea zertxobait ezagututa (barkatuko ahal dit Paloma Borrero-k nere ausartzia!), ez bait zirudien errazegia horrela jokatzek.

Jeneral berriari buruz prentsak eskaini dizkigu datu batzuk; ez gehiegi noski, ez bait zen itxuraz jeneralgaien artean sartzen. Elkarrizketako gizona da, zortzi (hamar dio zenbaitek) hizkuntza dakizki, espezialista da hizkuntzalaritza orokorrean, oso

ongi ezagutzen ditu Ekialde Hurbileko arazoak. Libanon berarekin urteak egin dituen lagun batek esan duenez, «Arruperen karisma du, eta euskaldunaren indarra ez badu ere, holandesaren sakontasuna du». Beno, ez du merezi estereotipoen atzean gordetzen den egiaz eta gezurraz hitzegiten hauek. Estereotipoak estereotipoak dira, eta ez besterik. Ez euskaldun guztiak gara kementsuak, ez holandar guztiak sakonak.

Dena dela, beste zerbait da hemen azpimarratu nahi dudana. Atseгина gertatu zait benetan, jeneral berriak jesuita guztiei zuzendu dien lehenengo eskutitzean honako hitz hauek aurkitzea: «Jaunak hartaz (Jesusen Lagundiaz) baliatu nahi du gure egunetako gizonen erreinuaren berri ona emateko, eta modu berezian *beren hizkuntzan* eta beren bizi-kondizioan mundu honetako bidegabeak eta injustiziak jasaten dituztenei» (azp. gurea).

Ez dakit, beharbada oker nabil, baina ez dut uste oso normala denik, eliz agintarien artean —eta bestelako agintarien artean oraindik gutxiago, agian— horrelako sentikortasuna aurkitzea hizkuntza zapalduen aldera. Hizkuntza zapalduen eta beren hizkuntza sufrimendu eta sufrikario bihurtzen zaien gizakien aldera.

Deus gutxi dakigu gizon honetaz. Hala ere, hona ekarri ditugun hitzek oso beraren alde hitzegiten digute. Ongi dago, eta eskertu egiten duzu, norbait edozein motatako bidegaberiak ukibera izatea; ukitu eta hunkitu egiten zaitu, ordea, «aita saindu beltz» berriak, amak emandako hizkuntza trapu zaharren kutxara zokoratua ikusten dutenen egoera gogoratzea aurrena, gaurko gizonak ezagutzen dituen injustizien artean. ■ *Pello Huizi*.

XABIER ZUBIRI

Batzuk, gure garaiko filosoforik handienetakotzat daukate, eta esan ere esaten dute haren pentsamenduak eragin handia izaren duela ondoko urteetan. Beste batzurentzat, berriz, metafisikaren azken bagoia da, eskolastika klerikalez josiriko azken bagoia.

Noski, kritikoa nor den eta zein ikuspegitatik begiratzen duen kontu, desberdina izanen da Zubiriren balorapena. Marxista ortodoxo, positibista, hizkuntz analitiko etabarrentzat, Zubirik ez du deus ere aportatu. Ez du estrategia iraultzaileak

eskaintzen jakin, ez du bere hizkuntzaren esanahia justifikatu eta bere ahalegin guztia laino metafisikotan urtu zaio. Eskolastiko zaharrentzat, aldiz, iraungo duen azken aldiotako filosofo bakarra da Zubiri, denborak hainbat saio parafilosofiko eta hainbat idazlan arin zokoratu eta gero. Heidegger-en ondoren, Zubiri bakarra izan da metafisika propio eta sortzaile bat egituratzeko gauza, bere «errealismo trazendental», alegia.

Niri neuri, desafio serio bat dela iruditzen zait Zubiriren filosofia reduktionismo eta pragmatismo marxista, positibista eta estrukturalistei, eta, une berean, garbi urruntzen dela aristotelismo eta eskolastika tradizioaletatik.

Bestalde, frogatua dago jadanik Zubiriren pentsamenduaren balioa eta gaurkotasuna: gogora Aranguren, Lain Entralgo, Ellacuría, Pinillos etab. en aipuko jendeak arrakasta handiz aplikatu izan diola haren errealismoaren hermeneutika Etikari, Medikuntzari, Teologia politikoari, Psikologiari, etab. Honek, Zubiriren filosofia tresna baliagarria dela frogatzen du errealitatea ezagutzeko eta horren transformazioa norabidatzeko.

Zubirik bere intuizio nagusiak utzi dizkigu: errealitatearen arlo desberdinei aplikatu behar zaizkie orain, egiteko bait dago. Zubiriren pentsamenduaren posibilitateez jabetzen direnei dagokie eginkizun hori.

Ikusteko gaude Zubirirekin gertatuko dena. Izan ere, haren obraren parte garrantzitsu batek —«giza adimena»zko trilogiak— ez du oraindik behar adina denbora izan aztertzeko; eta beste zati handi bat argitara gabe dago (urte gutxiren buruan argitaratzeko hitza emana da «Zubiri Mintegia»). Nolanahi ere, Zubirik ere Hegelen antzeko destinoa izango duelakoan nago: batetik, uste bait dut haren pentsamendua, idazlanen bitartez baino areago, ondoko ikasleen bidez ezaguteraziko dela; eta, bestetik, Espainiako egungo kultur egoerak bi korrante sorreraziko dituelako haren ondotik: «eskuin zubiriarra» bata, Zubiriren autoritatean oinarriturik, hark hain gogor kritikatu zuen eskolastika zaharra berreraiki nahiko duena; eta «ezker zubiriarra» bestea, maisuaren pentsamendua eboluzionarazten eta are bortxatzen saiatuko dena, dinamiko eta progresista bilaka dadin. Ezker-eskuinen mintzabide arin hau gora-behera, sinesturik nago, Zubiriren lana jasoko dutenen eskuetan dagoela, neurri handi batetan, haren etorkizuna.

Azkenik, etorri zaiola iruditzen zait Euskal Herriari Donostiako filosofoarekin adiskidetzeko garaia. Ezin konforma gaitetzke egunkarietako kunplutuekin edo lurremate «egoki» batarako epitafoekin. Zubirik utzi digun ondare filosofikoa sakondu beharra daukagu, gure kultur abiadurari txertatzeko. Gure Herriak, agian, euskaldun honen radikaltasun, kemen eta

razionaltasun sendoz berraztertu behar luke une honexetan bere burua. Ez liguke bide txarra eskainiko Zubiri zenak geure sus-traiak berriro aurkitzeko. ■ *Joan Mari Ilarduia.* (Itzultzailea: *Joan M. Iturria*).

ZERGATIK HIL DITUZTE?

Berrehun eta hirurogeitabederatzi lagun garbitu dituzte, 269 lagun. Garbiki garbitu, gainera. Ez guk, noski. Haiak, besteek, betikoek, guztiok dakigun horiek egin dute horrelako txikizioa.

Protesta ugari egin da ondoren. Hitz gogorrek entzun dira. Ordainzkatu ere egin dituzte batzuren batzuk hilkitza horren egileak; beste hitzez esanda, errepresaliak hartu dituzte hiltzai-leen kontra. Baina batzuen salaketan eta besteen zuriketa eta kontrasalaketen gaineratik —edo azpitik—, zein da egia? Zer gertatu da hor? (Beno, zer gertatu den jakina da: 269 gizon—emakume bidali dituztela beste mundura). Zer egiten zuen hor abioi horrek? Batzuek esan duten bezain «zibila» ote zen? Ala espioi-tzan zebilen, besteek salatu duten bezala?

Egia jakiterik ez dugu izango seguruenik. Hori ez dagokigu guri. Oinezko hiritar gizagaixook aski dugu jakitea, berrehun eta hirurogeita bederatzi gizaki desagertu direla beste gizaki batzuk hala nahita. Eta, zertarako jakin behar dugu gehiago? Zer irabaziko genuke horrekin? Une hauetan, izan ere, merezi du inorengan sinesteak? Gutxien espero dugunean, agertuko da libururen bat, gertaera horretaz egia osoa eta bete aginduko du-guna. Eta zer? Orain dela gutxi —urriaren hogeitabostean ari naiz hau idazten— liburudenda batean ikusten nuen liburuak eskaintzen zuenaren antzekoa izango da: *Toda la verdad sobre el caso Urquijo*, edo horrelako zerbait zioen liburuaren izenbu-ruak. Eta geroztik ari da, ari, datu interesgarririk ateratzen ara-zo horren inguruan!

Egia jakin nahiko genukeenoi hitzak ematen zaizkigu. Ugari eman ere. Baina hitzak, badakigu, haizeak eramaten ditu. Oker-rena da, oraingo honetan hitzak ezezik beste zerbait ere era-man duela haizeak: berrehun eta hirurogeitabederatzi gizon eta emakume eramaten ditu. Eta guk ez dakigu zergatik! ■ *Pello Huizi.*

«ZELO AKADEMIKOAK» ETA BESTE

Aurtengo urriak ere ekarri du bere polemika. Iaz holakorik izan zenik ez dut gogoan. Oso gogoan dut, hori bai, orain urte pare bat Luis Mitxelenak UZEIri egin eraso. Hura ere urrian izan zen (81.X.23an hitzaldia CAPen). Bazterrak astintzeko ohitura hau instituzionaldu egin beharko genuke, euskal kultura saneatzeko...

Oso kuriozosa gertatu zait polemika berri hau. Maite Echenique Elizondo hasten da: «Tesis y cosas de la Universidad» idazten du *El Diario Vasco* (83.X.06) eta *Deia* egunkarietan (83.X.9). Txillardegik erantzun egiten du, baina *El Diario Vasco*-k bakarrik publikatzen dio: «Maite Echenique-ri erantzunez» (83.X.15). Maite Echeniquek berriz: «Txillardegi y las cosas académicas» (*El Diario Vasco*, 83.X.24). Txillardegik: «Azkeneko aldiz Maite Etxenike-ri erantzunez» (*El Diario Vasco*, 83.X.26). Eta oraingoz azkenik Maitek: «Punto final» (*El Diario Vasco*, 83.X.30).

Antzeman daitekeenez, Txillardegi izan da salatua, eta salatailea Maite Echenique. Eta beti bezala, zurrumurruak berehala zabaldu dira. «Operazio» bat omen da.

Zurrumurruok euskaltzaleon afarietarako utziz, noan gertakarietara eta artikuluetara. Aurkeztu berria du bere tesia Txillardegik. Ameriketan landu zuen, Eusko Jaurlaritzaren beka batez lagundurik, eta Barcelonako Unibertsitatean aurkeztu. Hizkuntzalari diplomatua da, ba, orain. Sartu berri da Zorroagan Linguistika irakasle gisa. Maite Echenique ere hizkuntzalaria da, eta Madrileko Universidad Autónoma delakoan da irakasle.

Zein kuriozosa gertatu zaidan polemika hau aipatzen nuen hasieran. Zergatik kurioso? Ez al da kuriozosa holako salakuntzak egitea nork eta Maite Echeniquek, nori eta Txillardegiri, non eta egunkarietan? Oso kuriozosa da; ikus bestela:

- Maite Echenique bera Madrileko Unibertsitatean irakasle da eta Barcelonako Unibertsitatean bere tesia aurkeztu izana salatzen dio Txillardegiri.

- Erdaraz idatziz salatzen dio Txillardegiri tesia erdaraz egitea. Txillardegi «maximalista»ri «maximalistago» bat atera zaio Madrilen. (Txillardegik euskaraz eraman du polemika, eta Maitek espainieraz).

- Eusko Jaurlaritzaren beka baten laguntzaz Ameriketara joan izana ere gogoratzen dio Txillardegiri. Emandako laguntza

zenbatekoa izan zen eta dena daki Maitek, nola dakien guk ez badakigu ere. Maite Echenique oso ondo informatua dago behintzat, eta informazioa daukanak bakarrik ematen du. Mihn gaiztoek esan ohi duten baino «transparentzia» gehiago dago nonbait bazterretan.

Diru-kontuak zehatz eta mehatz agertu beharrean ikusi du bere burua Txillardegik. Hobe: Maite Echeniquek behartu du horretara. Jarrai dezala Maitek, denon onerako, salakuntzak eginez, ea kultur ingurune hau «kristalezko etxe» bilakatzen zaigun, «zenbait kontu» jakiteko irrikitan gaude-eta geu ere. Euskal kulturaren onerako, noski. Beti bezala.

• Idazle ona omen da Txillardegi, oso ona. Baina linguista? Besterik da ori. Hor zalantza, duda, galde-zinua. Ikusteko bide dago hori. Argitaratu eta gero ikusiko omen dugu tesiaren balioa.

Txillardegi hizkuntzalariaren balioa neurtzeke al dago, ba, oraindik? Hau ez da Txillardegiren lehen lana hizkuntzalari gisa. Orain arteko haren lanekin, ezagutu eta gero, Maite Echenique isilik geratu bada, nondik nora oraingo larriak, tesia ezagutu ere egin gabe? Kuriosoak dira «zelo akademiko» hauek...

Dena den, Maite Echeniquek Txillardegiren tesiaren balio zientifikoa, ezagutu aurretik, auzitan jarri nahi zuen. Baina benetan auzitan jarri, tesi-zuzendariaren eta tribunalaren onestasisun zientifikoa jarri ditu. Zer, euskaraz jakitea edo euskarari buruz zerbaitetan oso jakitun izatea aski garantia ote da, tesia Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztuz gero, azentuaren ikerketan ere? Tesia euskarazko azentuz omen bait da gure kasuan, ez euskarari buruz orokorki. Badirudi Joan Mascaro ez dela gauza zer zuzentzen eta epaitzen ari den jakiteko. Eta berdin tribunaleko besteak, Patxi Altuna, Jean Harischelhar, Jose Manuel Blecua, Ramón Cerdá: *Compañeros de viaje* edo *tontos útiles* izan ote dira hauek?

Amaitzeko, eta esandakoa laburbilduz, Maite Echeniqueren erasoan bi salakuntza nagusi ikusten ditut nik: diru-arazoa eta jakintzaren kalitatea. Baieztu baino gehiago erdizka esanez, iradokiz, aditzera emanez: jokoerak oro ez bide daude argiegi, zerbait ezkutatzeko interesa bide dago, diru-iturriak aipatzen dira, aidean eta zalantzatan uzten da lanaren balioa, auzitan jartzen da prozedura eta kalitatea.

Diruen arazoa eta jakintz kalitatea, hona Maite Echeniqueren erasoaren funtsa. Oker ez banago, ez al zion hori bera salatu Luis Mitxelenak UZEIri duela urte pare bat? ■ *Joan Alzibar*

ETA ZER DIO GAUR EUSKALTZAINDIAK?

«Euskaltzaindiak... hiztegi lana du bere eginkizun nagusienetako». «Euskaltzaindiak *aspaldidanik* hasiak [lanak] aurrera daramatza *ahalik eta lasterren buru emateko* asmoz». a) Hiztegi orokorra eta hiritartua, edo gaurkotua, Euskaltzaindiaren eginkizunetan sartzen dira... b) Hiztegi gintzarako batzorde bat sortu beharra ikusi da. Eta *lebenbaitleben* sortu ere (Euskaltzaindiaren 1981eko abenduaren 28ko bilerako Agirietatik).

«Nork uka, gizarte-premiei, eskola, administrazio eta kaleko eskeek aurrea hartu digute. Egia da, beranduska gabiltza. Eta, jakina, istilu hauek ez ziratekeen gertatuko, edota guztiz beste-lan, bederen, Euskaltzaindiak bere-berea duen hiztegi-lana *burururik* izan balu. Baina *hori ez da luzatuko*. Aurki ezarriko dira bideak» (E. Knorr, 1982ko urtarrilaren 29ko *Deia*-n).

«Hizkuntzaren mailan, zuzendaritzaren arazoa gaur orekan baldin badago, edo-ta zalantza nabarmenean, eta ez Euskaltzaindiaren manupean, arrazoi ximple batengatik da: urte on batzuek izan ondoren gure Akademiak, *euskarak duen egiazko problematikari uko egin diolako*. Errazago baita (errazago baita, bai, erraza ez izanik ere) euskalki zaharraren gorabeherak eta bilketak aztertzea, euskara batuari buruz mamituz eta osatuz joatea baino» (Txillardegi, 1982ko urtarrilaren 19ko *Egin*-en).

Istilu haundi baten erdian. Eta gero?... Hitz bat estatistikazaleei: har bitez *Euskera* aldizkaria eta Euskaltzaindiaren azken bi urte hauetako bilera guztien Agiriak, eta atera bedi polliki-polliki tratatu diren gaien batzuek bestekoa bi kolumnatan, «euskalki zaharraren gorabehera» horiek alde batetan (Euskaltzaindia atzera begira) eta euskararen normalizazio premiei buruzkoak geroari begira bestean. Nora dago begira gaurko Euskaltzaindia? ■ *Joxe Azurmendi*

Hizkuntzalaritza eta giza gozoaren natura*

Noam Chomsky

Ia ia astirik ez daukadanez gero benetazko erresultatuak aukezteko, zirriboratu nahiko nuke zein izan litekeen, lengoaiari buruzko arazoak eta, bidebatez, ezagutzaren eta sinesmenaren beste sistemak ere, estudiantzerakoan aukera genezakeen bide aproposa. Bi hitzez esatearren, nire ustetan, sistema hauek ikertu beharko lituzke batek, beste edozein sistema biologiko, gorputzaren edozein organo, odolaren ibilbidea, adibidez, edo organismo konplexuaren parte den beste edozein sistema estudiatzen den modu berebean.

Hurbil gaitezen kontu honetara zertxobait diferente den ikuspuntutik. Lengoaiaz, edo beste edozein ezagutza- edo sinesmen-sistemaz ari bagara, zein motatako galderak egin nahiko genizkioke gure buruari? Haue-tatik, hiru dira nagusi. Lehena, hain zuzen ere, hauxe dugu: zein da sistema honen natura? Zer da guk dakiguna, zer, zuek eta nik ezagutzen duguna, ingelesa, esate baterako, dakigunean? Zer osatzen du elkarrekin kon-partitzen dugun ezagutza hori? Hauxe dugu lehenbiziko galdera. Jakin nahi dugun bigarrena zera da: nola sortu zen ezagutza hori, nola iritsi ginen ezagumendu honetara? Jakina denez, galdera hau Platonen garaikoa dugu. Hirugarren galdekizuna, berriz, hauxe litzateke: nola jartzen dugu

* 1980ko azaroaren 2an emandako hitzaldia goizeko hamarretan Minnesota-ko First Unitarian Society of Minneapolis delakoan. P. Salaburuk itzulia.

abiadan dugun ezaguera hori? Zerk eragiteen dit neri oraintxe diodana esatera eta zerk zuei, nahi zenezaketen erantzuna ematera, etab.? Bada-go, egon ere, beste kontu asko, esaterako, nola sortu zen ezaguera hau desarroilatzeke gaitasuna espezieen bilakabidearen historian barrena. Hau ere galdekizun posiblea da, baina lekuz kanpo dagoela dirudi. Dena den, goian jarritako hiru galderak, gutxienez, estudia ditzakegu. Esan dazagun zerbait bakoitzari buruz.

1.

Lehengo galdera dugu oinarritzkoena, zeren bigarren eta hirugarrenak nahi duten erantzuna ezin bait da bete, lehenengoari erantzunen bat ematen ez bazaioa. Zehaz dezakegu nola sortzen den ezaguera eta nola erabiltzen dugun ezagutza hori, aldeztu aurretik gai baldin bagara lehen galderari dagokion erantzunen bat aurkitzen: zein da barnerratu dugun ezagutzaren natura; zer dute amankomunean zuen eta nire gogoaren egoerek, nik esaten dudana zuek ulertzeko eta zuek irazkinduak, ondoren, nik ere ulertzeko? Argi dagoenez, hasteko, ezagutza horren natura ikertu nahiko luke batek lehenengo eta behin. Hau, arazoaren barneko logikari berari dagokio. Lehen galdera baztertuz, gainerako galderari erantzuna ematen saiatzen dena, alferrikako lanean sartzen da.

Hain zuzen ere, arrazoi honengatik beronengatik, psikologia eta filosofia modernoak aukeratu dituzten joerak irtenbiderik gabekoak izan dira. Argigarri ditugu hemen behaviorismoarekin erlazionatzen diren lanak, zeinak gaur egun ezertan ere ez bait dira geratu. Honi buruz, ez dago gauza handiegirik esateko, baina garai batez korrante hau izan dugu nagusi kontu hauek ikertzeko orduan. Atzera begiratu, badirudi argi egon behar zukeela hasiera-hasieratik horrelako joera batek ez lukeela inoiz ere egiazko emaitzarik izanen. Arrazoa? erantzun behar zuketuen lehen galdera —hau da, zer da ezagutzen duguna, zer da ikasi duguna, zein da lortutako ezagutza sistema?— baztertu egin bait zuten. Zentzugabekoa izango genuke, adibidez, nola lortzen duen enbrioak bere heldutasuna ikertzen saiatzea, heldutasun honen egoerari buruzko kontzeptiorik aurretik izango ez bagenu. Ez luke biologo batek ere horrela jokatu. Era berean, bada, nola lortzen dugun ezagutza-egoera hau edo nola ikasten dugun deskribatzen saiatzeak ez du funtsik, baldin ikaste-prozesua amaitu ondoren lortzen dugun ezagutzari buruzko ulermenik aldeztu aurretik ez badugu. Horregatik, gure lehen lana, bada, zein den lortutako gogoaren egoera zehaztea izango da; egoera hau, sinesmen edo ezagutza-sistema bera, hizkuntz ezaguera kasu honetan, konpartitzen duen jendearen artean aurkituko da.

Biderik errazena, lehen galderari erantzun nahi diogunean biltzen den guztia zehazteko, adibide batzu paratuz aurkeztuko dugu. Har dezagun bat edo bi, erreferentzia legez ez bada ere. Adibideak nahasgarriak izaten dira, gutxietsi egiten bait dute ezagutzen dugunaren izaera konplexu eta koropilatsua; baina hori, adibideak emateari berez datxekio. Ikus ditzagun, bada, kasu bakan batzu eta ohar gaitezen zer nolako ezagutza-moten berri eman behar dugun. Zuok eta nik ingelesa ezagutzen dugunean, edo beste herri bat japonieraz, esaterako, mintzatzen denean, konpartitzen den ezagutza horren alderdi bat da, hain zuzen, hizkuntza horri dagozkion eta ez dagozkion soinuak berezteko daukan trebetasuna. Eta, gainera, hizkuntza horretakotzat jotzen ditugun soinu horiek esanahi zehatz batzu dituzte eta ez, ordea, izan zitzaizkion beste batzu. Hortxe dago kontuaren gako. Lehenengo eta behin, soinuak eta esanahiak elkartzeko dugun ezagutza oso zabala da alde batetik, esakera infinituak besarkatzen dituelako eta, bestetik, oso zehatza, bikain eta xehea, edozein adibide ikertuz ikus daitekeen moduan. Pentsa dezagun, esate baterako, nik esaten dudala Jonek erosi diola Mireni txakur bat jolasteko. Azter dezagun, baa, perpaus hau: «Jonek erosi dio Mireni xakur bat jolasteko». Jakin badakigu, norbaitek beste norbaitekin jolastuko duela eta ezagutzen dugu, gainera, nor den hau: Mirenek jolastuko du txakurrarekin. Beraz, perpaus horrek esan nahi duena zera da, Jonek erosi diola Mireni txakur bat, Mirenek txakurrarekin jolas dezan. Ohar gaitezen ezagutza hau ez dela explizitua perpausaren, hots, ez dago ezertxo ere perpaus horretan argi eta garbi esaten diguna Mirenek jolastuko duela txakurrarekin. Horrela, galde geniezaioke geure buruari zergatik ez dugun ulertzen perpausa beste esanahi honekin: Jonek erosi dio Mireni txakur bat, txakurrak Mirenekin jolas dezan. Edo, Jonek Mirenekin jolas dezan edo nik Mirenekin jolas dezadan. Ez dago seinale garbirik goiko posibilitate horietako edo beste batzuetako bat, zuzena, berezteko. Hala ere, denok ulertzen dugu perpaus hori zentzu zehatz batetan ahalegin kontzienterik egin gabe eta, gainera, bat batean; hau da, kasik pentsatzeko astirik ere eduki gabe, denok ulertzen dute perpaus horren esanahia: Mirenek jolastuko duela txakurrarekin. Eta zuok ezagutza horretaz jabetzen bazarete, konturatu zarete oso harrigarri eta miresgarria dela. Beste interpretazio guztiak zentzudunak dira, hots, hizkuntzako perpaus posibleak dira, zuok esan zenitzakete perpaus horiek, baina goiko perpausak ez du haietako bat bakarraren esanahia ere. Eta, argi dago, aukera guzti horien desberdintasunak oso eskasak ditugu. Mirenek txakurrarekin jolastea edo txakurrak Mirenekin jolastea ia ia gauza bera da. Biak dira sinonimiaren hurbileko, sinonimoak ez badira. Hala ere, guztiok dakigu perpaus horrek goian emandako esanahia daukala: Jonek Mireni txakur bat erosi dio Mirenek txakurrarekin jolas dezan eta ez txakurrak Mirenekin jolas dezan, bi aukera horiek, praktikoki, egiazki ez bada, sinonimoak diren arren.

Hau, batek duen ezaguera—motaren ezaugarria da eta horrela gertatzen da gure gogoak ezagutza—bidezko sistema konplexuak desarroilatzeko egokiturik daude, edozein eremutan. Zenbait eremutan, hain zuzen ere, gure gogoak egokitua bait dago, beste batzutan horrelakorik gertatzen ez bada ere. Lengoiaren kasua argia da: eremu honetan, harrera izugarriko —harrera infinituko, hain zuzen— eta zehatzeko ezaguera bihurri baten egitura xeheak eta oso—oso bereziak desarroilatzeko egokiturik daude. Lengoaia dela eta, batek, bada, ezaguera horren berri eman nahiko luke, hau da, zehaztu zer den gure gogoak lortu duena gu honela gaitzeko aukera handiko putzu bateko honelako eritzi zehatz eta xeheak hauta ditzagun soinu eta esanahiei —edo perpausen beste propietateei—buruz. Gaur egun ez da ulergaitza nola egin hau; problema aunitz dago, baina kontu asko ere ulertzen dira. «Zer da dakiguna, hizkuntza bat ezagutzen dugunean» galderaren erantzuna, hauxe da: gramatika bat dakigu, nolabait ere antolaturiko arau—sistema eta printzipioak osatutako gramatika, nolabaiteko propietate bereziak dituen gramatika, etab. Azkeneko 25 edo 30 urte honetan ikerlan argigarri asko burutu da ingelesa eta xeheki aztertu den beste zenbait hizkuntzako arau horien natura zorroztu eta zehatzuz; esan dezadan, bide batez, ez dela, ikuspuntu honetatik, hizkuntza gehiegi aztertu zehazki, baina bai hizkuntza zenbait, eta orainxe bertan aipatu ditudan eritziak ematerakoan biltzen diren arau—sistemei buruz hizkuntzalariok gaur egun daukagun ulermena indartu egin da.

Ezagutza—sistema osatzen duen arau—multzoa zehaztea, ez da kontu erraza. Hori egiteko gai garen era berean, gure gogoaren osagai baten deskribaketa dugu, gure burmuinaren osagaia dena, azken batean, hau da, gure burmuinak eremu batetan dauzkan propietateen deskribaketa abstraktu bat ematen dugu.

Antzera gertatzen zaigu, adibidez, ikusmenaren sistemarekin ere, itxurazko mugimendua edo azaldu nahi dugunean. Aurkezten badizkiozue norbaiti objektu baten segidako aurkezpenak eta hori behar bezala egiten baduzue, besteak mugitzen dela ikusiko du objektu hori. Galde daitekeena, eta psikologo pertzeptual batek galdetuko luke, zera da: zergatik gertatzen da horrela hori? Zergatik ikusten duzu «mugitzen» geldirik dagoen objektu hori? Azken batean, aurkezpen horiek beste interpretazio askorekin ere bat etor litezke. Aurkitu izan dute zientzialariek gogoak zurruntasunaren printzipioaz baliaturik operatzen duela: hau da, gogo/burmuinaren sistema konputatzaileak onartzen du mugitzen den objektua zurruna dela eta saiatzeko orduan ulertzen aukezpenen sekuentzia hori objektu zurrun beraren joera eta norabideko aldaketa legez. Hau gaizki egon liteke. Objektu hori zurruna ez balitz, burmuina problematan egon litzateke, baina zerebruak, baldintza batzuk emanez gero, horrela interpretatzen du aurkezpenen segida. Pentsa ezazue, esaterako, beste adi-

bide honetan: jartzen duzue figura laun bat begien parean perpendikular-ki eta gero bueltatu, linea bat balitz bezala gelditu arte. Zuek objektu jirakari bat ikusiko duzue, nahiz eta zuen aurrean pasatu den aurkezpenen sekuentziak beste interpretazioak ere onartzen dituen: izan zitekeen ez laun jirakari bat, linea bihurtu arte bildu egin den beste zerbait baizik. Ez dirudi, ordea, zuek horrela onartzen duzuenik. Are gehiago: baldintza experimental batzuen menpean, objektu bat bueltaka «ikusiko» duzue, beste zerbait izanik ere. Berriz ere, arrazoi berbera egon daiteke hor: zurruntasunaren printzipio batek makurtzen du gogo hori horrela ulertze-
ra. Zurruntasunaren printzipioaren antzekoak aurkitzen saiatu behar du-
gu gramatikan ere: ukitzen gaituzten soinu-uhinei esanahi eta interpreta-
zio bat eman diezaiegun mugatzen gaituzten printzipioak, kasu honetan.

Hizkuntz adibidera itzuliz gero, prolemarik interesgarriena da azal-
tzea zergatik dakigun emandako perpaus horrek duela daukan esanahia. Gure ezaguera deskriba genezake, baina bazterrezinazko galdera bestea da: nola lortu dugu ezaguera hori? Zein izan liteke galdera horren eran-
tzun onargarri bat? Ikusmenari buruz emaniko adibideak argi liezaguke kontu hau: azaldu nahi dugu zuek figura laun jirakaria ikusten duzuela eta ez linea bihurtutako objektua. Printzipio abstraktu batetara joz azaldu beharko litzateke hau, zurruntasunaren printzipioa, kasu honetan, ikus-
keraren parean jartzeko zaintzen diren baldintzak, objektuak behar duen urrunera eta horrelakoak zehazturik. Teoriak esango liguke, zurruntasunaren printzipioa dela medio eta beste datu guztiak direla bide, zuek objektu jirakaria ikusiko duzuela nahi ta ez.

Antza denez, batek eskolan ikasi dituen gauzarik oinarritzkoenetan ematen diren azalpenen parekoa da hau ere. Kentzen baldin badut erlo-
jua eskumuturretik eta lurrera bota, deskriba genezake nola erortzen den. Hori da kontu bat. Esan nezake segundu batzuz jo duela lurra. Baina egi-
tea deskribatu nahi izanez gero, beste halako edo holako printzipio bate-
tara jo beharko nuke, gorputzen jauskera—legera, esaterako, eta beste da-
tu nabarmen zenbaitetara, metro bat edo kurritu duela zehaztuz. Horrela, gorputzen jauskera—legea eta tarteko metro hori kontutan harturik, alde-
z aurretik esan ahal izango dugu erlojuak *n* segunduz jo duela lurra. Hauxe da azalpen estandar tipo bat. Gure kasuan ere, honelako azalpen es-
tandarrok erabili beharko genituzke. Zuek, ulertu duzuen moduan ulertu duzuela perpausa azaldu nahi baldin badut, halako printzipio batetara jo beharko duzue eta printzipio hau izanen da —logikaz hala izan behar du—, gogo—barruari dagokion printzipioa, giza gogo osatzen den mo-
duarekin zuzenean erlazionatzen den zerbait. Eta orduan gaineratuko nu-
ke, behin printzipio zehatz hori eman ondoren, datu nabarmenak aurrez
*aurre paratu ondoren, deduzitu ahal izango duzue zuek horrelako per-
pausak halako esanahia duela alde z aurretik esateko gai izanen den arau-*

—multzo bat desarrolatuko duzuela. Datu nabarmen horiek, gure kasuan, haurrari aurkezten zaizkion datuak dira. Printzipio orokorrak giza gogoaren hasiera—mailako osagaiak dira, heredentzia biologikoa beraz. Giza embrioiak besoak —eta ez hegoak— sorreraziko dituelakoarekin parekatzen den heredentzia.

Antzera, ikusmenaren kasuan ere, batek onartu beharko luke zurruntasunaren printzipioa sortzekoa dela, hau da, pentsamenak interpreta-tzen ditu aurkezpenak, objektu zurrun mugikarien aurkezpenak bailiran. Esperientzia ernerazlea emanik, sistemaren desarrolloa pizten duen ezperientzia emanik, sistemak egoera lortzen du, guk daukagun egoera, eta egoera honetan ikus ditzakegu objektu jirakariak «ikusten» ditugun moduan.

2.

Kontura gaitetzen, fenomeno hauek azaltzea eta ezagueraren jatorriaren berri ematen saiatzea, gauza bera dela azken funtsean. Ezagueraren jatorriaz zerbait esan nahi bada —hauxe zen gure bigarren galdera— zein zen hasierako egoera (egoera emana), zein zen egoera biologikoa zehaztu beharko dugu lehenengo eta behin. Daukagun ezagueraren zergatia azaltzeko bide bakarra horixe da. Mantentzen dugu gure gogoak honela edo horrela osatuta daudela heredentzia genetikoari esker, eta hori horrela izanik, prozesatze egoera modu bat hartzen duela ikusmen sistemaren kasuan; eta, benetan, edozein organo fisikoren kasuan antzeko gauzak esango genituzke. Badugu eman genetiko bat, badago ingurunearen *input* zerbait eta, ondorioz, bilakatzen gara garen organismo. Horrela azaltzen dira desarrollo biologikoak eta hauxe dugu, baita, hizkuntz ezagueraren desarrolloa ere. Hori gertatzen da, azkenez, espezifikoki prestatuta gauden beste edozein sinesmen—sistema edo ezagumenen kasuetan.

Kontu nagusia da gu espezifikoki prestatuak gaudela sistema hauek edukitzeko; horregatik gara ditzakegu egiten dugun arintasun eta xehetasun harrigarri horrekin. Gure eginkizuna, bada, gogoaren printzipio sortzeko edo innato horiek zehaztea da: zein dira oinarriko printzipio horiek, haurtzaroen datu huts batzuren aurrean aurkitzen garelarik ondorio kurioso eta zehatzak dituen ezagutza—sistema honekin amaitzen dugula? Hauxe dugu kontuaren gune eta bihotza, eta kontu honetan ere sortzeko printzipioak direla eta, edo, hizkuntz literaturan aurkitzen den termino teknikoagoa erabiltzearen, gramatika unibertsala dela eta —ohizko nozioak daukan zentzu modernoarekin—, ikerlan handiak egin izan dira. Gramatika Unibertsala bada, heredentzia genetikoaren osagaiak diren eta gogoak bilaka ditzakeen sistema—motak —ikas ditzakegun hizkuntz mo-

tak— mugatzen dituzten printzipio horien ikerketa da. Hemen ere ikus daiteke aurrerapena. Azkeneko hamar urte honetan edo, printzipio argigarri hauek zehazten aurrerapen sustantziala egin da eta horren arabera hobeki azal daitezke orain nola desarroilatzen ditugun izaera hau duten ezagutza-sistemak.

Hauxe da bigarren galderaren —eremu honetan egin daitekeen galde-erarik sakonena— forma, gehiegi zehaztu gabe planteiatua. Zergatik zai-gun hain atsegin hizkuntzak ikertzea zehaztu nahi baldin badugu, arrazoi bat izango litzateke konturatzea eremu hau dugula, beharbada, eta natur zientzietatik kanpo, galderak egin eta erantzun ez—hutsak bila daitezkeeneko alor bakarra. Ikusmenaren teoria izan liteke beste bat, baina ez dugu erraz asmatuko horrelakorik gertatzen den psikologiako beste arearik.

3.

Itzul gaitzen istanpatez hirugarren galdekizunera: nola jartzen dugu abiadan ezagutza hau? Zer egiten dugu ezagutza honetaz baliaturik? Hemen, ene eritziz, ez dago erantzunik. Orain duela bi mila urte zeuden leku berean gaude gu ere. Galdera egin dezakezue, baina maila taxonomiko deskribatzailetik harago ez du inork ezertxo ere esanen. Batek eman litzake taxonomia deskribatzaileak edo hizketa egintzak deitu izan diren horietakoak, edo eta elkarrizketarako printzipioak formulatzen saiatu: ez aipatu, adibidez, entzulegoak entzun nahi duena baino gehiago edo ez esan garrantzizkoa den baino gutxiago, etab.; printzipio horiek benetazkoak dira, seguraski ere, baina ez, ordea, argigarriak, nire ustez behintzat. Bestaldetik, hizkuntzaren —edo, nahi bada, beste edozeren— eza-gueraren erabilera arautzen duten printzipioak aurkitzen saiatzen baldin bagara, pareta baten kontra joko dugu. Ez dut esan nahi galdera hauek ezin egin daitezkeenik; oso errazak dira zehazteko; adibidez, ondoko hau galde genezake: nola auresango zenuke zuk egin behar duguna, jakinaren gainera gu honelako edo horrelako mekanismoak garela, eta holako edo halako eragingarriek ukitzen gaituztela? Galdera hau ez da funtsik gabekoa; galde dezakegu hau automata bati buruz, esaterako, eta erantzuna jaso. Baina gizakiaren kasuan, eta animalien kasuan ere seguruki, ez da erantzunik egonen. Ez—gaitasun hau ez da oraingoa aurkikuntza —beraz, oso zaharra da—; galde genezake. alabaina, zergatik den egia.

Merezi du aipatzeak, gaur egun zientzia kognitibotzat hartzen duguna desarroilatzen hasi zenean —nire ustetan, Descartesen garaian, gutxi gora behera—, problema guzti hauek behar bezala eta oso zehazki kokatzen zirela. Hirugarren galdekizunari dagokionez kartesiarrek onartzen zuten —eta hau, haien ideien bihotzean aurki zitekeen— oinarritzko des-

berdintasuna dagoela mekanismo eta gizonezkoen artean, mekanismo eta automaten kasuan egin bait dezakegu galdera hau; hau da, automatekin ari bagara, erantzunen bat aurki geniezaioke ondoko galdera honi: sistemaren egoera eta eragingarriak alde zurretik eman ondoren, zein da hurrengo egintzen posibilitateen banaketa? Zerk mugatzen du ondorengo egintza? Galdekizun hau erantzugarria da automaten kasuan. Baita, kartesiarren ustez, animalien kasuan ere, haiek ziotenez automatak bait dira azken hauek. Baina, ongi aski dioten moduan, eragingarriek «bortxatu» egiten dute —estimulazioak bortxatu egiten ditu animalia eta makinak— animalia, eta «bultzatu edo makurtu» bakarrik gizonezkoa, egintza hau edo ondoko hura burutzerara. Formulaketa honek ate bat irekitzen digu: asma genezake, goikoaren arabera, motibazio-teoria emankor bat edo, nahi bada, giza portaeraren teoria, zeren eta zuek bultzatzen duzuenera makurtuko bait litzateke jendea beharbada. Orduan, giza portaeraren teoria zehaztu eta finkatzeko gai izan gintezke. Baina bestaldetik, ezinbesteko zerbait galduko genuke: «bortxatzea» eta «bultzatzea edo makurtzea» kontzeptuen artean dagoen desberdintasuna, hots, aukera diferentiek egin ditzakezulakoa galduko genuke kasu honetan, eta aukeragarritasun hori fenomenologikoki jakindakotzat ematen da.

Ene ustez, hori egia dugu. Oraintxe gure aurrean eskua daukagula —edo antzeko zerbait— bezain argia da beste zerbait egitea aukera genezakeela. Emandako esperientzia da hori. Kartesiarrek zuzen jokatu zuten, nire ustetan, «bultzatze edo makurtze» eta «bortxatze»aren artean zulo kontzeptual izugarri bat zegoela ziotelarik eta zulo hori dago, hain zuzen, bete gabe oraingoz. Horretarako ez dago erantzunik. Ez dago horretarako nondik has gintzekeen ere zehazteko modurik. Kartesiarren eritziz, ezin izango genuke hurbileko ideiarik ere izan honi buruz, problemaren naturari bait dagokio, hau da, kontu hau ulertezina izango litzateke eta ez legoke inola ere hori uler lezakeen pentsamen edo gogorik. Gogora dezagun kartesiarrek gogo bat bakarra zegoela mantentzen zutela; gogo—mota bat baino ez badago, kontua ulertezindakotzat hartu beharko dugu. Guk, gure aldetik, onartu beharko genuke giza askatasunaren arazoa erantzunik gabe dagoela eta egongo dela ere; honek ulertezina ematen du, baina datuek horixe diote. Ikuspuntu hau ez da guztiz desegokia: birformula genezake berriro gaurregun hain hertsia ez den joera bat onartuz. Esan dezagun, bada, ezagutzen dugunaren arabera galdekizun hauek erantzunik gabe dituela giza pentsamenak. Giza gogo, gure ikuspuntutik, sistema biologiko bat da, ez unibertsala baizik bilaka zitezkeenetik bat. Arrazonagarria litzateke, bada, sistema biologiko honek bere mugak dituela onartzea, beste sistema biologikoekin gertatzen den moduan. Muga horiek zehaztuko dute kontu batzuk ulergarriak ditugula, baina ez, ordea, beste zenbait. Hau honela gertatzea arrazonagarria da. Beste organismo-

ek ere horrelako propietateak aurkezten dituzte eta ez gara, haatik, harrizten. Ikusi ahal izango dugu, adibidez, arratoi bat ezkerretara, eskuinetara, berriz ere ezker-eskuinetara tunel batetako irtenbidea aurkitu ezin duela. Saia gintezke horren zergatia aurkitzen: seguraski ere arratoiaren burmuina ez bait dago holako kontuak konpontzeko diseinatu. Eta ez dago arrazoirik, giza gogoaz guztiz desberdina eta edozein problema konpontzeko moldatua dela baieztatzeko; hori oso gertagaitza izango litzateke. Mantentzen badugu, ordea, gure pentsamena problema-mota batzuk bakarrik konpontzeko moldatua dela, eta hauetako zenbait, gainera, oso argi —hizkuntza ikasteko arazoa, adibidez—: hori gertagarriago izango litzaike. Eta ezaguera izugarri hau bai fintasan harrigarriaz desarroitzen dugula; egiten dugu hori nahiko denbora laburrez, datu mugatueta oinarriturik eta denok antzera. Fisikoki hazten garen bezala: garen garena bilakatzen gara enbrioiak eta sortu ondoko inguruneak ematen digun informazio mugatua dela medio. Enbrioiak nolabaiteko janaria hartzen du, baina janariak ez dio esaten enbrioiari gizonetako —eta ez, adibidez, zinaurri— bihurtzeko. Hau, diseinuari berari datxekion zerbait da: gizonetako izateko diseinaturik dago. Ezagueraren hazkuntzan ere antzera gertatzen da, ezagutzen ditugun eremu mugatu horietan behintzat, hizkuntzaren ezagumenaren hazkuntzan, esaterako. Baina badago beste kontu asko, zeinak erantzuteko diseinatuak ez garen. Eta ez dago arrazoi garbi-rik pentsatzeko horiek erantzuteko inoiz ere gai izango ote garen.

Kontu hau, jakina, espekulazioa da; baina ematen baldin badiozue zuek giza pentsamenaren historiari begirada bat, aurkituko dituzue erantzunik gabeko zenbait gai, inork ere ez dakiela zergatik den hori. Adimena historian, gutxitan egin izan dira benetako aurrerapenak, Galileo-ren Iraultza delarik handiena; egiazko erantzun sakonak aurkitu zitzaizkien galdekizun intelektualei giza historiaren garai hartan. Orditik hona, natur zientziek desarroitatu duten ia ia gehiena haren garatze bat da. Baina posible izan zitezkeen beste kontu anitzetan, aurrerapena mugatua izan da. Galdera gutiri ematen zaio erantzun egokia. Galderak planteia daitezke eta lan deskriptiboa ere egin, baina problemarik oinarritzkoenak ez dira sekula ere ulertzen. Honek, giza gogoaren propietateak islada litzake eta ez gure harritu behar horregatik. Dena den, gauzak diren moduan, gaurregun saia gaitzke erantzunak ematen hasieran planteiatu ditudan bi galderei: zein da loitutako ezaguera-sistema eta nola lortu dugu hori, zeintzu dira ezaguera hau lortzera gauzatu gaituzten sortzeko printzipioak? Hala ere, ez dugu modurik jakiteko gure portaera eta jokaeraren zergatiari buruz, ez dugu jakingo ezer hizkuntzaren erabileraz edo, nik dakidala, beste edozeren erabileraz; honek ez du motibaketaren teoriak egon litezkeelakoa ukatzen. Ez eta auresanei buruzko teoria arrakastadunak ere. Baina hori beste kontua da.

Esan dezadan orain hitz-pare bat hauen inguruan aurki daitezkeen beste hurbilketei buruz. Orain arte esandakoa da, ez dago dudarik, kontu hauek ikertzeko bide bakarra. Nire eritziz, horixe dugu bide zuzena, baina ez da erabiltzen den bide bakar edo karakteristikoa. Aipatu, gutxienez, egin behar ditugun beste batzu ere badaude. Huetako bat oso arrunta eta herrikoia zen orain duela 20-30 bat urte: behaviorismoaren aldakiren bat. Ez du erresultatu seriorik eman. Hau da, nire ustez, patologia intelektualaren historiaren parte bat. Hasieratik argi egon behar zukeen ez zuela kontutan hartzeko emaitzarik izanen, galdera gunea, hain zuzen ere, baztertu egiten bait zuen: zein da lortutako ezaguera-sistema? Behavioristen literaturara begiratzen baduzue, konturatuko zarete ikasteari buruz hitzegiten den bitartean, ez duzuela ezer ere aurkituko ikasi egin denari buruz. Benetan, «ikasi egin den» kontzepturik ez dago han. Behaviorismoaren aldaki bakoitza mugatu egiten da alde zuzenetik *a priori* metodologiko bat dela medio, onargarri izan daitezkeen teoriaren eraiketa mugatuaz. Ideia hau ez lukete zientzia naturalek jasango. Nolabaiteko mugak onartu behar dira konstrukto teorikoak finkatzerakoan. Deus ere ez handik harago. Behaviorismo erradikalean puntu hori zero da: mintza gaitzeko ikusten ditugun gauzez bakarrik. Behaviorismoaren beste zenbait aldaki ez dira hain hertsiaik eta hala-holako puntu batetarako teoria eraikeketan onartzen dituzte — kinada eta erantzunen barruko aurkezpenak, adibidez. Beste batzuk oraindik urrunago doaz, baina oinarritzko ideia zentzurik gabekoa da. Esan nahi da, ez da zilegizkoa *a priori* edo muga dogmatikoak inposatzea teoriaren eraikeketan. Natur zientziak honela planteatu izan balira, ez genukeen ez eta Babiloniako astronomiaren mailarik ere lortu izango. Hau denau atzendu behar dugu. Gure buruari galdetu behar diogun gauza bakarra, kasu honetan, da zergatik egin ote zion norbaitek kasu honi. Galdera interesgarria da. Zientziekin zerikusirik ez badu ere.

Kontu huetan joera serioagoa, eta kontutan hartu behar duguna, Ginebrako Eskola bezala ezagutzen dugunak, hots, Piaget eta honen eskola-koek, hartzen dute. Serioagoa dugu ikuspuntu hau, zeren haiek saiatu bait dira zehazten begien bistan dagoen egia: badaude ezaguera eta sinnesmen-sistemak, gure jokabidean jartzen ditugunak abiadan. Sistema hauen naturari buruz esan nahi zuten zerbait. Ematen badiozue begirada bat Piageten idazlanari, aurkituko duzue desarroilo-egoerak erakitzen saiatu zela, haurrak hau edo bestea egiteko gaitzen dituen ezaguera hasieraren egoerak. Piagetarrek ez dute, egia esan, gehiegi ikertu hizkuntza bera, baina saiatu izan dira aztertzen eta hori egiterakoan, aipatu nahi dudan seriotasuna erabili izan dute. Ikerlan horrek porrot egiten du, berriz ere, zenbait dogmarengatik. Berehala azalduko dut hau. Piageten eskola-ko dogma batek zain sakonak ditu historian barrena eta beste ikuspuntu diferente askotan ere agertzen da. Honela, giza pentsamena sistema uni-

forme bat dela pentsatzen da, hau da, giza gogoak sistema homogeen bat osatzen du, eremu desberdinetara aplikatuz. Hau, noski, egia izan liteke —honek egingo liguke gizagogoia diferentea, ezagutzen ditugun beste sistema biologikoen parean. Ezagutzen ditugun beste sistema guztiak oso modulatuak dira, hots, sistema diferenteak osatzen dituzte, bakoitza bere eginkizunak betetzeko diseinaturik. Baina gerta liteke giza gogoia edo burmuina oso berezia izatea mundu biologikoan, eta sistema uniforme eta homogeen baten aurrean aurkitzea. Hau ulergaitza zait neri, eta ezagutzen ditudan xehetasunek kontrakoa erakusten didate. Esaterako, oso ulergaitza da ikusmenaren kasuko zurruntasunaren printzipioak eta eman dizuedan perpausaren esanahia zehazten duten printzipioak elkarren artean erlazioaturik egotea eta, seguraski ere, ez bata ez besteak ez du zerikusirik odolaren ibilbidea mugatzen duten printzipioekin. Baina egia izan liteke. Dena den, dogmatzat hartzea puntu hau, absurdua da. Are gehiago frogak baieztapen horren kontrakoak izanik. Hauxe de Ginebrako dogmaren puntu bat. Bigarren puntua beste zerbaiti dagokio: ez dio axolarik zer erakusten diguten datuek, haien ustez eta printzipio legez horrela behar du izan, hizkuntzaren edo beste gauza konplexuen eza-guera aurreko egoeraren isladapena da edo, azken batean, beraiek deitzen dituzten sentimen-motore eraiketak. Berek pentsatzen dute haurra eta munduaren arteko zenbait elkarrekintza—sistema berezi dituztela—egoera zaharreko sentimen—motore eraiketa— eta garatzen diren eza-guera—motak haien isladapen zerbait direla. Ikuspuntu hau ia ia ulertezina da, baina bertan dihardute. Ziur naiz ez dagoela horretan frogarik; ez dago argi honek zer esan nahi duen ere.

Dogma berezi hau Piageten lanean aurkitzen diren beste batzuekin erlazioatzen da. Zuetako askorentzat ez dira hauek gauza berriak, baina har dezadan Ginebrako lanetan bihotzean dagoen zerbait. Denok ezagutzen dugu zerbait, adibidez, kontserbazioari buruz. Badago maila bat haurraren bilakabidean zeinetan, hartzen baduzu zuk ur—xorta bat katilu luze batetik eta katilu zabalago batetan paratu, haurrak ur gutxiago dela pentsatuko duen. Egon badago beste maila bat, zeinetan haurrak ezagutuko duen ur bera dagoela eta zuk katiluz aldatu duzula. Planteiatuko dugu begien bistako galdera: nola pasatu da haurra egoera batetik bigarreneara? Posibilitate bat izango litzateke baieztatzea, haurra pasatzen dela egoera batetik bestera informazio berri zerbait eman zaiolako; baina Piagetek ukatu nahi du: kontua da, dio, haurrak betiko informazioa duela. Informazio berria izan balu, kontu guzti honek galdu egingen luke interes osoa. Hori ez da, bada, erantzuna. Beste posibilitate bat izan daiteke biologikoki mugatutako nortasunaren heldutasuna gertatu dela baieztatzea, pubertaroa, adibidez, edo antzeko zerbait. Bizitzaren maila batetan zaudenean, inguramendua egokia bada, elikadura nahikoa baduzu eta hone-

lako baldintzak betetzen baldin badira, pubertarora iritsiko zara, alde zuretik horretarako diseinatua bait zara. Piagetek baztertu egin nahi du argumentazio-modu hau ere. Haren ustez, argumentazio honek izugarriko bidegabekeria isladatzen bait du, «innatismoa» edo sortzezkotasuna, hain zuzen ere. Beste hitzetan paratzeko, diseinu intrintseko bati erreferentzia. Heltzea, genetikoki mugaturik dagoen prozesua da eta hori gertatzen da eragiketa berezi bat —elikadura edo holako zerbait— dela medio. Honek ez du balio. Horrela, bada, baztertu ditugu ingurua eta organismoa ere. Zer geratzen zaigu?

Egia esateko, ez dago besterik, Jainkoaren eskuharmen edo holakorik ez bada. Ikusten denez, Piagetarrek ez dute modurik mailarteko iraganak azaltzeko. Kontu osoa ulertezinezko misterio baten antzera agertzen zaigu, ingurunea baztertu egin bait da eta gauza bera organismoarekin ere. Zerbait arrazoidunak nahi badugu izan, erantzuna ez da hain iluna: gauzak behar bezala suertatzen baldin badira, organismo honek nortasunaren heldutasuna sofrituko du. Honek berriz ere atzeratzen gaitu galdera egitera: zein dira heltze aldaketa hauetako mugatzaile genetikoak? Eta honek eramaten gaitu ukatzera Piagetarren errefusaketa dogmatikoa «sortzezkotasunari» buruz —sarriegi agertzen da termino hau haien hiztegiari— mintzatzen direnean. Ez dute hartu nahi haiek horrelako egoeretan edozein biologarrik hartuko lukeen joera: onartzen baduzu garatze bide zehatz bat duzula, inguramenduak piztu —baina ez moldatu— egiten duena, orduan ontzat eman beharko duzu intrintseko den zerbaitek —organismoaren kasuan intrintsekoa, heredentzia genetikoa edo— mugatzen duela hura. Saia zaitez hori aurkitzen. Baldin jendeak ez badu arrazoitasun—maila hau, bederen, mantentzen giza gogo ikertzerakoan, ezin izango du oso urrun joan.

N. CH.

Noam Chomskyren hizkuntz teorian

Pello Salaburu

HIRU GALDERA

1) Lerro hauek irakurtzeko pazientzia hartu duenak eta nik, lerroak hemen paratu ditudan honek, badugu elkarren artean konpartitzen dugun ezaguera—mota bat: bion hizkuntza, euskara, kasu honetan. Biok euskara ezagutzen dugu, hizkuntza horretan erlazionatzen bait gara. Beste herri batetan jaio denak ez du, normalean, ezaguera zehatz hau bere baitan eta hizkuntza diferentez mintzatuko da. Animaliek, gizonezko ez diren animaliek, ez dute hizkuntzarik eta ez dira, noski, euskaraz edo erdaraz mintzatuko. Elkarren artean nolabaiteko komunikaziorik baldin badute ere, horrek ez du zerikusirik giza hizkuntza bezala ezagutzen dugunarekin, natura diferentekoa bait da. Badirudi tximinoei hitzegiten erakutsi nahian dihardutenak ez direla honetaz jabetu.

Zein da dugun ezaguera horren natura? Nola deskribatu ahal dugu hitzegiten ikasi ondoren lortu dugun ezagumen horren natura? Nola zehaztu ahal da, azkenengoz, ikasi duguna? Zer konpartitzen dugu zuk eta nik, biok hemen paratuta dagoena ulertzeko gai baldin bagara, nahiz eta, beharbada, esaldi hau lehenengo aldiz irakurtzen dugun?

2) Zerbait ezagutzera iritsi gara. Badakigu zerbait badakiguna, zerbait horren xehetasunik oraingoz eman ez dugun arren. Zer bide kurritu dugu dakigun hori ikasteko? Nola ikasi dugu hizkuntza hau? Nola pasatu gara A egoeratik —ez genekien hitzegiten— B egoerara — hitzegiten dugu, ulertzen dugu, ulertzen gaituzte?

3) Behin ezaguera hori lortuz gero, nola jartzen dugu abiadan? Zergatik erantzuten dugu «gaixorik dago eta» batean, «gaixorik dagoelako» bestean, «gaixorik bait dago» hirugarrenean eta «gaixorik dagoenez gero», etabar luze batekin ez jarraitzeagatik?

HIRU ERANTZUN

Hiru galdera ditugu hor, hirurak oinarritzakoak eta edozein hizkuntzalarik bere buruari egin beharko lizkiokkeenak, hizkuntza ikertu nahi denean. Galdera sinpleak, gardenak, begien bistakoak. Hala eta guztiz, hizkuntzalaritzaren historia ez da, zoritxarrez, galdera horien erantzunaren historia.

Galdera horiek erantzuten saiatzen da Chomsky hemen aurkezten dugun idazlan informal honetan, eta ematen dituen erantzunak ere ez dira beren burua hizkuntzalaritzat jotzen dutenek berehalakoan onartzen dituztenen klasekoak:

1) Dakigun hori, zuk eta nik konpartitzen dugun hori, gramatika deitzen dugu. Gramatika horri esker konpontzen gara elkarren artean. Gramatika hori bat da, bakarra, unibertsala, eta hizkuntza guztien azpian dago. Gramatika hau berau, bat eta unibertsala, dago euskararen, frantsesaren, gaztelaniaren edo suediararen azpian, parametro unibertsal batzuk osatzen bait dute. Hizkuntza partikularrek ere badute, noski, beren gramatika partikularra, baina gramatika partikular hau gramatika unibertsalaren parametroen egokiera baino ez da. Hizkuntzalariek parametro unibertsal horien deskribaketa egiten saiatu behar du.

2) Gramatika Unibertsala sortzezkoa edo innatoa da. Jaiotzetik dator kigu. Gizaki osoari, geneek dakarkioten informazioan dago. Informazio hau ez da, horrela, berehala, azaltzen, ingurune sozial bat behar duelako. Ingurune sozial honek —haurra komunitate linguistiko batetan sortzen da— «piztu» egiten du informazio hura. Inguramendu sozial hori dela medio, elikadura egoki bat dela bide, haurrak hizkuntza partikular bat ikasten du; hots, haurra ez dator aldeztik aurretik kodifikatua frantsesez edo euskaraz hitzegiteko, baizik eta goian aipatu dudana B egoera edo maila lortzeko, edozein hizkuntza ikasteko, hizkuntza bat aukeratu egiteko. Horrela azaltzen da datu harrigarri hau: edozein haurrek, edozein lekutan, edozein hizkuntza ikas lezake eskatzen diren baldintza minimoak betetzen badira. Hori egiten du denbora labur batean, eta entzuten dituen datuak oso «degradatuak» direlarik. Proposamen ausarti hau —«innatismoa»— ez da berria, eta zientzilariek onartu izan dute (Popper, Eccles, Monod, besteak beste); baina Chomskyk formulatzen du lehenengo aldiz

explizituki: gu sistema biologiko bat garenez gero, sistema hau aldez aurretik ezarritako mugekin jaiotzen da. Horrela, badakigu eskuak besamuturrean aterako zaizkigula eta ez, adibidez, belarrietan. Badakigu heldutasunera iritsiko garela zehatz daitekeen epe batetan, badakigu gizonezkoei bizarra aterako zaiela edo bularrak haziko zaizkiela emakumezkoiei, etab. Badakigu, baita, hizkuntza ikasiko dugula eta hizkuntza hori osatzen duten hotsak muga hertsia batzuen artean erlazionatzen direla elkarrekin. Jokaera hau, beste zientzien parean jarri gero, nahiko koherentea da. Eta, azkenez, gainera dezadan hurrak lortutako ezaguerara oso harrigarria dela hor ari bait dira oraingoz hizkuntzalariak ezagumen hori zertan datzan zehaztu ezinez.

3) Hirugarren galderak ez du erantzunik eta, beste gauzen artean, giza askatasunarekin erlazionatzen da. Horixe da, hain zuzen ere, sistema biologiko honek duen mugetako bat: gure kode genetikoak ez gaitu gauzatzen hori ulertzeko eta gure adimenak, gauza guztiekin gertatzen den bezalaxe, gaitu ezin duen eragozpen batekin topo egiten du.

CHOMSKY

Trotsky Asiara atzerriratzen zuten urte berean jaio zen Chomsky Pennsylvaniako hiriburu batetan, Filadelfian, 1928an. Hamazortzi urte zituela, sartzen da Unibertsitatean hizkuntzalaritza, matematikak eta filosofia ikastera. Zellig Harris-ekin ikasten du geroago Harvard-eko Unibertsitatean eta berehala hasten da irakasten Massachusetts Institute of Technology (MIT) delakoan. Bertan dihardu.

Ezagunago gure alderdian egin duen lan politikoagatik (anarko-marxismoaren barruan edo, kokatuko litzateke), munduko hizkuntzalari famatuenetakoa da. Lehen lehen Ameriketara eta ukazinezko influentzia izan duena hizkuntzalarigoan, bere liburuak dozenaka hizkuntzataraz itzultzen dira. Eduki dituen eztabaidak klasiko bihurtu dira, bazter haue-tan haien berririk ez badugu ere: Searle filosofoarekin; nahiz eta kontra-koa izan, Chomsky eginiko lana «iraultzaile» deitu zuen hark. Monod biologoarekin (Nobel sariduna). Honen ustez, biologia aldetik ez dago eragozpenik Chomsky dioena onartzeko. Piaget psikologoarekin eduki zuen jardunaldi bat Parisen orain duela zortzi urte. Popper filosofo eta zientzialariak aipatuko du Chomsky behin baino gehiagotan bere lanean. Samuelson ekonomistarekin (Nobel sariduna hau ere) izan zuen eztabaida Harvardeko Unibertsitatean, oraingoz bizirik dago Bostongo zokoe-tan. Foucault filosofo marxistarekin ordu luze ez egon zen diskutitzen Amsterdam-eko telebistan, bata ingelesez eta bestea frantsesez mintzatzen zirela...

Zoritzarrez, gure artean, ez da hain aipatua: alde batetik berak egindako lana ez da gehiegi ezagutzen, arineketan irakurria izan bait da eta askotan gaizki ulertua. Bestaldetik, oinarrizko lan tekniko batzu itzuli gabe daude (azkenekoa, adibidez, oso garrantzizkoa, guztiz ezezaguna da. Hemengo alderdi hauetan, liburu horren berri dutenak gela txiki batetan sartuko lirateke. Irakurri dutenak, esku bateko hatzez kontatuko genituzke). Bestaldetik, berriz, Europako tradizioa hizkuntzalaritza mailan ez da Ameriketakoa bezalakoa eta, batez ere, Saussure–gandik hona teoria zenbaitek desarroilo handia hartu du hemen. Hau ere kontutan hartu behar den zerbait da. Hala ere, influentzia aldetik neurtzen badira gauzak kontu hauetan, ez dut uste hari dakioken hizkuntzalaririk aurki daitekeenik Europa osoan. Guzti honek egiten du Chomsky, 55 urte dituelarik, munduko zientzilari gorenetakoa bat.

Lehen etapa: «Syntactic Structures»

Atez ate jo zuen 28 urteko irakasle hark ehun orrialde eskaseko liburuxka batekin besapean, inor ere berotzen ez zitzaiola hura argitaratzeko. Denborarekin, *Syntactic Structures* bihurtu zen gramatika sortzailearen abiapuntu. Han biltzen dira labur–laburrean Chomskyren lana markatuko duten lerro maisuak. Oinarrizko ideia hauek nahiko sinpleak dira eta formulazio teknikoaren konplexutasuna alde batetara uzten baldin badugu, goian jarritako hiru galdera eta erantzunetan bil daitezke. Horretan gutxi aldatu da Chomskyren pentsamoldea, nahiz eta, jakina, formulazio teknikoek aldaketa nabarmenak izan dituzten.

Esan dudan moduan, ezaguera unibertsal horren berri eman behar da, «gramatika unibertsala»ren berri eman behar da. Horretarako, eredu orokor bat asmatu beharko du hizkuntzalariak eta hori egiterakoan, zientzia naturaletan erabiltzen diren prozedurek eskatzen dituzten baldintzapenak bete behar dira, teoria egoki batek eta datuek elkarren artean dituzten erlazioak ongi zehaztuz. Ez dago datu bilketarik teoriarik gabe, datuek bakarrik ez bait digute ezer ere esaten. Ezaguera horren eredia ideala da, noski, eta ideala den neurri berean, ez da inoiz ere zuzen–zuzenean agertuko datuetan. Eredu horrek hiztun batek hizkuntzan duen *gaitasuna* isladatzen du, baina gaitasun hori praktikan jartzen dugunean, *ariketa* mailan, hainbat gauzak parte hartzen du hor, ez hizkuntzak bakarrik: gure egoera, nekea, baldintza psikologikoak, etab. kontatu behar dira eta horietaz ez du hizkuntzalariak gehiegi esatekorik.

Gaitasun ideal horren mailan, ordea, beste gauza asko berezi behar dugu eta abstrakzio–maila desberdinak aurkituko ditugu: gaitasunaren arabera, hiztunak berezten ditu hots batzu eta esanahia ematen die fre-

kuentzia mugatu batetan dauden hots horiei. Hitzunak, hotsak eta esana-
hiak erlazionatzen dituen gramatika barruratu du. Gramatika horretan fonetika, sintaxi eta semantikazko kontuak ageriko dira: badirudi gramatikaren konplexutasuna argien isladatzen duen osagaia sintaxia dela eta honen azalpena egiten saiatu beharko genuke. Semantika, hizkuntzatik kanpo dagoen gauza askorekin erlazionatzen da (sinesmenarekin, adibidez) eta zentzurik gabeko perpausak ere gure hizkuntzakotzat «har» ditzakegu:

(1) *garagardo botilek totoriko irabazi zuten itsuen maratoi geldia.*

Korapiloa, bada, sintaxian legoke. Hau, abstrakzio-maila bat da. Abstrakzio hori, ordea, beste abstrakzio baten azpian dago: sintaxi horrek sintaxi unibertsal baten aginduak (ideia kartesiarra hau) jarraitzen ditu. Hau jorratu beharko genuke, hauxe baita gizakia karakterizatzen duen ezaugarri berezia: hauen argitan sintaxi partikularrak akzidenteak dira.

Badirudi beste eskoletako hizkuntzalarien joera nahiko desberdina dela eta anitzen kezka nagusia hizkuntza partikularrak ongi deskribatzea dela, nahasiz hizkuntzaren eredu teorikoa (burmuinarekin zuzenean erlazionatzen den zerbait) eta hizkuntzaren erabilera, psikolinguistikan, soziolinguistikan, hizketa-egintzetan, etab. Kanpo hauek ez dagozkio, Chmskyren ustez, hizkuntzalariari, baizik beste zientzilariren bati.

Konturatzen bagara, hiztuna elementu mugatu batzuek baliatzen da (ideia hau hizkuntz teoria gehienetan agertzen da), etenik gabe sortzeko perpaus diferenteak. Gramatikak, orduan, osagai sortzaile bat beharko du izan ezaugarri horren berri eman nahi baldin badu. Seinala dezadan, baita, «gramatika» hitzak erabilera anbiguo sistematikoa duela: hiztunak barruratu duena, alde batetik; hizkuntza baten deskribaketa esplizitua, bestetik. Aipatu ditudan elementu mugatu horiek Erregela batzuek konbinatzen dira eta Erregela horiek, Berridazketa Erregelak (ikus Patxi Goenearen *Gramatika Bideetan*) forma hau hartzen dute:

(2) $A \rightarrow BC$


Azken batean, eskutartean erabiltzen ditugun gramatikak —eskoletan erakusten direnak, adibidez— horrelakoak ditugu, formulazio espliziturik ez duten arren eta «alderantziz» planteiatuta badaude ere:

(3) $BC \rightarrow A$

Horrela, elementu hau perpaus haren objektua dela esango da gramatika batean (B Aren osagaia) eta bestean, berriz, perpausak —edozein perpaus— bi elementuz osatzen direla (Aren barruan B aurkituko da). Eta hau ez da hitz-jokoa, norbaitek hala pentsa baleza ere: Chomskyren for-


malizazioa, ona edo txarra, zehatza da, explizitua. Arrazoi horrengatik berorrengatik, faltsagarria, zientzia egin nahi denean beti bilatu behar duzun ezaugarria zainduz. Bestaldetik, ohizko gramatikek irakurlearen ezaumenen inkontzientera jotzen dute—begien bistako, eta horrengatik interresgarri, diren gauzak ezertarako ere azaldu gabe—: euskal gramatika bat hartu eta sintaxiaz zerbait ikusten bada han (morfologia mailatik ez dira pasako asko), ez da argi ikusiko han zergatik euskaldun batek ezin duen onartu «astoa erdi zaigu eta lau sagukume izan ditu» edo antzeko esaldirik. Irakurleak badaki, inkontzienteki, hori ezin dugula esan. Chomsky, ezaguera inkontziente horren formalizazio zehatz bat ematen saiatzen da. Nolanahi ere, hartzen badugu perpaus bat, honela azalduko luke gramatikari sortzaileak:

(4)



Horrekin batera, begien beste bistako gauza asko ere azalduko du (zergatik du, adibidez, «elkar» partikulak subjektuarekin bakarrik erreferentzia?). Xehetasunetan sartu gabe, gramatika tradizional batek ematen duen «informazioa» zehaztu nahi izanez gero, horrela formaliza genezake perpaus bera (nahiz eta, maizegi, honelako formalizaziook irakurlearen trebetasunaren esku uzten diren), kontutan hartu gabe formalizazio honek Erregelaren formaren baldintza matematikoak bortxatzen dituela:

(5)



Hor jarri dudun «arbola», Berridazketa–Erregelen formalizazioa da eta gramatiketan aurkitzen denaren arabera, Berridazketa–Erregelak gai izango lirateke edozein hizkuntzako perpausak sorrerazteko. Hori dela eta, Berridazketa–Erregelak behar bezala paratuz, perpaus hauek, adibidez, sor genitzake erdaraz:

(6) *la circulación ha sido desviada por el alcalde*

(7) *la circulación ha sido desviada por el camino*

Berridazketa–Erregela sorta berbera erabiliaz eta hitz bat bakarrik aldatuz, gaztelaniazko perpaus honetara iritsi gara.

Baina, hemen Chomskyren argumentazioa, hau honela egiten baldin badugu jeneralizazio handiak galdu egin ditugu. Lehenbiziko perpausak badu erlazio sistematikoa beste batekin (*el alcalde ha desviado la circulación*) baina ez, ordea, bigarrenak. Eta erlazio–mota sistematiko horretaz ere zerbait esan beharko luke gramatikak, hori hiztunak ongi dakien zerbait bait da. Gainera, Chomskyren eskolakoek burutu dituzten lanek erakusten dutenez, zenbait hizkuntza amerindiar (Mohawk–era, esaterako) ezin izango genuke Berridazketa–Erregelak bakarrik erabiliz azaldu. Horregatik, hizkuntza guztiak azaldu ezin ditugulako eta jeneralizazioak galdu egiten direlako (dirudienez, eginiko kalkuluen arabera, hizkuntza na-

tural bateko perpausak sorrerazteko 36 milioi sinbolotik gora beharko genuke, emandako erregelak bakarrik erabiliko bagenitu), Berridazketa—Erregeloi beste Erregela—mota diferentea gaineratu behar zaie: Transformazio—Erregelak aplikatu ondoren, pasibak agertuko litzaizkiguke (berdin galderetan, ezezkoetan, etab.). Horrela, goiko bi perpausen kasuan, bi deribazio desberdinen parean gaude, itxuraz antzekoak direla ematen duten arren.

Honela bada, behin hizkuntza batetako Erregela guztiak zehazki eta explizituki formalizatuz gero, esan dezakegu hizkuntza honetako hitzuenak gaitasuna duela hizkuntza honetan eta Erregela horiek bere haurtzaroen barruratu egin dituela. Arau horiei esker eta munduari buruz duen ezaguerari esker, dituen sinesmenei esker, etab., hitzegiteko gauza izanen da. Bestaldetik begiratzen badugu kontua, gainera dezakegu Erregela horien forma, Erregela—motak (Berridazketa—Erregelak, Transformazio—Erregelak) eta gramatikaren antolaketa orokorra, unibertsalak direla, hizkuntza natural guztiak agintzen dituen gramatika Unibertsalari baita da gozkio.

Bigarren etapa: «Aspects of the Theory of Syntax» (Teoria Estandarra)

Gramatika eta hizkuntzalaritzā sortzailearen bigarren etapa, liburu honen eskutik datorkigu. Lan honek biltzen ditu urte guzti haietako (1956—1964) ikerketen ondorioak eta teoria osoaren aurkezpen gisa argitaratzen da birplanteiamendu orokorra egin nahian.


Bigarren eredu honetan osagai sintaktikoa bi zatitan banaturik dator: Sakoneko Egitura eta Azaleko Egitura. Sakonekoa, lexikoaren txertaketa eta esanahiarekin erlazionatua aurkezten da. Lexikoiaren txertakuntza bereziki lantzen da, azpikategorizazio—Erregelak ongi formalizatuz eta Erregela horiek bete behar dituzten baldintzak ongi zehaztuz. Erregela hauek zehaztuko dizkigute aditzek har ditzaketen osagai edo komplementuak (ez esateko, adibidez, «ardoak gizona esan du» eta holakorik). Horrela, bada, sintaxizko oinarria Azpiosagai kategorialak eta Lexikoiak osatzen dute. Oinarriaren *output*—ari Transformazio—Erregelak aplikatzen zaizkio eta Erregela hauek beti ditugu beharrezko, perpausik sinpleenetan ere. Hau ez zen honela gertatzen aitzineko eredian, non oinarrizko perpausak Berridazketa—Erregelek zuzen—zuzenean sortzen bait zituzten.

Esanahia oinarrian zehazten da, hots, Berridazketa—Erregelei lexikoiak txertatzen diegunean. Transformazioek ez dute esanahi berririk gaineratzen (Chomsky konturatu zen honek problemak planteiatzen zizkiola ez bait zen beti egia, baina aurkitu zituen «salbuespenak» ez zituen aintzartat hartu) eta transformazioek ematen zutena, edo Azaleko Egitura, osa-

gai Fonologikoa Erregela Fonologikoez interpretatzen zuten. Horrela, orduan, *Aspects*-eko ereduak zatibiketa hau aurkezten digu: Oinarria (Berridazketa—Erregelak Lexikoia) eta azpiosagai Transformazionala. Hori guzti hori da sintaxia. Oinarria, bere aldetik, semantikarekin erlazionatzen da (perpausen «esanahia» ulertzen dugu) eta azpiosagai Transformazionala, berriz, osagai fonologikoarekin erlazionatzen da (perpausen «hotsak» gure hizkuntzakotzat hartzen ditugu). Ikusi bezala, sintaxiak bi osagai interpretatzaile ditu. Batak Sakoneko Egitura interpretatzen du; besteak, berriz, Azalekoa.

Ereduaren forma hauxe dugu:

(8)



Teoria Estandar (TE) deitzen den eredu hau *Syntactic Structures*-en aurkeztutakoaren antzekoa da, baina aise zehatzago (prozesu-pila bat formalizatzen da, lehenengo aldiz hitzegiten da Sakoneko edo Azaleko Egiturez, Transformazioak zehazten dira, etab).

TEk sekulako eragina izan zuen, eta garai hartatik aurrera hasi ziren gramatika sortzailearen barruan banaketarik handienak: semantika sortzaileak (Lakoff, McCawley, Ross, Kuroda, etab.) liburu honek markaturiko bidean segitu zuen gero eta sintaxi abstraktuagoa postulatu (Sakoneko Egitura eta esanahia gauza bera bihurtzen dira); interpretatibistek (hizkuntzalari—multzo txiki bat, Chomsky bera eta Jackendoff, besteak beste, barnean zirelarik) birformulatu egin zuten *Aspects*-eko ereduak, perpausen esanahia zehazterakoan Azaleko Egituran ageri ziren zenbait elementuren garrantzia azpimarratuz; eta Kasu-teoria (Fillmore), zeinek hurbiltzen bait zuen perpausen esanahia perpausok hartzen zuten itxurara, hizkuntzalaritza taxonomiko klasikoago batetara makurtuz, azken finean.

Hirugarren etapa:
«Lectures on Government and Binding» (Teoria Estandar Zabaldua)

Aspects argitaratu zenetik lanak ugaritzen hasi ziren. Era berean, gramatika sortzailearen baldintza soziologikoak aldatzen dira (hizkuntzalari gehiagok besarkatzen du teoria berria, Chomsky lan politikoari ekiten dio eta behin baino gehiagotan detenitzen dute —Vietnam—eko gerraren kontrako protestak, beltzak, estudianteak Unibertsitatean, etab.—, urte batez Berkeley—n, USAko beste muturrurrean irakasten du) eta arrazoi horientatik edo, ez du berriz ere liburu amaiturik argitaratzen. Bai, ordea, oso garrantzizko bihurtuko diren artikuluak, nahiz eta, garai hartan, gutxi sinestu berak esaten zuena, semantika sortzaileak bait zuen arrakastarik handiena. Halere, pixkanaka pixkanaka, Chomsky eskolari eman nahi dion norabide berria nagusitu egiten da eta, gaurregun, inolako dudarik gabe, Teoria Estandar Zabaldua (TEZ) bezala ezagutzen den korronea agertzen da gramatika sortzailearen barruan egiten diren lanetan, korrontarik hedatuen bezala. Horren expresio eta adierazpenik bilduena eta amaituena «Lectures on Government and Binding» (1981).

Azken hamabost urte honetan, hizkuntzalariak TEean planteiatutako arazoak konpontzen saiatu dira. Bi gauzak konturatu ziren berehala: Azaleko Egiturako zenbait elementuk (partikula batzuk, kuantifikatzaileak, galdegaia, etab.) esanahia zehazten dute. Lehen ondorioa: esanahia ez du Sakoneko Egiturak bakarrik mugatzen. Bestaldetik, berriz, oso gramatika deskribatzaileak burutzen ziren, baina konplexuegiak batzutan, eta indartsuegiak, beti: horrenbeste Berridazketa—Erregela, horrenbeste transformazio, azkenean hizkuntza natural bateko perpaus guztiak sorreraz zitezkeen, baina baita hizkuntzakoak ez ziren beste perpaus franko ere. Gramatikaren boterea mugatu egin behar da, Erregelen baldintzak zehaztu, erredundantziak kendu. Gramatikak mugatuago behar du izan, hiztunak mugatuak dituelako gramatika posibleen bideak, hiztunak duen eza-guera, hasieran esan bezala, oso zehatza bait da, eta oso denbora laburrez bildua. Horrek esan nahi du gramatikak ezin direla hain «zabalak» eta boteretsuak izan.


Garai horretan hasten dira Chomsky eta honen ikasleak Erregelak eta Erregelen Baldintzak berezten. Dakigun moduan, Transformazio—Erregelak egin dezaketen zerbait, elementuak lekuz aldatzea da. Kontua, orduan, ez da zehaztea elementu X bat mugi dezaketen Erregelak, elementu hori lekuz aldatzeko zaindu behar diren baldintzak baizik. Hori nahiko diferentea da. Baldintzek mugatu egiten dituzte mugimendu posibleak, gramatikak aurkez dezakeen boterea ahulduz. Esan daiteke azken hamar urte honetako lana baldintza horiek zehaztea izan dela. Ondorioaz, hortik sortu den gramatikaren eredu teknikoak (ez dezagun ahantz, au-

kera teknikoen gainetik, azpian dagoen filosofia beti berbera dela) nahiko desberdin eta sinpleagoa da.

Eredu honetan, lexikoian ematen da artikulu lexikoen informazio guztia (zer diren, aditza, adjektiboa, etab.; nolako osagarriak hartzen dituzten buruek: IS bat edo bi, etab.). Informazio hau lexikoian bakarrik agertzen da, inon ere ez gehiago. Horrela, ez dugu Berridazketa-Erregelen beharrik, horiek dakarten informazioa, nolabait ere, lexikoiak ematen duen informazioan bilduta bait dago. Lexikoiko elementuen antolaketa kategoriala X-barra deitzen den aldakiren batetan biltzen da (horretan ere formalizazio orokor unibertuala jarraituz). Hori guzti hori zuzenean islatatzen da D-Egiturretan (ingelesez D-Structure —Deep Structure—tik—«Sakoneko Egitura»). D-Egiturei Trasformazio-Erregela aplikatu dakieke, baina Trasformazio-Erregela bat bakarra dugu oraingoan («Mugi α ») eta horrek esaten duena honela zehatz daiteke: mugi edozein elementu nahi den lekura. Hala ere, Erregela honek independenteki motibatuta dauden baldintza abstraktuak zaindu behar ditu eta ematen diren mugimendu guztiak muga hertsia batzuren barruan daude. «Mugi α »ren ondorioz, S-Egiturretara iristen gara eta hauek Osagai Fonologikoak eta Forma Logikoak interpretatzen dituzte. Forma Logikoko Erregelak direla bide badakigu, adibidez

(9) *Jonek bere etxea erre du*

perpasean, «bere» partikularen aitzinkari eta erreferentzia «Jon» dela eta ez beste elementuren bat. Horrelako «barruko» interpretazioak aurkitzen ditugu Forma Logikoan. Kontura gaitezen osagai interpretatzaileak ez direla Sakoneko Egitura edo antzeko deusekin erlazionatzen, S-Egiturrekin baizik (lehenago Azaleko Egitura deitzen gulerenaren kidea, berdin ez bada ere). Oraingo ereduaren forma, hau dugu:



Eredu hau baldintza orokor batzuen azpisistemek erregulatzan dute eta baldintza hauek, nolakoak diren hizkuntzak, maila batean (S-Egiturretan, Forma Logikoan, etab.) aplikatzen dira. Baldintza abstraktu hauek sei dira —X—barraren printzipioa kontatu gabe—, baina, seguraski ere, gutxiagotan bil daitezke:

- 1) Uztardura teoria (Bounding Theory)
- 2) Gobernu teoria (Government Theory)
- 3) Paper tematikoen teoria (0 Theory)
- 4) Lotura teoria (Binding Theory)
- 5) Kasu teoria (Case Theory)
- 6) Kontrol teoria (Control Theory)

Ez dut hemen astirik hauen xehetasunik emateko; baina burutu diren lanetan (MITeko tesiak bereziki) argi ikus daitezke bakoitza independenteki motiba daitezkeela alde batetik, eta elkarren artean erlazio hestutan daudela, bestetik. Printzipio horiek printzipio unibertsalak dira eta ikertu diren hizkuntzetan argi ikusten dira (ingelesean, frantsesean, espainolean, txineran, japonieran, etab.). Hala ere, unibertsalak izanik, hizkuntzak hizkuntza aldakuntza parametrikoki zerbait onartzen dute eta horrela ez dira berdin-berdin ematen hizkuntza guztietan. Badirudi printzipio abstraktu hauen arabera azal daitezkeela hizkuntza naturalak eta hizkuntzen arteko desberdintasunak (hiztegia salbu) aldakuntza parametrikoki minimo horrek zehazten dituela. Hori, gramatikalarik sortzailea hasieratik bila ibili denaren ondorioa da: haurrak genetikoki prestaturik daude hizkuntza irakastea, hots, eraikitzen dituzten gramatikak muga hertsia batzuetan biltzen dira, goiko baldintza horiek markatzen dituzten mugetan, hain zuzen ere. Muga horien barruan onar daitezkeen aldakuntzek azalduz dituzte azalean hain diferente agertzen zaizkigun hizkuntza naturalak. Printzipio horiek azalduz dute, baita, azalean hain diferente diren hizkuntza natural guztiak oso antzekoak direla eta, azken batean, euskaratik frantsesera edo errusierara ez dagoela horrelako saltu izugarririk.

Esan dudan moduan, «mugi α » Erregelak (α da edozein elementu, IS baita) erlazionatzen ditu D-Egitura eta S-Egiturak. Argi dago, Erregela bakoitzaren honen aginduz elementu bat lekuz aldatzen da, hau da, sortzen den ordena aldatuz gelditzen da eratorpenaren azkenera. Honek, aldeaz agindutako ordena bat dakartela perpausak (orden «kanoniko» bat edo) adierazten du: ingelesak, adibidez, IS A IS eskatzen du. Ordena kanoniko bat onartzen baldin bada, eta ordena hori mantentzen ez duten perpausak ere esaten badira, «mugi α » edo antzekoren bat postulatu beharko

da. Zer gertatzen da, ordea, euskararen gisako hizkuntzetan, non hitz-ordena, itxuraz bederen, nahiko librea baita? MITen burutu diren lanen arabera, kasu hauetan ez legoke «mugi α »rik, ez legoke inolako mugimendurik, baina bai, ordea, haren papera betetzen duen beste erregela orokor bat: «Har FG» («Funtzio Gramatikala hartu»). Hori gertatzen da japonieraren kasuan (Chomskyk zuzenean eztabaidatzen du kasu hau) eta beste hizkuntza zenbaitetan. Batek daki zer gertatzen den euskararekin, horretarako lan xeheak egin behar bait dira (itxuraz ez dagoela mugimendurik ematen du).

Nolanahi ere, gramatika sinpletu egin da guztiz, erraztu, argumentazioa konplexuagoa den arren ez dago oinarriko erregelarik, ez dago Trasformazio-Erregela bat baizik; bestaldetik, sortutako kateek baldintza abstraktu batzu bete behar dituzte. Ez dago *Trasformazio orokor* edo partzialik, ez eta beharrezko edo aukerazkorik ere.

Hemen, teknizismoetan sartu gabe, ingelesezko adibide bat paratuko dut. Aldez aurretik ontzat jo behar ditugun onarpen batzu eman behar ditut, horiek beste nonbait zehaztuta daudelako, hots, horiek ez dute adibide hau bakarrik azaltzen, ingelesezko perpaus guztiak baizik. Horregatik ez ditut hemen arrazoinduko; besterik gabe ontzat hartuko ditut. Adibidea klasiko da.

Ingelesez, perpaus honen bi aldakiak aurkitzen ditugu hizketan:

(11) *John — seems — to be — nice*
Jonek — ematen du — izan — jatorra
 (Jonek jatorra ematen du)

(12) *it — seems — that — John — is — nice*
hark — ematen du — -(e)la — Jon — da — jatorra
 (Ematen du Jon jatorra dela)

Nondik sortu dira bi aldaki horiek? Lehenagoko ereduetan, «igoerako aditzek» zizutzen propietateei esker edo, azaltzen ziren horrelako perpausak, transformazioak zirela medio, ingelesaren kasuan, noski. Adibide hauek ez lukete, beharbada, balioko euskararen kasuan.

Esan dugun moduan, lexikoian zehazturik dator artikulua lexikoei buzurko informazioa, eta erregularitateen artean dauden salbuespenak ere. Gauzak horrela, «seems» aditzaren kasuan esan beharko dugu (informa-

zio guzti hau lexikoian dago) paper tematikodun edo paper tematikorik gabeko subjektuak onartzen dituela:

- (13) «*John seems*»
(Erreferentzia bat dago Jon-en kasuan. Badakigu pertsona bat dela, badakigu eduki semantikoa duela).

- (14) «*it seems*»
(«it» hori hutsa da, ez du eduki semantikorik, ez du inolako erreferentziarik. Paratu dudana «it» hori eta beste perpaus honetako «it» hau guztiz desberdinak ditugu: «Felipe saw it»)

Kontura gaitezen euskararen kasuan ere antzeko zerbait gerta daitekeela. Kasu batzutan «eman» («dar») aditzak eduki semantikodun subjektua eskatzen du (perpauetan zuzenean eta argitan agertu behar duen ala ez beste kontua litzateke). Beste kasu batzutan berriz, «eman» («parecer») aditzak eduki semantikorik gabeko subjektua eska lezake: «ematen du euria egingo duela».

Ingeleseaz, «seems» aditz-forma horrek badauka bere berezitasuna: har dezake «that» (-(e)la) perpausa, edo urratu egin dezake -(e)la hori.

- (15) [*it seems (that (...))*]
P P̄ P

- (16) [*John seems (to ...)*]
P P̄ P

Goian jarritako printzipio horietako batek esaten digu (kasu teoriak) eduki fonetikoak duten IS guztiek kasua behar dutela (ez kasu morfologikoa, kontuz! Kasu abstraktuari buruz ari naiz hemen) eta badakigu, beste aldetik, kasua preposizioek edo aditz jokatuek (inflexiodunak) bakarrik eman dezaketela.

Gauza guzti horiek kontutan hartu ondoren, gure gramatikako lexiko eta azpiosagai kategorialaren isladapenak ondoko katea hau ematen digu (hau izango da D-Egitura):

- (17) *seems (John to be nice)*

Begira zer gertatzen zaigun orain D-Egitura honetan:

1) Ingeleseaz perpaus guztiek subjektu «ageria» behar dute eta «seems» horrek ez dauka.

2) «John» IS horrek ez dauka kasurik: ez dago kasua eman dakioken

preposiziorik eta, gainera, aditza jokatu gabe da (bi kasu emaleak horietan lirerateke).

D-Egiturari «mugi α » aplikatu behar zaio: Erregela honen arabera eta aginduz IS bat mugitu daiteke, baina nora? Argi dago mugitu behar duguna «John» dela. Nora? Gramatikan agertzen zaigun beste printzipio batengatik, eduki semantikorik gabe baina subjektua ager daitekeen lekura bakarrik mugitu daiteke α : «seems» aditzak subjektua behar du (Argumentu bat bait du leku horretan: leku horri A-lekua deituko zaio), baina subjektu horrek ez du paper tematikorik, lehenago esan dudan moduan. Eman den mugimendua, bada, hauxe izan da:

- (18) [*seems* (*John to be nice*)] (*D-Egitura*)
 [*John seems (t to be nice)*] (*S-Egitura*)

Kontura gaitetzen leku berrian «seems» aditz jokatuak ematen diola kasua «John»i. IS honek hartzen du eduki semantikoa perpaus batean («to be nice») eta kasua, berriz, bestean («...seems»). Mugimendu horrek aztarna edo traza bat uzten du (t), baina ez naiz xehetasun gehiagotan sartuko. Euskararen kasuan ez dakigu «mugi α »rik ematen denik, eta ez dakigu, horregatik, nola funtzionatzen duten perpaus-mota hauek.

Adibide hau ematerakoan, noski, argumentazio osoa erraztu dut, baina, hala ere, ikus daiteke formulazio teorikoa ez dela lehen garaikoa bezalakoa, nahiz eta, azken batean, bai *Aspects*-eko eredu eta bai eredu berri hau ere, denok barruratu ditugun hizkuntzaren propietateak xeheki aztertzen eta azaltzen saiatzen diren.

AZKEN OHARRAK

Eranskin moduko honekin batera aurkezten dugu zuzenean Chomskyren beraren artikulu bat. Lantxo hau, hitzaldi informal bat beraz, argitara gabe dago, nik dakidala, gazteleraz. Hor esaten den zenbait gauzak norbait harrizko duelakoan, ohar batzu egin nahiko nituzke. Lehenengo eta behin, ahalik eta itzulpen literalena egiten saiatu naiz: horrek ematen dio askotan iluntasuna lanari. Hala ere, batzutan libreki aldatu ditut gauzak, bestela ulertezin bihurtzen zitzaizkidalako. Artikulu honetan agertzen da indarrean Chomskyren pentsamendua gizakiari buruz (humanista handia da bera) eta intelektualaren irudimena eta askatasuna laneko lehenbiziko lerrotik ikus daiteke. Argi-argiak direla eta pentsatzea merezi ez dutela diogun gauzetan egoten da anitzetan giltza: horrela, hor ematen den adibidetik horrenbeste gauza deduzitzeak, exagerazioa eman lezake. Hala ere, adibide txiki eta arrunt horretan biltzen den ezaguera —hiztunok du-

gun ezagueraren ispilu— harritzekoa da benetan: pentsa beza bi aldiz irakurleak aurrera jarraitu baino lehenago.

Adibidea bera ere indartsuagoa da ingelesez euskaraz baino, baina ez dut aldatu nahi izan eta bere hartan utzi dut:

(19) *John bought Mary a dog to play with*
Jon erosi zuen Miren a xakur ko jolas kin

(Jonek erosi zion Mireni xakur bat jolasteko)

Artikuluaren agertzen dira erreferentzia batzu, azalpen bat mereziko luketanak:

1) Hizketa Egintzak (Actos de habla, Speech Acts). Searle-k desarroilatutako teoriari dagokio. Ezagunak dira Chomsky eta Searle-ren artean izandako elkarriketak eta eztabaidak kontu honi buruz.

2) Zurruntasunaren Printzipioa (Principio de la Rigidez, Rigidity Principle). Gizakiak dituen sistema kognitiboetan agintzen duen printzipio abstraktuetako bat. Horretaz lan gogorra egiten ari dira MITeko laborategietan (ikusmenarekin eta).

3) Psikologia kritikatzan duenean, Ameriketako psikologia kritikatzan du eta hitz honetaz, «behaviorismoa» ulertzen du. Korronte honek predikamendu handia izan du han eta oraingoz ere Unibertsitate askotan irakasten da. Chomsky ez du, normalean, deus ere esaten korronte psikoanalitikoari buruz bere idazlanetan. Nik dakidanez, aspaldi eginiko elkarriketa batean bakarrik aipatzen ditu freudiarrak eta Gestalt-eko psikologoak (Kohler, Lashley...). Hauei beste errespetuz begiratzen die, eritzietan bat ez baldin badator ere.

4) Irakurlea harrituko da, segur naiz, artikuluaren azkenaldira Piageten kritika agertzen delako eta, irakurtzen duenak pentsatuko du, Piageten teoriari han ematen zaiena baino zerbait gehiago ere merezi duela. Gauzak ez lirateke hain errazki baztertu behar.

Aipatu bezala, hemen aurkezten dugun artikulua hitzaldi bat da eta ez lan amaitua. Piaget eta Chomsky bildu ziren Parisen egun batzuz beste espezialista zenbaiten aurrean eta eztabaidatu eta parekatu egin zituzten eritzia (ikus *The Debate between Piaget and Chomsky*, Harvard, 1980). Beraz, kritika horrek badu oinarri finkatuagoa, hemen agertu ez arren.

Piageten kontzeptu klasikoa (construcción sensorio-motriz, sensorio-motor construction) «sentimen-motore eraiketa» bezala itzuli dut.

P.S.

IRUÑEKO AGIRIA

Didaktika, komunikabide, eta gizarte-zientzien alorretan ari garen profesional euskaldun, katalan eta galiziar batzu; baita talde herrikoietan, eta erabilpen linguistikoaren eztabaidaketan eta aldakuntza demokratikoaren bultzadan ari garen beste batzu, bildu gara Iruñera; geure esperientziak eta aurkikundeak elkarrekin jartzekotan. Eta ondoko hau Egiaztatzen dugu:

1.- Azkeneko hogeitun urte honetan, argizapenean eta eraikuntzan saiatzen diren herri-taldeak sortu direla gure herrialdeetan. Hizkuntz komunitateen arteko desberdintasun osoak eta betidanikoak sortu ditu talde horiek, egia esan; denen artean komunitate bakar bat ezarri baita nagusi; eta abiaburu honi jarraitu zaion Estatuak, molde bereko hierarkia politiko eta mintzairagailentasuna bihurtu baititu lege eta oinarritzko instituzio.

2.- Diktadura frankistaren desegiteak, ordurarte maltzurki baztertuak egon ziren arazo publiko eta interesgarriak buruzko eztabaida librearen itxaropena zabaldu zuen. Baina espero zen aukera hori ez da mamitu. Europa alde honetan gaudenez, hizkuntz multzoen arteko erlazioaren birmoldaketa izan zen funtsezkoenetako bat. Segurutzat jotzen zen berrikusketa hori hizkuntzen sailean, edozein demokratizazio egiazkoa izango bazen; eta berorrek zuzengabekeria, gehiegikeria eta ustelkeria askoren konponketa ekarriko zuela.

3.— Eskubidezko xedeak, herriaren borondate onak, eta horren luzaz pilatutako sofrikario eta ahaleginek, behingoz eta betirako, lehendik legeztutako egoeraren berrikusketa eskatzen zuten; eta, Europako tradiziorik hoberenean, guztiontzako duintasuna eta berdintasuna finkatuko zituela, etorkizunaren zabalteak hori eskatzen zuen, baita egitura demokratiko bat. Sarkasmoan barrena, ordea, trufatu egin dira esperantza horietaz; berdintasunaren antolaketan eta adierazpenean, horretara eraman zezakeen prozesu demokratikoa baztertuz. Bere 1, 14 eta 149.1.1. artikuluetan handiro aldarrikatzen diren askatasun eta berdintasun demokratikoak, Konstituzioak berak bere 3. artikuluan zehazki irentzen eta hondatzen dituela ikusten dugu; bertan Estatuak bere izenez eta ofizialtzat babesten eta inposatzen duen hizkuntza, bakar bat baita; bidenabar «Espainiako gainerako hizkuntzak» zedarritu gabe eta defentsarik gabe uzten dituelarik. Aldarrikatuz eta izen osoaz goraiatzen den hizkuntza bat ageri da textuan, hitz batez; lotsarik gabe aipatu ere gabe besteak uzten direlarik. Honek sortzen duen kontrasteak, oinarrietan beretan funtsatzen du desberdintasuna; eta, hortik aurrera, aldarrikatu eta goratu baizik ez da egiten sustraizko desoreka hori. Lotsagarriena, beraz, hauxe da: antidemokratikoa den printzipioa, demokraziaren gorantzan zuzen-etsi nahi dela; eta aspaldidaniko diskriminazio zahar berbera, irtenbide berritzaletan proposatzen zaigula. Hots, arazoaren kakoa diskriminazio zahar horretan datza. Garbikiago esanez: berriro hetsi da zirkulu kirats hura, aurrerabidea hezetzaturik geldituz.

4.— Egoera honek, hitz batez, aurreko egoeraren trinkotasun eta inertzia berberak ditu. Garbi agertzen da hori ondotik hartu den lege-arauketa guztian, baita beste mailetan hartu diren erabaki administratiboetan ere. Estatuko hizkuntza ofizialtzat bakar bat hartu nahi horrek, koloka jarri du dena: beste hizkuntzak (hobe-kiago esan europar hizkuntzak diren euskara, katalanera eta galiziera) uxatu egin dira, blokatu eta hondatu. Europa alde honetan, komunitate linguistikoen harremana, oraindik ere, Estatu nagusia eta errejio morroi batzuen arteko harreman gisa ikusten da; hau, jakina, berdintasun demokratikoen ukoa bera delarik. Gehiegikerien legeztapen hau erabat dago urruti Belgikan, Suizan eta Jugoslavian antolatu diren legeztapen-motetatik. Estatu hauetan, hain zuzen, arazo linguistikoak libreki eta demokratikoki eztabaidatu eta konpondu dira.

5.— Zentrifugazio honen ondorioa (eta sistemaren gotortasun orokor horren adibide), Estatuak berdintasunik gabe antolatu

duen hizkuntz eskualdekatzea da; nagusi ez diren mintzairak beren lurraldeetan beretan ere bazterturik eta zokoraturik geratu direlako. Lehen bezala orain ere —eta sekula baino nabarmenkiago, egia esan— ezin daiteke gaur normaltasunean bizi galizieraz, ez katalanez, eta ez euskaraz. Inoiz baino handiagoa da gaurko desoreka; eta deuseztaketa eta likidazio prozesuak, azkartu egin dira; egoera zuzenago batetara iristeko bideak, gain-gainetik hetsi direlarik.

Hori guztia dela—ta, hau adierazten dugu:

1.— Irtenbiderik gabeko zulo honetan sartu gaituzte. Eta buru-gabekeriak eta txotxolokeria irribarretsuak, aukera bidezkoak eta ahots jatorrak ito nahi dituzte, gauzak absurduraino eramanez. Arazo ezin larriago hauek eztabaidatu eta sakondu nahi direnean, hildakotzat jo nahi dituzte batzuk. Gure erantzukizun profesionalak, pertsonalak eta zibikoak, horrela, zuzi apal hau piztutzeroa behartu gaitu, izugarritzko iluntasun honetan argi—zirrinta bat bederen irazekitzeko asmotan.

2.— Gaur egungo ezintasunak, arrazoibide zaharraren amaia eta hutsala salatzen ditu; eta arrazoibide berri baten sorrera iragarri behar luke. Arrazoibide berri horrek ikerketa batetik, eta dinamika, jokabideak eta eguneroko pratika linguistikoak bestetik lotu behar lituzke. Badakigu pentsaerak, ekintzak, eta organiazioak elkarren beharra dutela, eta elkarren bultzatzaile gertatzen direla. Publiko egiten dugun Agiri honek, azkenik, argitasunerako eta eraikuntzarako bidean laguntzaile izan nahi luke; argitasunaren bidetik etor baitaiteke, eta ez bestetik, guretzako esperantza zabala eta eragilea. Europaren ohoretan.

Iruñean 1983ko Uztaila.

Josu Landaren

«Gerraondoko poesiaren historia»*

Joxe Azurmendi

Polita da, gustora irakurtzen da. Baina honez gero arazo hauek, hala esango nuke, ez lukete gusto kontuan geratu behar.

Liburutto hau seguruenik ispilu egokia da, transmisioa nola egin dugun ikusteko. Zalantza gabe horrelakotsua da belaunaldi gazteak daukan irudia. Gure atzoko jokabideen gaurko emaitza hori baldin bada, ordea, liburu hau, errebotean, geuri egiten zaigun salaketa bat da: gustora irakurtzen ari nintzen artean sentitu dudana disgustoa aitortzen dut honekin. Egon den gerraondoko poesiatik eta kultur berriztapenetik, zer da, ondorengoei transmititzea lortu duguna? Nola funtzionatzen du gaur euskal kulturaren transmisioak?

Izan ere, guk —nire belaunaldiak— ez eskolarik eta ez Unibertsitaterik izan dugu euskal kultura ezagutzeko. Eta geure kasa, taldeka edo bakarka, beti zatika, geureganatu ahal izaten genuentxoa, zuloz eta hutsunez beteta geratzen zen. Guk, edozein autore, «deskubritu» bezala egiten genuen, deskubrimenduon ezinbesteko alderdikortasun eta alderdikeriaz, emozio —eta subjektibismo— guztiez. Ez dakit aitzakiak ateratzea tokatzen ote zaigun,

* LANDA, Josu: *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar, Donostia 1983. 113 or.

baina nire belaunaldiak ezinbesteantsu izan dituela akats horiek esango nuke. Ez nituzke beste gabe gaitzetsi egingo (inork ez omen du egiten ahal duen baino gehiago), baina are gutxiago ikusi nahi nituzke metodo bihurtuta. 1960–1980 artean zerbait egin bada, eta orain ikastolak eta Unibertsitatea zerbaitetarako baldin badauzkagu, ba, berriro lehengo falta berberak ez egiteko gutxienez, balio beharko ligukete.

Ezer gabe geratu denaren errekuerazio urgente batzuk egiteko ahaleginak bezala, orain arteko historigileek eta historigintzak beren moduak izan dituzte, beren eginkizuna (dibulgaziozkoa gehienbat) bete dute. Horrela idatzi da garai bateko saioa. Eta horra nire lehenengo oharra: Landaren historia hau ere saio bat da, saio gisa egina, ez azterketa gisa. Apropos dago saio gisa egina: inon ez zaigu agertzen zein erizpiderekin jokatu den, ez zein alderdi poetiko bereziki kontsideratzen edo deskontsideratzen den historia honetan, etc. Guzti horretan Landak oso libre jokutzen du. Saio bate-tako libertatearekin. Eta, nire kontzientziarako, lehenagoko gure saio-moduaren antzekoegia da, saio haren alderdi positiboena ez ziren alderdi askotan. Beldur naiz, beraz, saio honek, besterik nahi bazuen ere, topiko batzuen konfirmazioa gehiago eragingo duela, haien berrikusketa baino (Lizardi eta besteren baten kasua salbu); hutsune batzuk areagotu egingo dituela, betetzen lagundu baino.

Jakina, hemen, harrapatuta nago: hitzaurrean bertan esaten bait zait, falta diren izen batzuk, esate baterako, ez direla falta zabarkeriaz edo olbidoz, Landak halaxe eritzi diolako baino. Eta honelako garbitasun bat poeta bakoitzaren alderdi edo baliapide poetikoei berdin aplikatzen badiet, galduta nago, kritikarik egiteko orduan. Triku honi ez dago nondik heldu.

Halere, nik ere neure inpresio orokor batzuk autorearen inpresioen truke emateko, zerbait konkretuago izaten ausartuko naiz. Ez dut isilduko Lizardiri emandako tratuak eman didan sustoa. Lizardiren arrakasta Orixerenagoa da nonbait, Lizardirena baino. Oso Lizardi gutxi utzi digu Landak. Hasieran gaude eta, «martxa honetan ez dakit zeinek salbatu behar duen», pentsatzen duzu. Salbatzen dira batzuk, bai, eta ez doi–doi zuk uste zenituenak. *Pott* eta, igoal inportanteagoak dira Lizardi baino... Lehenengo salbatua Lauaxeta da. Hau, konpentsazio-moduan edo, «errekueratu» egiten da. Lizardiri kontrajarria dator (azken aldian joera dagoen bezala, ez dakit zergatik), eta justizia berriaren arabera, Lizardi behera ekartzen den tokian Lauaxeta gora eramaten da. Ni neu ez naiz ikaragarri Lauaxetazalea (aukeran Lizardizaleago behintzat), baina hasieran gaude. Dena dela, bat poeta laureatu eta bestea kasi

poeta maldito bezala tratatzeko eta kontrastatzeko eskema hori ez zait gustatzen eta ez dakit zertara datorren. Ez dut uste historikoa denik ere, askoz geroagoko gorabeheren projekzioa baino historian barrena.

Autore bakoitzaren balorazioetan sartzeak ez du merezi: egileak berak ezin egin izan duenean sartu beharko genuke (datuak eman, interpretazioak arrazonatu, etab.).

Liburuaren gaia *poesia* da, eta *historia* da (ez autore batzuk edo poesi liburu batzuk). Baina, poesia hutsa baino zabalago, gerra-ondoko historia literario guztia biltzen da nolabait poesiaren inguruan, bai historia honen eta bai poesia haren irudi elkartu bat sortuz. Neure gustorako, hau da liburutto honen problema okerrene-tako bat. *Euzko Gogoa*-ren eta *Egan*-en historiaren esplikazioan, esate baterako (eta kontuz: ez da egia, adibidez, A. Arruek *Euzko Gogoa*-n ez zuela sekula santa idatzi; beraz, hortik aurrerako esplikazioak ere oker doaz): edozeinek esango luke aldizkarion bizi-tza eta gorabeherak poesiak eta poetek determinatu zituztela... Edo, era berean, Orixek *Euzko Gogoa*-tik aldenarazi eta «berri-kuntz saio» batetarako lekurik gabe utzi zituela gazteak, *Egan*-era jo beharrean...

Poesiaren historiari lotzen zaizkion historia literario edo kultu-raleko beste datuokin, historiaren irudia deformatzeraino doa sarri Landa bere rekonstrukzio historikoetan. Aipaturiko bi aldizkari-ekin baino ere okerrago gertatzen da hori 60. urteetako arazoekin, garbi/mordoilo, batu/euskalki borroken azalpenetan alegia, edo modernotasunaren hasi nahietan. Gorabehera hauetan poesiak eta poetek jokatzan duten protagonista ia bakarren papera, nire ustean, ez da benetako datu historikoei dagokiena. Niretzat ez da go gerra ondoko kultur berrikuntzaz hitzegiterik (euskara kaleta-rra, moderno, etab., tematika ere kaletarra, moderno), inoren gainetik eta aurretik K. Mitxelena eta Txillardegi eta biokin ireki zen mugimendua aipatu gabe. Berrikuntza ez zen poesian abiatu, edo ez zuen han indar hartu: beste eremuetan indartu eta gero eman zuen fruitu poesian, efekto bezalago agertuz kausa bezala baino. Poesiaren dependentzia hauek gehiago azaldu behar ziren nire ustez. Zergatik bukatu zuen Arestik azkenean hiztegiak egi-ten? Poesiaren bararen barne kondizionamenduak bilatu behar di-ra hor. Adibide hutsa da.

Guzti honetan ondo garbitu gabeko arazo metodologiko bat susmatzen dut. Gerra ondoko poesiaren historia egin daiteke aldian aldiko esijentzia edo kontzientzia poetikoaren desarroilo-

moduen eta eremuen azterketa gisa: tema eta forma poetikoen desarroilo hutsetara mugatuko litzateke, gehien-gehienbat azterketa formal batetara. Gurean, ordea, eta batez ere lehen, poetak ez dira «poeta hutsak» izaten: borroka sozio-linguistikoetan, politikoe-tan, ideologikoetan sartuta ibili izan dira. Gure kultur eremutxoan elkar dependentziak oso gogorrak dira. Eta batez ere kulturari dominanteak horrelakoxe borroka zirenean, borroka haien eragina poesiaren gainean inportantea zen. Borroka haietan, aldiz, oso modu desberdinetan egon dira «poetak» inplikaturik. Gorabehera horiek auzaldera sartzen bagara, haien gako poesian aurkitzeko edo borroka haiek azkenean poesia-*tik* esplikatzeko arriskua dago, lehenengo. Eta, gero, poetaren eta eragile kulturalaren paperak nahasteko, biok oso bi gauza bait dira. Har dezadan hiru autore. Arestik, zer duda, merezimendu asko zuen, bai poeta bezala eta bai bestela. Baina, orain, bere merezimenduez gain, besteren batzuenak ere jaso ez ote dituen geratu naiz. Batez ere beste autore batzuekin proportzioan (desproporzioan). Gero, Krutwigen egiazko inportantzia (historikoa), poesiaren historia batetan, zertan datza: haren poesian, edo izandako eragin poetikoa, ala askoz geroago, eta beste eremu batzuetan, beharbada ezta euskaraz ere, izandako haren partean? Hirugarren autore bat: Joan San Martin. Landak ez du bere azalpena egilez-egile jarraituz egin nahi, hari historiko bati jarraituz baizik. Baina horrelaxe jokatzekotan, hain zuzen, iruditzen zait zaila, une historiko batetan behintzat San Martinek jokatu zuen papera ez aintzakotzat hartzea, poeta bezala (Otsalar) zein kritikoa bezala, nahiz itzultzaile bezala, edo animatzaile bezala ere (Xanti Onaindia, etc., berdintsu). Alde batetik poetak eta haren obra dago, bestetik historia, desarroiloa: biok kointziditzen ez dutenean, uste dut, Landak azkenean egilez-egile diharduela, desarroilo baten eta haren baldintzapenen historigile gisa baino gehiago. Horrela, uste dut autore-poeta batzuen paper historikoa gehiegitxo jaso duela; poeta gisa agian pisu gutxiago duten beste batzuen paper historikoa, aldiz, ez duela behar adina gogoratzen. Historian, alabaina, poeta hoberena ez da derrigor eragile azkarrena gertatzen, Aitzolek erakutsi zuenez.

Kronologiari kontu egiteak ere ez dio kalterik egiten historiari. Arestirekin hasi eta bertan ateratzen zaizkigu haren abertzale izatearen ala ez izatearen, proletaritzaren ala ezaren istiluak. Baina horiek askoz geroagoko kontuak dira, haren poesigintza apenas ukitu zuten inoiz (poesigintza honen sorrera gutxi-*gutxi*enik), beharbada gero haren (nahiko beranduko) irakurleren batzuentzat horiek datu inportanteak izan arren. Denbora, hain zuzen, lehen

eta geroko linea baten terminoetan definitzen da eta historia denboraren arabera lerratzten da.

Aresti ondoko gutzia deskontzertantea egin zaidala, aitortu beharko dut azkenik. Benetan, *Panpina ustela* edo *Pott*, eta kito: horriek ote dira azkeneko hamar/hamabost urte honetako *datu poetiko historiko* inportanteenak? Datuak, esaten dut, eta poetikoak, ez dut esaten asmoak edo proiektuak; eta historikoak, esaten dut, fruitu determinatu bat utzi dutenak, ez autore bestela inportante batentzako biografikoak (agian harentzat ere gehiago erreferentzia biografiko edo anekdotiko bat, obra batetan egiaz plasmatu den errealitaterik baino).

Ez da liburu honetako arazoa bakarrik, baina kezkatzen nauena da, periodizazioak egiteko erabiltzen den sisteman, behin eta berriro, periodorik erakutsi baino gehiago, autore batzuei aldi osoa eman, egiten dela. Lizardi, Aresti... Jarraipen edo oposizio pertsonal batzuk. Pertsonaia bakan batzuk alegia, historiari baino gehiago. Orduan, bigarren mailakoak irrealtasunera eta isiltasunera kondentatuta uzten ditugu, existentzia autonomorik ere gabe. Modu honetan gure haunditxo bakarrak beharbada hobeto nabarmentzen ditugu, baina gure historiartxo pobreak lehen den baino ere monokultibisten baratza pobreagoa dirudi.

Gaur-gaurkoz, historiari idazteko, problema handia dauka: azterketa monografikoen falta. Bestela derrigor geure inpresioen pean gabiltza, onenean ere geure memoria koxkorren hegaletan. Azterketa monografiko zehatzik ez dagoen artean, oso zaila izango da behialako saiotik egiazko historigintzara salto egitea. Baina, bitartean denborak ere piska bat aldatu egin dira eta, berriro saio historikoa idatzi nahi baldin bada, handia da arriskua, gaur ere saio inpresionista bat idaztekoa, atzoko saio bat gaur berriro hain zuzen.

Natorren berriro hasierakora: nola egiten dugun transmisioa. Landaren liburutto hau, dagoen kolekzioagatik ere, eta horren gisako besterik parean ez dagoelako bereziki, informazio-transmisore garrantzizko bat izateko dago. Eta horrek preokupatzen nau. Irakurlea, nik uste, beste mila bidetatik eramanda dagoen autore berberengana orientatzen da berriro eta ez zaio laguntzarik ematen ezezagunago, baina galdu ezinezko, batzuk deskubritzeko. Irakurleari batez ere erakusten ez zaiona, zera da: gure literaturak, lau protagonista galdu ezezik, bere historiartxo ere baduela.

Azkenean Unibertsitateko irakas- eta ikerketaren modua da, liburutto honek auzitan jartzera behartzen gaituena. Badirudi ez da-

goela egun-eguneko problema larrienei begiratu eta erantzuteko, baizik bere kristalezko kanpian ikerketa mikroskopiko guztiz formal eta neutralak egiteko, hots, antzuak. Harritzekoa ere ez da, euskal kulturaren dinamika tradizioaletik eta militantziatik aparte sortua izanik, ez haren jarraipen goititua bait da, ez harekin eta haren lanarekin loturaren bat bilatzen saiatzen bait da. Bistan dago, azterketa akademikoaren desarroiloak, gutxi-gorabehera lehendik bagenekiena hobeto jakiteko mila xehetasun argitu arren (onenean ere gehienak filologiko hutsak, zertarako gabeak halere asko eta asko), oso gutxi aportatu digula ikuspegi berririk irekitzeko. Gure belaunaldiak lehenago eta orain Landak bezalaxe, hurrengoak ere, martxa honetan, bere aldetik egin beharko ditu deskubrimenduak, inork irakatsi zionaren laguntza haundirik gabe.

J. A.

Saizarbitoriaren
**«100 metro»ren semantikaz
ohar batzu**

Mikel Hernandez

«Literaturan forma da dena» entzun ohi da maiz. Hori egia da, baina segun eta nola ulertzen den. Gaurregun narrazio formalistegia egiten ari dela entzuten ere da. Garbi dago azken urteotan errealismo estrukturalistak zabaldutako liluramendua. «Formalismo», ordea, ez da «estrukturalismo» soilik. Eman daiteke oso narrazio formalista, estruktura-zailtasun handirik gabe. Esaterako, literatura soilik hitz ponpoxoak erabiliz egiten delako «uste ustela», gure artean hain zabaldua, antza.

Uste dugunez, *100 metro*, Saizarbitoriaren bigarren nobela, ez da ondo ulertu neurri handi batez, edo kasu askotan.

Obra horretan jendeari nabarmen iruditzen zaion gauza bakarra —antza—, behin eta berriro azpimarratua, alderdi teknikoa izan da, modernotasuna etc. Gure ustez, ordea, obra honek (eta gainerakoek ere) azaltzen duen kontatzeko hunkigarritasuna, aparta da euskal literaturan, usatugabea apika, zeren euskal literaturan ezagutu dugun hunkigarritasuna ñoñoa izan bait da ia beti. Obra honen egitura eta gauzak kontatzeko modua inportanteak dira, jakina, eta ezin zitekeen beste modu batean kontatu esanahia aldatu gabe; baina obra honetan agertzen diren anekdota eta pasadizu biziak dira maizegi ahanzten dena: liburuan agertzen diren

baliapide tekniko guztiek ez lukete gauza handirik balio izango, pasarte hunkigarri horiek gabe. Anekdotak soilak narratzeko teknika klasikoagoak maisuki erabiliak daude, bestalde. Deskribapenen teknika inpresionista, esaterako, eta errealtasun-efektua lortzen duten gainerakoak ere. Eta gehien harritzen duena, beste gauza batzuen artean, J. Kortazar bezalako kritikoa saiatu batek artikulu luzeska egitea da alde semantikoari inportantzia handirik eman gabe, edota formarekin gehiegi lotu gabe, estrukturalismo guzti hori semantika zehatz baten funtzioan egongo ez balitz bezala — nahiz eta Kortazarren azterketa formala oso ona den¹. Saizarbitoriaren beraren hitzak parafraseatuz, ez-zuzentasunez betetako gaurko mundu zeken honetan ez gatoz egiturakeriak egitera modu ingenuo batez, hainbeste gauza premiatsu egiteko dagoelarik².

Hain zuzen ere semantika, alderdi semantikoa da —Chomsky-ren teoria linguistikoan edota Blomfield-enean ere, esaterako— problematikoa. Eta halaxe literaturan ere, bai obra idazteko orduan bai aztertzeakoan. Eta ondorioz —baina ondorioz bakarrik— da zaila semantika horren distribuzioaren forma hutsa. Semantika da lehenago, ez teknika.

Kosmos semantikoa ondo ordenatzea (edo desordenatzea) da, seguru aski, zailena nobela batean, hutsak ez egitea, detailerik txikiena ere gaizki ez jartzea, lekutik kanpo; isiltasun eta ezabaketen hedatzeko ahalezia. Horregatik dira faszinanteak, «liluragarriak», Saizarbitoriaren obrak, eta hau ez dugu zentzu inuxente batean esan nahi. Irakurleak, irakurtzen ari dena «sinetsi» egiten duela esan nahi da — ez da gauza erraza irakurlea positiboki «engainatzea», liluratzea. Jendea «liluratua» gelditzen da, zergatik den horrela gehiegi jakin gabe; eta askok, explikatzen nahian, lehen pausoa errazena esaten dugu, garbien eta nabarmenena: egitura. Normala da. Baina ez. Egin dezagun *100 metro*-ren semantika-azterketarako saio bat. «Hasierako» saiotxo apal bat besterik ez bada ere. Axolazkoen gertatzen zaizkigun anekdotak azalduko ditugu soilik. Alde batera utziko ditugu bai anekdota txikiak bai kaleko giro fresko eta egiantzekoaren lorpena nola den posible, bai elkarrizketen egiantzekotasuna nola lortzen den explikatzea.

Ez «estrukturalismo moderno» bakarrik, baita teknika klasikoena ere ondo menperatzen du autoreak. Nobela moderno bat ez da egiten beti teknika modernoaren bidez, normalagoa da modernoa eta klasikoak nahastea.

Poesia sailean Irun-saria irabazi zuen batek hau esan zuen be-

hin: «100 metro egitea gauzarik errazena da, hartu lauzpabost kontakizun diferente, hartu guraizak, moztu hemendik eta handik eta segituan lortuko duzu hori, nik egin nezake nahi banu, edozeinek, ah, poesia ordea ez da horren erraza». Eta ez da hori uste duen bakarra. Gureztat, ordea, 100 metro-ren oinarritzko kontakizun eta pasadizuak, egitura bezain baliotsuak dira. Oso obra aparta litza-teke 100 metro egitura osoa kendu arren.

Egin dezagun, bada, 100 metro-ren (egokien gertatzen zaizki-gun) anekdoten ikerketa-saiotxo apal bat (anekdota bakoitza subanekdotetan bana daiteke batzutan).

1. Eskolako haurren anekdota³

a) Haurrari bandera bat inposatzen zaio — bandera bat eta honen atzean dagoen guztia ere, noski.

«... amarillo y rojo enseña de mi Patria.» (41 or.)

«—Que es blanca, roja y verde (...)

—Quién le ha dicho eso (...)

—Mi aita.

Artikulatzen du.» (57 or.)

Bi super-ego diferenteren irakaspena gertatzen da borrokan. Umearentzat «egia» da munduaz bere aitak esan diona. Mundua ezagutzeko (ezagutarazteko) prisma diferenteen arazoa eta mundua ikusteko modua batzuk besteei inposatu nahia planteatzen da hemen. Aita eta botere ofiziala. Bi super-ego diferente kasu hone-tan — beste batzutan berbera izan arren.

b) Haurrari berak ulertzen ez duen kastigua, zigorra, jartzen zaio. Entenditzen ez duen mezu bat inposatzen diote berea ez duen hizkuntza batean (hona hemen liburua elebiduna izateko arrazoi bat, beste batzuen artean): «Los rojos separatistas fusilaron la imagen del Sagrado Corazón en la Capilla del Colegio» (93 or.).

c) Haurrari izena bera ere ukatzen zaio:

«ZUAZALA O ZUAZACOMOSEA A DONDE MIRA USTED» (25 or.).

«Izena duen guztia omen da», izana-izena, euskal esaldiak dioen bezala. Hori egia balitz, izateko deretxoa ukatuko litzaioke haurrari.

Haurraren anekdota osoa biziki inportantea da; zeren, liburua bukatzeko bi orrialde falta direnean, narrazio mota nagusian («D» izendatzen du Jon Kortazarrek, ik. *Jakin* 13) hauxe agertzen bait da: «Egunero bezala gabardina erantzi ondoren bata beltza hartzen dik kolgadoretik» (97 or.). Eta zein da nobelaren lehen esaldia? Hauxe (11 or.): «Haurrak, gabardina erantzi ondoren, bata beltza hartzen du kolgadoretik». Esaldi berbera, ordena eta guzti. Jon Kortazarren terminologian, A gorputz narratuaren esaldi bat Dra pasatzen da, beraz. Honek zirkularra egiten du obra. Haur hau iheslearen anaia txikia da, baina iheslea bera izan zitekeen berdin—berdin. Esaldi honek zirkulua ixten du. Zirkulu etengabea, zirkulu itxia. Obra ez da lineala, beraz; eta ez detaile honetan soilik, nobela guztian zehar baizik. Zeren batera eta tartekatuz ematen bait dira komisariako gertakizunak eta iheslearen hilketa, eta badakigu ekintza bat bestearen ondorioz gertatzen dela. 97. orrialdeko esaldi hori agertzean, badirudi historia hasten dela berriz ere. Zirkulutasun hori bera azaltzen da halaber «egunero» hitzaz lortzen den anaforaren bidez: «Egunero bezala hire anaia txikia Salesianoetako eskailera igotzen ari duk. Egunero bezala gabardina erantzi ondoren bata beltza hartzen dik kolgadoretik.» Historia errepikatu egiten dela sujeritzen du autoreak. Egunero. «Egunero hasten delako» esan genezake, autorearen lehen nobelaren titulua gogoratuz.

2. Giltzaren kointzidentziaren anekdota

Ihesleak duen giltza eta, eserita, dena presentziatzen duenaren giltza berdinak dira, Michelek emanik.

Kointzidentzia gehiegi irudituko zaio norbaiti; baina, modu orijinal honen bidez, gauza zehatz batzu azaltzen dizkigu autoreak:

— Kasualitatez betetako mundu honetan, polizia injustoa litzateke berez munduko santuenak izango liratekeen kasu hipotetikoetan ere, zeren errugabea zigortzen bait du maizegi — eta gainera nork erabakitzen du zein den ona eta zein ez? Betikoak. Polizia, noski, beste gauza baten sinbolo bihurtzen da: boterearena. Polizia unibertsala da, eta Botereak «terrorista» deitutakoak ere unibertsalak dira, ondorioz: Zapalkuntza, Heriotza eta Mina bezala; kontutan hartu «terrorista» beti komatxo artean jartzen dugula; egokia-gu litzateke, beraz, ETAr baten historia kontatzen dela ez esatea, J. Kortazarrek egiten duen bezala: zeren Saizarbitoriak zapalkuntza-

ren historia egiten bait du, baina ez bakarrik herri zehatz baten historia soilia; herri batetako historia zehatz batetik abiatzen da unibertsal literario batetarantz jotzeko. Eta hori nobelan bultzatua dagoela uste dugu, leku konketuak esaten bait dira, baina dikta-dore zehatz bat aipatu gabe, ETA aipatu gabe. Esan egiten da, bai, Donostia dela, esaterako, eta ez agertzen diren lekuengatik soilik. Autoreak leku zehatz bat, espazio zehatz bat aukeratu du errealis-moa indartzeko — eta berak erreala sentitzen duen espazio bat nar-ratu ahal izateko; baina munduko edozein puntatan hemendik 100 urtetara obra ez da ulergaitza gertatuko —detaile batzu bai—, ez da zahartua geldituko, zeren ezagutuko bait da «terrorismoa-ren» kasua («terrorismoa» atemporal da, beti egon da eta beti egongo da defentsa gisa, zeren, dirudienez, hitzegiteko ahalmena bezain «humanoa» bait da zapaltzeko ahalmena eta joera, gizon-emakumeen (batzuen?) ezaugarri nabarmenetako bat bait dirudi). Terrorismoaren arazoa konplexua da, ez da gure gaia hemen; baina uste dugu duda gutxi egongo dela «defentsa» gisa sortu delakoaz. «Zapalkuntza», unibertsal bat da; eta zapalkuntza horren kontra-ko «defentsa» ere gauza bera, unibertsal bat.

Saizarbitoriak, horrela, bi irakurle mota hartzen ditu kontutan: euskalduna eta unibertsala — gutxienez.

— Patuaren ironia. Mundua painolu hutsa dela esan ohi dugu, eta ez da tontakeria. Traizionatu egiten gaituzte denborak eta espazioak. Denbora eta espazioaren biktima da komisarian dagoena, eta ez soilik polizia. Kointzidentziak errealtatean ere ematen dira, uste dugun baino maizago, eta pelikula batetan edo nobela ba-tetan sekula sinestuko ez genituzkeen kointzidentziak gertatzen dira bizitzan askotan.

— Korrika ari denean, plazan dagoen *humano* bakarrarengana zuzentzen da iheslea, nobelan sujeritzen denez:

«Baina korrika segitzen duk, han aurrean eseria dagoen tipoarenganantz korrika. Harengan babes bat bilatu nahi bahu bezala. Egia esan, intentzio hori ere ez duk heurea. Hori ere instintiboa duk. Jendea bilatzea, jendearen presentzia sentitu nahi izatea instintiboa duk higan heure burua arriskuan ikusten duan mementuetan. Bestalde ez hukek bakarrik hil nahi, eta tipoaren bizarrak, sudurrak, janzerak, jite osoak hire konfidantza merezi dik. Badakik hark ba-karrik salba dezakeela hire heriotza —heriotzetik salbatzen bahu ere— haren presentzia beharrezkoa egiten zaik hire heriotza testi-moniatzeko» (17 or.).

Baina geroago:

«—Alde alde hil egin behar naute eta esaten omen zinan» (55 or.).

Bakardade makabro batek bultzaturik hurbiltzen da «humano» horrengana.

3. Iheslea haur denean sandaliak bustitzeagatik aitak ematen dion zaplastekoarena

Aita—legearen biktima da haurra. Zapalkuntza hemen ere nola-bait. Beti botere bat (edo gehiago) pertsonaren gainean. Kolpatu eta zigortu egiten duen botere bat. Horregatik ez da kasualitatea nobelan pixka bat aurrerago hau irakurtzea — kanta bat aipatzen delarik:

«Nora doa gainezka egindako odol hori dena/
erailketen odola.../gerletako odola.../
miseriaren odola.../eta kartzeletan torturaturiko
gizonen odola.../aitak eta amak/
patxadaz torturaturiko haurren odola...»
(35 or.; azpimarratua gurea da).

Gehiago ere badago anekdota honetan. Haurrak ea olatuek harapatzen dituzten ala ez jolasten ari direnean, hau irakur daiteke:

«Abileenak, trebeenak, bizenak, bizkorrenak, ez dira bustitzen, batzuetan, eta beste batzuetan busti egiten dira, ahulenak eta kobardeenak ez dira bustitzen sekula» (19 or.).

Zita horren oihartzun aplikatu bat da liburua neurri handi batez bederen —sinbolikoki eta fisikoki ere, zeren bere odolaz bustitzen bait da iheslea.

Interpretazio hori ez da gehiegikeria bat. Gorago transkribatutako kanta behin baino gehiagotan agertzen da nobelan zehar (kanta bakartzat har daiteke, ikusiko dugun bezala) eta hiru hizkuntzatan, gainera, zentzu unibertsal bat bultzatuz. Kanta horren zatietan gehien agertzen den hitza «odola» da. Garrantzi handia du odolak nobelan (eta munduan). Odolaz zikindu. Odolaz garbitu. Heroeen odola. Torturazailen odola.

Ez da kasualitatea liburuan zehar agertzen den kanta hori bigarren aldiz agertzen denean, *judu batek* tokadiskoan jarrita izatea:

«—Zer nahi duzu entzun?

(...)

—Edozer gauza.

(...)

Automatikoak lehendabiziko plaka botatzen dik.

Zigarroa ezpainetatik kenduz paketea sartzen duk berriz ere, gero pospoloekin lurrera erortzen uzten dituk. Erretzen hasten bazarete bederatzietarako ere ez duzuela bukatuko pentsatzen duk.

Oú s'en va-t-il tout ce sang répandu

le sang des matraqués... des humiliés...

des suicidés... des fusillés... des condamnés...

(...)

Gero esku libreaz bular gainetik identitate txaparekin jolasten haizela, zerbait esateagatik dela disimulatu gabe, lehenago judu kontua zergatik aipatu duen galdetzen diok.

—Des vieilles histoires.

Manassé, bere aitaren apellidoa Argeleko judutar familia zaharrenetakoa zela esplikatzen dik» (45-46 or.).

Nahikoa da. Zoritxarrez hain famatuak diren juduen historia negargarrien jakite unibertsalari esker, lotura bat sujeritzen da hemen, 45. orrialdean zehar hitzekin tartekatua agertzen bait da aipaturiko kanta (lotura, jakina, argi dago: kantan hainbeste aldiz errepikatzen den odola eta juduekin egindako sarraskiak).

Kontura gaitezen, bestalde, abestiaren letra dela-eta, ez dela kanta hau batere bortxatua agertzen textuan, bi maitaleen hitzen artean tartekatzen bait da abestia, modurik naturalenean.

Lehenago ere agertu da kanta hau, baina ingelesez (34-35 or.). Badirudi defase bat dagoela kanten eta hauen itzulpenaren artean —ik. 35. or.—, zeren ingelesezkoa agertzean azaltzen bait da itzulpena eta azken honetan ingelesezko partean ez dagoen esaldi bat itzuli bait da. Parte hori, ordea, badago frantsesezkoan (46. or.): «le sang des enfants torturés tranquillement par leur papa et leur maman».

Ingelesezko partea ere disko batetik ateratzen da, textu barruan inolako bortxakeriarik gabe agertzeko: «Ifarrak tokadiskoaren soinua dakarkie konbersazio banalen hitz galduen artean».

Delako kanta indar handiagoa hartzen du nobela bukaeran berriz ere agertzen denean, oraingo honetan modu gratuito batez agertzeagatik eta nobela ixten duelako. Nola dakigu kanta bera dela azkeneko parte hau beste letren errepikaketa ez bada? Textuak elkartu behar horretarako:

- a) «Where's it going all this spilled blood
murder's blood... war's blood...
misery's blood...
and the blood of men tortured in prisons...» (34-35 or.).
- b) «It doesn't give a damn [sic]
The earth
it turns and all living things set up a howl
it doesn't give a damn [sic]
it turns» (35 or.).
- c) «Où s'en va-t-il tout ce sang répandu
le sang des matraqués... des humiliés...
des suicidés... des fusillés... des condamnés...»
- d) «le sang des meurtres... le sang des guerres» (45 or.).
- e) «le sang des enfants torturés tranquillement par leur papa et leur
maman» (46 or.).
- f) «elle tourne la terre» (47 or.).
- g) «It turns the earth
It turns with its trees... its gardens... its haouses [sic]
It turns with its great pools of blood» (99 or.).

Honen arabera, zentzuaren aldetik:

- a) eta c) oso antzekoak dira, nahiz eta igualak ez izan.
- a) eta d): «war's blood» = «le sang des guerres».
- a) eta e). Ez dira igual-igualak, baina bai antzekoak: «and the blood of men tortured in prisons» = «le sang des enfants torturés tranquillement par leur papa et leur maman».
- b), f) eta g):
«The earth / it turns» (b)
«Elle tourne la terre» (f)
«It turns the earth» (g)
- b) eta g) konparatuz, ordena diferente bat sumatzen da:
b) The earth
it turns...
g) It turns the earth.

Azken honetan anbiguitatea dago eta bi moduz itzul dai-teke:

- It turns / the earth: jirabiraka doa.
 — It turns the earth: hark jirabiratzten du lurra.

Azkeneko itzulpen hori dela eta, nork-zerk jirabiratzten du lurra? «Odolak», esan genezake, kanta-zati guztietan gehien agertzen den hitza (10 aldiz) eta nobelaren gaiarekin ongien ezkontzen dena. Maiztasunari begira, «jirabira» (6 aldiz) eta «lurra» (3 aldiz) datoz ondoren. Juxtu gure esaldi hori betetzen duten hitzak, «it» hori «odola» izan litekeelako hipotesia onartzen bada:

[Odolak] jirabiratzten du lurra
 It turns the earth

Baina konturatzen gara pixka bat bortxaturik doala interpretazio hori; zeren, kantaren inguruaren arabera, hobeto onartzen baita beste interpretazioa, beste itzulpena eta zentzua.

Hala ere, guzti horren ondorioz, hondartzako anekdotak zentzu berezia hartzen du, sinbolismora ailegatuz eta neurri batez premonizio baten modura funtzionatuz. Hori dela eta, imajina in-konsziente bat datorkigu burura: itsasoa odol-putzu itzel baten modura ikustea, nobela ixten duen kanta-zatiak eraginik:

«Lurra jirabiraka doa (edo «hark jirabiratzten du lurra»)
 Bere arbolekin, bere jardinekin, bere etxeekin
 /doa jirabiraka.
 Bere *odol-putzu* handiekin jirabiraka.

Elementu guztiak horrela direlarik, polizien eta iheslearen anekdota, alde batetik, eta hondartzakoa, bestetik, elkar eta konpara daitezke elementu nagusienei begira gagozkielarik:

hondartzakoa		ihesa
itsasoa	——	odola
olatuak	——	poliziak
(<i>olatuetatik</i>) ihes	——	(<i>poliziengandik</i>) ihes egitea

4. Michele-ren anekdota kontatuta dagoen humanitatea, karinoa, (31-32-33-34) (44-45-46-47).

Luzeegi izango litzateke *tendresse* horren muina hemen azterzea. Esaterako:

- «—Sabes hablar vasco?
 Mutilak baietz erantzuten dio.
 —Nik ere hitz asko dakizkit.
 —Esate baterako...
 —Agur
 —Formidable.
 —Ogia
 —Estupendo.
 —Neska polita
 —Fabuloso
 —Maite zaitut
 —Acojonante» (34 or.).

5. Kalean dauden umeen anekdota motza.

Esaterako:

- «—Benga, polizia lapurretara.
 Haur batek usoa izutzen du. Usoa hegan. Balkoi baten barandan geratzen da. Haurraren aurpegia. Zazpi edo zortzi urte izanen ditu. Haren begialdea. Bekokia.
 —Zeintzuk dira onak?» (56 or.).

Momentu horretan umeak egiten duen galdera mundu guztiari egina dago kontextuaren konnotazioagatik. Zeintzuk dira onak, teorian (noren teorian?) onak direnak ala besteak? Bera dela ona uste du maiz bakoitzak bere buruaz. Hitzen anbiguotasunaz eta konnotazioez jolasten du autoreak.

6. Manuelen anekdota (67–68–69)

Ihesleak ezagutzen duen borroka-kide bat da Manuel, hospital batera sendatzera eramaten dutena eta hango enfermera espainol batekin (haurdun gertatu ondoren) ezkondu eta organizaziotik ateratzen dena. Organizazioak zentsuratu egiten du, eta bota ere, sinbolikoki. Denbora pasa, eta halako batean Manuel ikusten du berriro nobelako protagonistak. Bere kontra ez duela ezer, esan nahi dio, konprenitu egiten duela, baina espazioan eta denboran harriztatzen da, hori esaten ausartu gabe. Ukaezina da momentu honek duen indarra:

«Oihu egitea pentsatzen duk. Bere kontra deusere ez duala adierazi. Gertatutakoa konprenitzen duala esan, mundu guztiak duela bere lekua, eta bere sukarraren beroaz ez haizela ahazten. Aurreratuz bizkarrean jotzea aski hukeela pentsatuz pauso bat ematen duk. Hire bizitzako pausorik luzeena» (69 or.)

7. Hiltzearen pasartea

Liburuaren bukaeran, segunduz segundu ematen da prozesua, denboraren iheskortasun krudela expresiboki azalduz eta denboraren kontrako borrokaren ezereza *erakutsiz*; bitzita iheska doan zerbait dela ez zaigu esaten, *sentiarazten* baizik.

8. Aitaren heriotza (iheslearen aitarena)

Heriotza mutil baten (ume baten) begietatik eta honek azaltzen dituen detaileetatik ikusita, are hunkigarrikiago azaldua dago. Haur izandako hori, iheslea, hiltzen ari dela-eta, bi heriotzen sentimenduak batzen dira eta efektu amplifikatua lortzen da horren ondorioz. Hemen ere historia errepikatzen da. Beti da horrela. Denok hil dehar dugu. Hemen ere denbora zirkularra azaltzen zaigu, gertakizunen errepikapen ziklikoa.

Eta guzti horretaz aparte, detaile eta anekdota, pasadizu eta pasarte hunkigarri ugari (hunkigarri bere esanahiaz, berez, eta lortuagoak, hunkigarriagoak, kontatuta dauden moduagatik):

- odol koagulatua mantxa beltza adokinean (28 or.)
- paretako loreak kontatzearena (47 or.)
- «El caballo blanco» lejiarena (48 or.)
- Komisariako anekdotaren teknikaren indarra; etc.

100 metro-ren azterketa semantikoak zerbait luzeagorako emango luke, seguru aski, egitura-azterketak baino (kontutan hartzen baldin badugu, estrukturek «signifikatu» egiten dutela, egiturek «hitzegiten» dutela). Puntu batzu ukitu ditugu hemen, baina garbi dago sarrera bat besterik ez litzatekeela izango, zeren, alde batetik, apropos baztertu bait ditugu pasarte batzu, inportanteenak soilik hartuz, eta, bestalde, pasatu zaizkigun eta ikusi ez ditugun gauzak gelditzen bait dira aztertu gabe. Gure asmoa ez zen sarerratxo hori egitea baizik.

Baina agertu ditugun pasarteek garbi azaltzen dute nobelaren

sensibilitate aparta. Eta hau esatea ez da topiko bat, hain hotz aztertu izan den nobela bati buruz aritzean.

Bestalde, nobela honen gaia hitz batez labur liteke: *zapalkuntza*. Nobelaren hiru historietan dagoen gairik bultzatuena («reku-*rrentea*»):

1. *Kolegioan* —gizartearen egitura zapaltzailea isladatzen duen instituzioa—. Hitzaren bidez, kastigoen bidez egingakoa.
2. *Kalean*. Ba al dago heriotza ematea baino gauza zapaltzaileagorik?
3. *Komisarian*. Zapalkuntza psikologikoa erabiltzen da eta zapalkuntza fisikoa egingo dela sujeritzen da: «Un minuto (pausa). Te vamos a dejar solo (pausa laburra). Te voy a dejar solo cinco minutos. Si no, te bajo. Te dejo abajo con estos (pausa handia). Vosotros, venga. Vámonos fuera» (77 or.).

Lan honetan zehar ikusitako anekdota super-aukeratuak ez dute formalismo handirik behar, ezta estrukturalismo dotoreegirik ere indarra izateko. Errealitatearen parte interesanteak —beretzat egokien zirenak— aukeratu ditu autoreak. Ondo begiratu gero, garbi dago errealitatean ematen dena baino gutxiago jaso duela autoreak, aukeratu egin duela (hori derrigorrezkoa da literatura egitean). Ez dutela estrukturalismo gehiegirik behar, esaten genuen, baina egia da halaber, historia kontaturik dagoen formagatik indartuagoa gertatzen dela. Horregatik «forma da dena» esan ohi da exajeratuz, baina ez da dena. Ze funtzio du orduan liburuko egitura alanbikatu horrek? Nobela klasikoak azaltzen digun errealitate konbentzionalaz duda egitea —alde batetik— denbora presente, pasatu eta futuroa nahastuz, espazio diferenteekin batera. Denbora zirkularra, borobila, azaltzen du autoreak, lehen esan bezala, linealtasuna ezabatuz eta lehen aipaturiko esaldia obraren hasieran eta bukaeran jarriz (baina bukaerakoa pixka bat disfrazatzen ez da nobelaren azken-azkeneko esaldia, artifizialegia geldituko litzateke eta).

Baina batez ere: *Euskal Herrikoa bezalako errealitate azkartu eta kaotikoa azaltzeko modurik aproposenetakoa da nobela honen egitura alanbikatua* (Euskal Herrikoa eta beste leku askotakoa). Hau da, desorden espazial eta tenporalak sortzen diguten ikuspegi konplexua errealitate hurbilago dago, nobela klasiko baten bidez lor litekeena baino. «Errealista» deitzen diren beste nobela asko baino errealistago gertatzen da horrela nobela hau.

Eta gainera korrika doanaren mundu pasatu, presente eta futuro nahasia eta kaotikoa, azkarra eta alanbikatua den bezala azaltzea lortzen da honela (gainera, ez ote goaz denok gaurko mundu moderno honetan korrika beti —eta ez manifestazioetan bakarrik).

Edota T.S. Eliot-ek —Gabriel Arestiren itzulpenean ematen dugu— «eskribitu» zuen bezala:

«Dembora presentea eta dembora passatua
Acaso daude biac presente dembora futuroan,
Eta dembora futuraoa contenituric dembora passatuan».

M.H.

¹ KORTAZAR, J.: «Ramon Saizarbitoriaren "Ehun metro"», in *Jakin* 13, 1980, 142-151 or.

² SAIZARBITORIA, R.: *Ene Jesus*, Donostia, Kriselu 1976, 140-144 or.

³ SAIZARBITORIA, R.: *Ehun metro*, Donostia, Kriselu 1976.

JAKIN

LIZARDIREN OLERTIA

garaia · giroa · iturriak · poetika

Chomsky-ren hizkuntz teoria

Donostiako Zinemaldia

Xabier Zubiri

Urria
Abendua

29

1983



JAKIN

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. - Donostia-13
Tel. (943) 271713